



IÑAKI ALKAIN
ANTONIO ZAVALA

GERRATEKO IBILLERAK - II

GERRATEKO IBILLERAK

(II)

AUSPOA LIBURUTEGIA

(149)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

IÑAKI ALKAIN, ANTONIO ZAVALA

GERRATEKO IBILLERAK

(II)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1981

Azala: Gudari-talde bat, Bizkai'ko mendietan, 1937 urtean. Jose Estornes Lasa'ren artxi-botik.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz
ISBN 84-7158-091-8
Depósito Legal: S. S. 403/81
Septiembre 1981

ARKIBIDEA

Salataria	9
Billarreal	15
Bitoria	21
Jatekoa	29
Gabon-gaba	43
Gabonzar	49
Plazentxiarrak eta motteroak	53
Sabin-etxea	59
Kalamua-inguruan	63
Larrauri	69
Bilbao	93
Enbeita'ren etxea	101
Orduña	103
Urbina	107
Arangio	117
Pello Zestua'koa	143
Urkiola	149
Sabigain	161

SALATARIA

Otxandio eta Olaeta alderdi oiek, gaur ez dakit, bañan orduan beintzat pagotegi aundiak zeuzkaten, eta pagotegiz-pagotegi izan zan gure abiada Billarreal aldera (1).

Gau artan eguraldi otza etzan; eguraldi epel xamarra, egoaize-antxa.

Etxeberria orrek, goi xamarreko baserri bateko semea baitzan, goi-alde guziak gerra-ibilerak egiteko onak zirala uste zuan. Onela, gau artan gañez-gain ginjoazen.

Bañan, Billarreal baño lenagoko kaxko batera allegatu giñanean, onela esan nion:

— I, Joxe: kaxkoz-kaxko oso gaizki ibilliko gaituk.

— Zergatik?

— Zergatik? Begira: goiko gañetara agertzen asten bagera, bereala gaituk beko txokoan, bañan ilda. Txirripilloa esaten zaion txoriarena egin zagun. Ura beti erreka-tzuloz-txulo sasi eta ostro tartean zebillek. Baita ere an makiña bat

piu-piu pirri-pirri piu-piu egin. Bañan ez dek gañetara azaltzen. Eta eiztariak ezin ikusi eta ezin il.

Etxeberria ori Amasa'ko mendi-aldeetan ibiltzen zan, bere familiak zeukan ardi-pillo bat zaintzen.

Onela, nik baño amazazpi milla aldiz geiago ezagutzen zuan mendia; eta baserria ere bai. Ardien berri ondo zekian, baita ere belearena, putrearena, azeriarena, erbiarena eta mendiko pizti guziena.

Bañan, gure baserritik aldamenean erreka bat baitago, txirripillo txori txikiarena nik obeto nekian.

Ala, tontoa ez izanik, bereala jarri zan nere esanera eta gain artatik jeixten asi giñan. Erreka-txulora jetxi eta Billarreal ondora allegatu gera.

Sarrera ortan errekek eskubitara artzen zuan, ibai aldera. Orduan Etxeberria'k onela esaten dit:

— I, Zarpa: erreka-txuloari segitzeko, eta orain ori nora dijoan ikusten al dek?

— Bai, ikusten diat. Etsaiaren aldera ziak. Orrera joaten bagera, il egingo gatxiek. Bañan ezkerretatik ere, erreka aundia ez dek, bañan zerbaiten erreka bazetorrek onera. Orain arte goitik beera etorri gaituk; bañan orain beste erreka oni betik gora jarraituko zioagu. Onek beste erreka-txuloren bat izango dik beste aldean, Billarreal'ko etsai guziak alde batera utzi eta Urbina ortara joateko.

Onela, beintzat, bagoaz biok ixil-ixilik, ez-tulik egin gabe, zigarrorik erre gabe, eztarria legorrik, eta bildurrez ere bai. Zeñek ez luke izango ibillaldi aietan?

Ia Urbina'ko sarreran, nere laguna, *rak!*, gelditu da, ni besotik geldi arazita, eta onela dit:

— Makurtu adi.

Etxeberria orrek izugarrizko sena zuan. Ni ezertaz konturatu baño lenago, arek gizon bat sentitu eta ikusi egin zuan ibaiaren ertzean. Bearbada usaia adituko zion, mendiko piztiak bezela.

Armarik etzeukala ikusirik, onela deitu nion etzanda nengoan lekutik:

— *Oiga, compañero, ¿no se acuerda de mí?*

Eta arek:

— *Perdone, perdone, yo no he visto nada.*

Orduan altxatu naiz nere pistola ametralladora, esku-bonba eta Franco'ren txapel militarrekin, eta onela diot:

— *Señor, a estas horas de la noche, perdone que le diga, pero sospecho que es Vd. un espía.*

— *¡Yo espía, no!*

Ondoko erri batera alaba bisitatzera joana zala esan zigun: bañan auzoko beste erri batean bizi zala.

Bitarte ortan, Etxeberria an zegoan badaezpada gordeta, bear izan ezker bere pistola ametralladorekin tiroka asteko.

Nik erantzun nion:

— *Ya veremos si es verdad lo que dice. Volveremos. Y, si es mentira, yo no le mataré, pero le entregaré a las autoridades militares para que le juzguen como a espía.*

Gerok estu eta larri eta gizon ura estutzen. Ura zan komeria!

Gizon ura ordurako irurogei bat urte ingurukoa zan. Bañan nerbiosoa zala ezagutu genduan, eta bagenekian nerbiosoa ez dala estuasun oietan gezurtia izaten.

Ala, pake-pakean bere bidean utzi genduan, nun bizi zan esan ondoren.

Gu gorro militarrekin ikusita, Franco'ren aldekoak giñala uste zuan arek.

Bi edo iru bider joan giñan geroztik beraren etxea, eta aren joera gure aldekoa zala ikusten genduan. Orduan onela esan nion Etxeberria'ri:

— Aizak, Joxe: Nik bein ere ez diat pozgarri gizon jator bat luzaroan gezurretan edukitzea. Orregatik, gu zer geran gizon orri argi eta garbi esatea pentsatu diat.

Onela, berarekin gau artan bertan arkiturik eta beti bezela jator-jator agurturik, onela diot:

— *Nos tiene que perdonar, por favor, el que hasta ahora no le hayamos dicho lo que somos. Pero como no nos gusta ser hipócritas ni mentirosos, le declaramos que somos soldados del Gobierno de Euzkadi.*

Ori entzunik, lepo-lepotik eldurik, besarkada bana eman zigun.

Eta, txaketaren azpian ibiltzen zuan zatotik Errijoja'ko ardo beltz ederretik tragoxka bana edanaz, antxe egin giñan egi-egitazko lagunak.

Andik aurrera, oso fin eta egoki portatu zan beti gurekin.

Esan bezela, inguru artako erri batean alaba bat zeukan, eta Bitoria'n bestea; eta ibilketa oiek egiteko *salvoconducto* baitzeukan, guretzat oso ederki etorri zan.

Bein baño geiagotan, etsaiaren konsijna berak eman zigun. Etsaiaren berri ederki jakiten zuan: zer trenetan zer tropa sartu zan, zenbat kañoi zeuden eta abar. Naiz-eta ni orain ongi ez gogoratu, argibide eta mesede ikaragarriak egin zizkigun.

Olako askorekin gerra zikin ari garbitasun ederra emango genion. Bañan ura bezelako gutxi arkitu ziran gure artean. Bear ainbeste ez beintzat.

Makiña bat aldiz joan izan giñan arengana, eta beti ere zerbait diru ematen zion Etxeberria'k, lan egiten duanari merezi duan saria eman bear zaio eta.

Jaun ori, nere lagun Etxeberria'ren oso antzekoa zan: gutxi itzegiña, bañan itz egiten zuan ura, bai piña eta atsegiña. Ni iruretan berri-txuena.

Len esan bezela, arek orduan irurogei bat urte zituan. Nik ez det geroztik ara joaterik

izan, eta aren berririk ez dakit. Onezkero illa izango da.

Bañan Jainkoak osasuna ematen badit, egunen batean joango naiz, bera bizi ez bada, aren familia agurtzera.

(1) Alkain'ek zionez, ibillaldi au, Nafarrate'ko burruka-aldia bukatu eta andik lau bat egunera egin zuten.

BILLARREAL

Guretako mutil jator eta iaio asko illak ziran; beste batzuek zaurituak. Alaz guziaz ere, etsaia gu baño askoz geiago etzala ikusirik, abiazioa eta militarrekin nagusitzen zitzaigula baik, artean ere bagenduan naitasuna geren askatasuna zaintzeko.

Len Ubidea aldetik bezela, oraingoan Otxandio aldetik jo genduan, oneraño autobusetan etorrita.

Bigarren aldi ontan, artilleriz, morteroz, esku-bonbaz eta abar askozaz ere obeto ornituak eta prestatuak abiatu giñan.

Otxandio'ko sarreran gauean, ez dakit zer ordutan jetxita, Pagotxiki'ra joan giñan. Pagotxiki ori, Otxandio'tik Billarreal aldera goazela, ezkerretara dago. Ollerias, berriz, eskubitara.

Gaua igarorik, egunsentian eguraldi otza eta lañotsua zan, eta guk ura bear. Tarteka-tarteka, baziran euri-zaparrada batzuk ere.

Gure artilleri geiena, naiz txiki eta naiz aundi, Ollerias eta Ubidea'n jarria zegoan. Ubidea'-ko irteeran, kañoi-bateri bat jarri zuten. Aren obusak ogei ta bost zentimetrokoak baitziran, Billarreal'en zeuden etsaiak bereala nabaitu zuten erri barru artan egoterik etzegoala, ainbeste ko bonbardeoarekin.

Etxeberria eta biok, len esan dedan gizon orrengana joan giñan, eta arek dan-danak esan zizkigun: zenbat artilleri eta zenbat jende zegoan; baita ere Billarreal'ko erritik Urbina ondoko mendigañetara atzeratuak zeudela.

Bañan gu, naiz-eta aren itzak ontzat artu, gerra-denbora berez txarra baita, eta gaizki pentsatzea ere libre eta bearrezkoa izaten baita, Santo Tomasena egin genduan: ikusi eta sinistu.

Andikan irten eta baztarka-baztarka, belarriak erne-erne eta begiak zakur amorratuak baño argiago genituala, Billarreal'eraño joan giñan, geren pistola ametralladora eskuetan eta launa esku-bonba ubeletatik zintzilik. Plazako sarrean onela dit Etxeberria'k:

— Ik, Iñaki, plazako eskubi alde ori zain zak eta begira zak. Nik ezkerreko alde au egin-go diat. Nere alderdian tiroka asten bazaizkit, andik edo emendik, eta naiz arrastaka, nere ingurura etorri adi. Nik berdin egingo diat, iri asten bazaizkik.

Billarreal'ko erri sonatu ori, ia dana kañoi-bateriak txikituta zegoan. Etzan katu bat ere ikusten. Eta, jakiña, katurik ez dan lekuan, ez da personarik ere izaten. Arratoia alde bat utzi-

ko det, pizti ori beste guziak baño gogorragoa eta azkarragoa dalako. Bañan ez genduan ura ere ikusi.

Onelaxe izan zan Billarreal'ko artuketa. Eta aren artzalleak, Etxeberria eta biok. Erderaz esateko, gu izan giñan: *los conquistadores de Villarreal de Alava*. Iñungo liburutan ez da olakorik esango, eta nik neronek egin bear izan det liburua, ori adierazteko.

Bañan gure artuketa ori denbora gutxikoa izan zan: geren zato txikitik ardo-tragoxka bana egiñik eta nik zigarro bat errerik, lau edo bost minutu egin genituan ango kontzejupe baten azpian, lasai-lasai exerita.

Bereala, gure lagunetara biurturik, enlazea Ibarrola jaunarengana bialdu genduan. Ibarrola, Otxandio'ko jaun-etxe batean zegoan.

Enlaze ori bera, ostera segituan etorri zitzaigun Ibarrola'ren aginduarekin: Billarreal'en lenbailen sartzeko eta erri orretzaz jabetzeko.

Nik neronek ez nuan ikusi. Bañan, gero Etxeberria'k esan zidanez, onela gertatu omen zan: *Itxarkundia eta C.N.T.*'ko batalloi bat, len esan detan Nafarrate'ko batalloi bulartsu ura bera, tokatzen omen ziran.

Billarreal'en, ainbeste bizi kostatako erri ortan alegia, zein aurretik sartu, *león-castillo* egin omen zuten. Zer gertatuko, eta *C.N.T.*'koai tokatu aurretik joan bearra. Eta au gogorra izan zan gero: ika-mikaka asi eta iñor abiatu ez! Onela gelditu giñan erri ortan sartu gabe.

Ai zer gogoa geneukan danok ere! Aurreko egunetako pasadak gogoan eduki nunbait. Bestela, egun artan ezer egin gabe gelditzea, ez det nik ulertzen. Etxeberria'ri zer esan nion, oraindik ere gogan daukat:

— Motell, Joxe: ik ongi badakik, Nafarrate'n oiek izugarritzko jasara artuak daudela. Baita ere C.N.T.'ko fiñenak an il zirala. Gaur batalloi orrek ez dik, Nafarrate'n ikusi genduanarekin, antzik ere. Ezta guk ere.

Benetan penagarria izan zan ura. Abiatu izan bagiña, ordubete barru Billarreal artua zegoan, eta inguru aiek ere bai. Ara oker txiki batek zenbat oker aundi ekartzen dituan.

Egun ura orrela pasa zan eta gauzak len bezelaxe jarraitu zuten. Ollerias gañetik asi eta Pagotxiki'ko gañerañoko mendigañetan gelditu giñan gu, *Itxarkundia* batalloia (1).

(1) *Euzkadi*, 1936-XII-11:

«...*Sigue actuando nuestra artillería con verdadero acierto en el sector de Otxandiano-Ubidea...*

...*La acción de ayer fue dirigida contra la parte de Legutiano que da a Otxandiano...*

Euzkadi, 1936-XII-12:

«*A las siete de la mañana, aproximadamente, comenzaron nuestras piezas a hacer fuego sobre los focos rebeldes de Legutiano (Villarreal), no cesando hasta el mediodía, cuando los jefes estimaron logrados todos los objetivos. El cañoneo fue, indudablemente, más intenso que el del día anterior, ya que se dispararon unos doscientos proyectiles...*»

Euzkadi, 1936-XII-13:

«*Parte del Consejero de Defensa de Euzkadi:*

...*Nuestra artillería bombardeó violentísimamente los reductos y casas de Villarreal, donde se defienden los facciosos, lanzando sobre ellos más de doscientos disparos, que causaron grandes destrozos y produjeron algunos incendios...*»

Euzkadi, 1936-XII-18:

«Itxarkundia irten da
berriro mendira,
fatxistak bialitzera
berriz atzerrira.
Jainko ta Aberri aldez
jotzera gau ta egunez,
Euzkadi
oso askatu naiaz.
Itxarkundia irten da...

Lau egunez atsedeen ondoren joan zaizkigu gudara. Sendo ta kementsu jokatu zirala lengo aldijan, gure ta auzoko izpar ingijak agertu ziguten. Gaur ere asmo sendo ta sutsuarekin irten dira. Goizeko sei ta erdi-etan zan itxartzeko deia; ordurako asko ziran aldeztu bear duten izkillua maiteki gertutzen, eta, lerroetan jarriaz, buruzaiak izenak artu ondoren, zortziretan irten dira... Litargi.»

«...Orregatik, Nafarrate inguruan gogor leiatzen dira mendiak gorde naiaz, arabar erri koxkor au artu naiaz, bere gallurretatik ederki ikusten baita arabarren uri nagusija, bere inguruetako zelaietan ibillera guziak ez bailirake igaroko goitarren begi argiak eta belarriak oartu gabe ta zigorarik gabe...

...kañoiak ere atertu gabe dinbi-danbadaka... Eleizari ere ezarri diote amabost edo ogei dunbateko, torrea zintzilik ipiñi ta barrua arri ta orma zarrez josiaz... Euskalduna'ko gudari bat, Ubidea'tik.»

Euzkadi, 1936-XII-19:

«...En la parte de Legutiano (Villarreal) efectuaron los gudarís de los batallones Itxarkundia, Loyola e Ibaizabal un ataque que podríamos llamar demostrativo, a la vez que de tanteo. Desde las siete de la mañana aproximadamente hostilizaron al enemigo, que se hace fuerte en los parapetos que circundan el pueblo y en el interior de él. El tiroteo se fue intensificando poco a poco, actuando un batallón por cada lado de Legutiano, hasta hacerse general...»

«...Topamos con un grupo de tolosarras. Les encontramos algo preocupados. Inquirimos los motivos. «Tenemos loco interés en ser los primeros en ocupar Legutiano. Queremos rescatar el cadáver de José de Ugarte, nuestro «Urdiña», y la sagrada bandera euzkadiana que arrebataron de sus manos. Ibaiertz.»

Loiola batallioiaren Frantzisko Lete (Patxi Estra) azkoitiar gudariaren kuadernoan:

«Ill onen amabian, Bermeo'tik Itxarkundia etorri zitzaigun, txanda edo relebatzera, eta Legutiano lenengo egunien bezela gelditu zan. Etzan ori orla geldituguk ezin gendualako... Baliteke egunen batian garbi azaltzie...»

* * *

Alkain'ek diona, nazionalak Billarreal uts-utsik utzi eta atzeratu egin zirala alegia, ez degu idatziz iñun ere arkitu. Auxe bakarrik:

Euzkadi, 1936-XII-8: *Declaraciones de un pasado*:

«En Legutiano no quedan más que dos familias. Una en una vivienda de cerca de la fuente y otra donde el buzón de Correos. Estas y la casa de la Guardia Civil, son las únicas que quedan sin huellas de la artillería o aviación en todo el pueblo, ya que ha habido que batir los innumerables focos enemigos. La torre tiene cinco cañonazos.»

Bañan león-castillo egin eta dalako batalloi ori abiatu gabe gelditu zanekoa bai; ori baietzatu digunik bada.

BITORIA

Andik egun batzuetara, Etxeberria eta biok Gernika'n geunden, *Hotel Julián* deritzaionean. Ostatu au gaur nola dagoan ez dakit. Orduan estazio ondoan zegoan eta oso jende atsegiña zan.

Enlaze batzuek bere kotxearekin artu eta Ubidea'ra eraman ginduzten. Enlaze oiek sobre bat zeukaten guretzako; bañan berak etzekiten barrenean zer zegoan.

Sobre ori Etxeberria'k artu zuan. Eta, enlazeai gero arte esanik, taberna batera joan giñan. Eta, sobre-barren arek zer enkargu zekarren irakurririk, onela dit Etxeberria'k:

— Zatoa or al dek?

— Bai; emen diat.

— Bada, beste taberna batera joan adi eta zato ori bete zak. Eta erorrek nai dituken klasetako lau bat bokadillo artu itzik. Bañan al dan azkarren. Bitartean, nik emen itxogingo diat.

Onela, bokadilloak erosi eta zato ardoa beteta, ostera nere lagunarengana biurtu naiz. Eta onela dit:

— Gaur lantegi aundi xamarra diagu, Iñaki. Eta ez diagu makillik ekarri.

— Motell, makilla bearrean baldin bagera, emen inguruko basoetan egingo dizkiagu makillak. Eta goazen, joan bear degun lekura, azkar.

Illunbistan, or irten gera biok Elosu eta Nafarrate aldera. Noraño joan bear genduan nik artean ezertxo ere galdetu ez bainion, Nafarrate ingurura iritxi eta gero, onela dit berak:

— Lengoan bagenekian zer konsijna zuten etsaiak. Gaur, berriz, emendik barrena Bitori'ko kaletaraño joan bearra zeukagu eta konsijnik etzekiagu oraindik. Nola edo ala jakin bearra zegok.

Ordurako nik banekian, berak bezin ondo, Nafarrate'ko gañetan frentea nundik nora zegoan, eta onela esan nion:

— Ik emen itxogin, eta zer kosijna duten, nik andik edo emendik ikasiko diat gaur gaue-rako.

— Nola, ordea? Nola?

— I egon adi emen, idea bat, egiteko oso samurra, burura etorri zaidak eta.

— Bueno, itxogingo diat emen. Bañan azkar ibilli.

Mendigain baten atzeko aldera allegatu naiz. Eta, andik etsaiaren soldaduren bat edo beste

igoko zala pentsaturik, bidearen ertzean jarri naiz, ote-tarte batean etzanda.

Jarri eta berealaxe, or datoz bi edo iru. Alderatu ziranean, nik nere gordelekitik:

— *¡Alto!*

Eta aiek:

— *¡Flandes!*

Nik orduan:

— *¡Adelante!*

Eta aiek aurrera mendigañera, eta ni nere lagunarengana. Zer esanik ez dago, ura ere bere gordelekuan erbia baño argiago egongo zala, zer gerta ere. Dan-dana entzuna zegoan, eta, ni allegatu nintzanean, aren poza! Onela dit:

— Motell, inpernura joan bear badiat ere, irekin pozik joango nauk. Andik libratzeko modua ere egingo uke.

— Bai ote?

— Bai, motell. Oraindik ez dek sortu, ik bezelako salero eta arpegi duan gizonik.

Konsijna ikasi genduanean, artean erropa aldatu gabe geunden. Tabardo ederrak geneuzkan sorbalda-bizkarretan jantzita. Eta, Bilbao'tik guretzako enlazearekin bialdurik, pakete bana genduan espionajea egiteko.

Idiki genituan eta egun artan bi klase gertatu ziran: bata, soldaduen; bestea, falanjistena. Nik Etxeberria'ri onela esan nion:

— Flandes, nere ustez, zerbait militar edo ejerzitokoa dek. Jantzi zagun, bada, gaur ejerzitokoa.

Eta onelaxe jantzi genduan. Gure tabardoak eta falanjisten jantziak zulo edo sasi-tarte batean gorde genituan; leku jakin batean alegia.

Andik zuzen-zuzen, zelai-zelai, iñungo erritan sartu gabetan, Bitori'ko ateetan zegoan kontroleraño allegatu giñan.

Ni nijoan aurretik, lasai-lasai, soldadu-gorria txulo-antzera erdi trabeskatuta jarririk, zato ardoa bizkarrean detala eta pixka bat edana nengoan itxura egiñez. Eta, orduan euskeraz eta erderaz poliki kantatzen bainuan, kantari inguratu nintzan kontrolera. Onela galdetu zidaten:

— *¡Alto! ¿De dónde sois?*

Eta erantzuna:

— *¡Vaya pregunta! ¿De dónde vamos a ser? ¡De Flandes!*

— *¿Y a qué habéis bajado del monte?*

— *Porque tenemos un permiso especial de nuestro comandante, y hemos venido a pasar la noche a Vitoria. Pero si esto no está animado, nos volveremos. Para aburrirnos, ya tenemos el monte.*

— *Tienes razón.*

Orrela izan zan gure Bitori'ko sarrera. Bereala asi giñan gure ikusmenak egiten.

Taberna batean sartu eta nere laguna, ain zan xuxena, ixil-ixilik zegoan. Ni, berriz, alai-alai kantari asi nintzan.

Taberna ortan bazegoan falanjista bat, gerreran bi izar zituana. Berak ere kantatu zuan,

eta ongi gañera. Aragonesa zan, eta nik, ori ja-
kiñik, au kantatu nion:

*La Virgen del Pilar dice
que no quiere ser francesa,
que quiere ser capitana
de la tropa aragonesa.*

Eta ni ere aragonesa nintzala iduritu zi-
tzaion, eta galdezka asi zitzaidan. Nik, argi eta
garbi, euskalduna nintzala esan nion, eta orduan
erantzuna berak:

— *Entonces eres navarro.*

Eta nik:

— *¿A ti qué te importa que yo sea arago-
nés, navarro, catalán o lo que sea? Por lo me-
nos, no soy falangista.*

Naiko gizatxartuta, eta nik ura nai, onela
erantzun zidan:

— *¿Es que los falangistas somos malos?*

— *Los peores del mundo.*

— *¿Por qué?*

— *Porque la falange viene del fascismo, y
el fascismo es malo.*

— *Jolín, tú parece que sabes mucho.*

Izketaldi bero xamarra egin genduan, bañan
azkenerako oso lagun egin giñan. Eta irurok,
tabernatik irtenda, kalez-kale ibilli giñan.

Munizio-parkeak nun zeuden, kañoiak kon-
pontzeko lekuak, kuartelak, kuartel bakoitzean
zer tropa zegoan eta abar, falanjista arek era-

kutsi zigun: berak, falanjistak, bandera bat; re-
keteak, konpañi bat; soldaduak, bi batalloi; ar-
tilleria, sei bateria amar t'erdikoak; eta zazpi
t'erdikoak, frentean zeudela.

Falanjista ari eskerrak, bapo ibilli giñan, es-
pionaje egiten eta baxo erdiak edaten.

Azkenean, berak kuartelera joan bear zuala
esanik, Etxeberria eta biok bakarrik gelditu gi-
ñan.

Kalez kale genbiltzala, rekete, falanjista eta
soldadu ugari ikusten genduan. Nik, bata eta
besteari toriaketan arita, iñori ere ez nion ge-
rrarako gogorik arkitzen. Bearbada, batzuek ge-
zurra esango zidaten; bañan geienak egia nos-
ki, oraindik gazterik iltzeko gogorik iñork ez du
izan eta.

Etxeberria'k, ango egitekoak egiñak zeudela-
-ta, lenbailen ostera Ubidea'ra biurtu nai zuan.
Bañan nik onela diot:

— Aizak, Joxe: gure baserriko nagusia
emengo *Calle Dato* ortan bizi dala bazekiat, ne-
re aitak esanda; eta, ontara ezkerro, poz-pozik
bixitatuko nitek.

Onela dit nere lagunak:

— Bai, motell, bai. Gaur gauean erorrenak
egin dituk, eta onekin bat geiago. Goazemak
billa.

Calle Dato ortara iritxi gera, kale-ertzetan
izaten diran letrai begiratuaz. Puska batean
etzan iñor kale artan azaldu. Bañan alako batez
or dator, bere makillarekin eta bi soldadurekin,

serenoa. Bi soldadu aiek etxeratu eta atzera atez zanean, neroni berarengana:

— *Muy buenas noches, señor sereno. He venido a esta calle Dato, desde el frente próximo, para saber dónde viven mis patronos, los señores de X.*

Eta bereala erantzun zidan:

— *En esa casa de enfrente.*

Nere poza, baserriko nagusiarekin egotea izango zan. Bañan berandu zan eta Etxeberria'ri onela esan nion:

— Ik nai bezela, emendikan alde egin bear-ko diagu, bada. Bañan zatoa ustutu dek eta tabernaren batera joan bearko diagu aurrena.

Onela, beintzat, taberna txiki batean zatoa bete eta baxo erdi bana arturik, ostera lasai-lasai len sartutako kontrolera. Onela esan nien:

— *Señores, a la entrada he dado un aviso: que si Vitoria no está airoso, para mí será peligroso. Y otra vez por su control me paso.*

Nolabait ere, ondo ala gaizki, erderaz bertsoa esan nuan. Eta erantzuna:

— *Adiós, muchachos. Buenas noches y que tengáis suerte en el frente.*

Onela, batere korrika egin gabe eta lengo bidetik joanik, goizeko iruretan an giñan ostera Ubidea'n.

Nik uste nuan Ubidea'ko etxeren batean edo inguruetakoko bordaren batean lo egingo genduala; bañan Etxeberria'k onela dit:

— Atera geran lekura goazemak. Eta gero ikusiko diagu.

Eta an zeuden, Ubidea'n, len Gernika'tik ekarri ginduzten enlazeak, beren kotxearekin.

Zeanuri'ra eramán ginduzten. Emengo etxe batean, enkargatuak zeuden oiak guretzako.

Bañan, lotara baño len, zer ikusi eta zer entzun genduan, dan-danak al zan garbien eskribitu genituan. Gero, sobre batean sartu, enlazeari eman, eta ura Bilbao'ra eta gu oiera.

Len esan bezela, illunbista zan Ubidea'tik atera giñanean; bederatzietarako-edo allegatu giñan Bitori'ra; eta irurak izango ziran, ostera Ubidea'ra sartu giñaneko (1).

(1) Billarreal'ko borroka bukatu ondoren, pakean gelditu zan frente guzia. Frentea geldirik; bañan atzean, bai alde batekoak eta bai bestekoak, prestaketak alegiñean egiten.

1937-III-31'an jarri ziran berriro bazterrak su ta gar, nazionalak erasoá jota. Bitarte ortan, *Loiola* eta *Itxarkundia* batallioiak alkarri aldaketa egiñaz ibilli omen ziran.

Aldaketa oiek zenbat aldiz eta zein egunetan egin zituzten, etzan noski Iñaki Alkain oroitzen.

JATEKOA

Guz ez genduan jatekorik geiegi izaten. Ogia, gutxi eta eskaxa, eta beltza alajaña. Ardoa txan-txillaka, aldian litro erdiaren erdia alegia; bañan ura ere borroka-egunetan.

Gero, bakoitzarentzat zorro bana, egun gu-zia arekin pasatzeko.

Zorro auetan, lata bat sardiña, txokolate eta abar izaten zan. Eta askotan, ogi beltzaren partez, pakete bat galleta.

Bestetan, lata bana potaje izaten genduan: batzutan garbantzua, bere aragi eta puskatxo goxoekin; bestetan, babarrun zuria, eraskin berdiñekin. Onek urdai giarrak ere izaten zituan. Eta, su egin eta berotuta, oso goxoa gelditzen zan. Bañan orduan ere, gaur bezelaxe, langille gutxi.

Pentsa zeñen alperrak geran: goserik egon, janaria berotu eta gozatzeko naiko baso-egur euki, eta geienetan sua egiteko alperrez. Onela, nola arraiotan guk gerra irabazi?

Gero, frente geldietan, nai aña ez; bañan sabela asetzeko ainbat janari izaten genduan: garbantzu, lenteja eta abar.

Esploradore giñanak, asko ibilli bear izaten baigenduan, guretzat ia beste ainbeste izaten zan razioa; eta janari-jartzalle, nere erritar Sebastian Garagorri genduan.

Onek bai; onek amaika mokadu goxo jartzen zigun, naiz berak aurretik goxoenak bereztzat artu.

Ardoa guretzat litro erdi bana izaten zan. Bañan nere erritar onek, zalea baitzan, askotan aurretik egiten zigun azioa, eta ondoren guk ari maldizioa...

Sebastian Garagorri orrek etzuan gauez ibiltzeko ausardirik; egunez, ordea etzuan atzera egiten, batez ere jateko eta edateko kontu ortan.

Bañan beti ere, tripa zar ori konforme uzteko, naiko lan bagenduan. Zerbait geiago nundik aterako ibiltzen giñan.

Oraindik illabete asko ez dala, adiskide batek onela galdetu zidan:

— Pagotxiki inguruetan zenbat talo, gutxi gora-bera, erre ituan guretzat?

Onela erantzun nion:

— Motell, zenbat izango ziran etzekiat; bañan erretzen askotan jarduten nintzala, ori bazekiat. Baita ere gutxienean sei bat aldiz andik Aramaio'ra arto-iriñaren billa joan nintzala batekin eta bestearekin.

Adiskide orri esan bezela, askotan joan nintzan Aramaio'ra, mutil bat edo beste artuta, oñez bederatzi kilometroan, arto-iriñaren billa.

Lenengo asiera, jakiña, Etxeberria eta biok eman genduan, Eskoriatza'ko mendi eta inguruak ikusten genbiltzala.

Aramaio ori, oso erri polita eta zabaldua da. Badu, gutxienez, dozen erdi bat ballara, bakoitza bere elizarekin.

Erri-kalea ez da aundia. Mondragoi'tik eta Santa Ageda'tik Araba aldera datorren kamioan dago.

Kaletik Bitori aldera irtenda, lau-bat kilometroko aldapa badu. Eta ezker-eskubitara, bi aldeetako mendi-egaletan, beste ballara oiek dauzka, eta inguru guzian mendigañak.

Nere begiarentzat, beñepein, oso gustagarria.

Mendi aietan, gaur ere noski egur-faltarik ez da izango.

Gure lagunai, bakar-bakarrik, ura eta egurra eskatzen genien. Batzuk bagenituan fiñ-fiñak, eskatutakoa txintxo egiten zutenak. Bañan beste batzuentatik, obe da ezer ere ez esatea.

Bestela alperra dana, gerra-denboran askozaz ere alperragoa egiten da. Bildur naiz neroni ere ori bera gertatu zitzaidan.

Gaurko egunean, makiña bat badabil, *tienda de campaña* artu eta batetik bestera. Neretzat pozgarri da jendea orrela ikustea.

Bañan orduan guk ez genduan ez toldo, ez

zaku, ez mai, ez plater, ez butanorik eta ez ezer ere.

Bakar-bakarrik, irin-zakuren tartean eta paper batez bilduta, talo erretzeko pala ibiltzen genduan. Pala eta gatza.

Askotan, ordea, gatza ere falta izaten genduan. Mundu ontan gauzarik merkeena, ederrena eta jatorrena neretzat, naiz mediku geienak ezetz esan. Bañan ura ere falta.

Taloak gatzik gabe erretzen genituanean, naiz guziak goseak amorratzen egon, talo gatzik gabea jaten asi eta onela esaten zuten:

— Gatzik gabeko taloa batere ez jatea obe dek.

Gogoan det, Arratia'n, Arantzazu'ko erri gainean, olako zerbait entzun eta, amorraririk, nola kendu nion mutil bati eskutik taloa, urdai azpiko eta guzi; eta neretzat ura oso ederki eta egoki etorri zan.

Guk, baso-tarte aietan, oso xamurki egiten genduan sukaldea.

Aldapa bat naikoa izaten zan. Atxurrarekin bi eskallera egiten genituan; lendabiziko eskalleran sua piztu eta bigarreanean talo-tapa jarri.

Sinisten ez duanak, gaur edo bigar prueba ori mendian egin dezala, eta gaurko butano eta ekonomikak baño askoz ere tiro ohea daukala ikusiko du.

Onela ibiltzen giñan, al genduana egiñaz. Eta zerbait egin bear noski, gero borrokarako indartsu egoteko.

Oriol, orduko jaun aundi bat zan. Beti diputadu ateratzen zan Bitori eta Araba'tik.

Onek, Ollerias deritzaion errian, granja bat zeukan, eta aren granjaren inguruan txabola bat aparte guretzat egiña geneukan, naiz aren zaldi-lekuetan naiko leku egon, nun gordeta egoten giñan abiazioak ez ikustearren alegia.

Gure txabolak, ormak eta paretak zanja-zulo zarretan egiñak izaten zituzten, eta gañetik zinkazko txapak.

Zanja-zulo oiek lengo gerrero zarrak egiñak zeuden. Leku eta paraje aietan olako asko zan.

Ikusten danez, an ere lenagotik borroka eta gerrak izanak ziran, eta ez gera gu bakarrik mutur-joka ibilliak.

Oriol jaun orren granjara allegatu giñanean, aurrena zaldi gazteak jan genituan, eta ondoren zarrak. Orain ez dakit zenbat; gutxienean, berrogei bat zaldi bai beintzat.

Jaun ori nik ez dakit zer politika-klasetakoa zan. Bañan gurekin aztuko zitzaizkan politikak ederki, zaldi bakar bat ere etzitzaión bizirik gelditu eta.

Dan-danak jan genituan, eta geienak borroka-egunetan.

Zaldi oiek inguru artako mendi eta larretan ibiltzen ziran; eta, jakiña, etzeuden sokarekin arrapatzeko, pistolarekin baizik, eta pistola ametralladorekin ongien.

Lendabiziko borroka-egunetan, ez genduan ez potajerik, ez sukaldetik eta ez gatzarik iza-

ten, zaldi-aragi oiei emateko, eta onela jaten genituan:

Tiroz bota ondoren, ildako leku berean larritu eta puskatu; zenbat giñan, ainbeste pusketan zatitu eta partitu, eta kaxo, motell.

Sua egitera, bakoitza geren tokira. Al bazan, ez oso urrutira, bañan beti gorde-lekura, etsaia ez akordatzearren.

Sua egingakoan, labanarekin egur-ziri aundi batzuk zorroztu, sartu ziri oiek aragi-pusketari, berotu-aldi bat eman eta ekin jaten.

Ura bai izaten zala egitazko gosea!

Gatzik ez baigenduan izaten, gatzik gabe, eta geren gibelarentzat askoz ere obe.

Nik gatzik gabe ezin aragirik jan, egiñalak eginda ere; eta Etxeberria eta nere beste lagun batzuekin truke egiten nuan.

Aiek neri poltsetako pakete galletak eta txokolateak eman, eta nik aiei tokatzen zitzaidan aragi-pusketa.

Ni goxo-zalea beti izan bainaiz, orrela konpontzen giñan alkarrekin.

Zaldiak bukatu ziran ordea, eta ondoren berriro ere aragia nai, eta ez dagoan lekutik izaten oso zalla izaki.

Bañan or sortu du Etxeberria'k beste lan-tegi berri bat.

Zer izango eta an inguruan, Barazar aldetik datorren ibaian, amorraia ugari egon, eta auek arrapatzeko modua onela erakutsi zigun Etxeberria'k:

— Motellak, ibai ontan sekulako amorrai-pillak zebiltzik, eta oiek arrapatzeko onela egin bear diagu: goizean eguzkiaren irteeran eta arratsaldean eguzkiaren sarreran, bere gogokoa dik amorraiak ur-gañetan salta-periko ibiltzea euli arrapatzen; eta, orrela dabillega, ondora tiroa tira eta tripaz gora ur-gañetara ateratzen dek, il-dako moduan zozorbatuta, eta orduan eskuarekin arrapatu.

Urrengo egunean, Sebastian Garagorri eta biok or joan gera ibai ortara amorraiak arrapatzera, pistola ametralladora bat eta zaku koxkor bat arturik; eta, denbora gutxi barru, lau bat kilo bildu genduan.

Nere lagun aiek, aragia bezela, erdi gordiñik jaten zituzten amorraiak ere; len esan degunez, askotan sua egiteko alperrez ibiltzen giñan guziok eta.

Mundu, ontan, dan-danok berdintsuak gera lan-kontu ortan: errexenera erortzen gera, nun-eta oso beartzen ez gaituzten.

Au izan da nik orain arte ikusi dedana: beartzen ez geran bitartean, danok alperrak; eta, beartzean, danok langilleak.

Amorrai oiek orrela jaten zituzten beintzat, erdi gordiñak alegia.

Bañan, egia esan, su ez egite onek beste gauza eta sustrai bat ere izaten zuan oso garrantzi aundikoa.

Guk frente-inguruetan su aundiak eta ugarriak egin ezkeru, etsaiari nun geunden eta zer ari giñan erakusten genion.

Nere lagunak amorrai oiek orrela janik, eta nik aien galletak eta txokolateak, egun batzuk ongi igaro genituan.

Bañan, amorraiak bukatu ziranean, orduan berriz ere komeriak.

Sebastian eta biok, fusillarekin ibai-ertz artara joan eta zozo eta txori arrapatzen ibiltzen giñan.

Batzuek botatzen genituan; bañan gutxi Sebastianentzat, eta gero eta pastel gutxiago nerezat.

Len esan bezela, Etxeberria eta biok askotan joaten giñan gauzez Nafarrate eta Urbina inguruetara.

Gau batez, etsaiaren inguru-ingurutik gatzela, etsaiaren azpiko soro zabal batean, bi edo iru kañonazo-zulo gañetan, or ikusten ditugu patata-aleak, zuri-zuriak illargiaren dizdizarekin.

Alkarri onela esan genion:

— Soro onetan, patata atera gabe dago oraindik, eta gerra emen inguruan dabilkelako zegok atera gabe. Guretzat orain etzetorrek ain gaizki.

Ori esanik, biok ixil-ixilik zulo oietako batean sarturik eta boltsillo guziak patatarekin beterik, geren txabolara bildu eta mutillik iñor esnatu gabe goizeko seiak inguruan etzan giñan.

Andak ordu-pare batera-edo, an sentitu nuan Sebastian, gure kozineroa, beste mutillai onela esaten:

-- Zerri auek amar bat kilo patata ekarri

dizkitek bart nunbaitetik, eta, zuek ardi zarren bat ekartzen badezute, ai zer nolako bazkari eta apari jarriko ditudan. Zerri auek billatu ditek, oraindik patata ateratzeko dagoan sororen bat. Emendik aurrera naiko patata izango diagu prejituta jateko, iñork oliorik ekartzen badu.

Kozineroak auek danak etzituan txabola barruan esan, txabola kanpotik baizik. Ustez ixilik, bañan nik danak entzun.

Ala, beintzat, beste gure lagun aiek eguerdirako nunbaitetik ekarri zuten aragia zaldia-rena.

Ubidea'n erosi zutela uste det, eta Sebastianek ordubietarako gisadu eta bazkari ederra jarri zigun.

Patata-soro ari orrela eman genion asiera. Patata zuri basto ori zan; bañan patata.

Lurpeko sagarra dauka izena euskeraz, eta ni sinistatua nago osasunerako onena lurpeko jatekoa dala.

Askotan esaten det nik bizi guzia lurpetik datorrela. Nik garbi eta argi ikusia daukat ori.

Urrengo eguna etorri da, eta patata soroan eta kozineroa patatarik gabe txabolako sukaldean.

Bezperan ixilik egon baldin balitz, naiko patata ekarriko genduan onenean. Bañan, atso-gixon izan baitzan eta guk geren ibillerak oso ixilik euki bear baigenituan, geiago soro artatik patatarik ez ekartzeko erabakia artu zuan Etxeberria'k.

Sebastian orri onela esan nion:

— Orain iregatik, atzo goizean ixilik egon ez intzalako, danok barau. Lendik ongi jakiñik intzan, gure ibilketa guziak gure arterako baka-riak bear dirala; eta guk, or gabiltzanean, bizia jokatzen degula.

— Motell, Iñaki! Nik orrelakorik ezer pentsa gabe esan nian, eta orain orrela al gera? Barka zak, motell, barka zak. Nik geiago esandako itzik ez dik iñork jakingo. Bañan patata ekar zak onera nunbaitetik.

— Nik poz-pozik ekarriko nitek naiko patata, Sebastian. Bañan goizeko bostetatik seietara inguruan bear dik izan, eta erorrek lagundu bear-ko didak ortarako. Ordu ortan ezeren arriskurik etzegok, eta ara emen ortz-bikoa, kirten motx-motxarekin antolatu eta preparatua. Gaur Otxandio'ko ferreteri batean erosi diat. Onekin nik aterako diat patata lasai asko, eta ik zakua bete zak.

Onela, goiz aldera joaten giñan, bi zaku artuta.

Etsaia nun zegoan ez nion bein ere esan, orduan geiago joango etzala banekian eta.

Orrela, beintzat, aldiko bi zaku koxkor iru egunetik iru egunera ekarriaz, oso ondo ibilli giñan biok.

Batean, ordea, etsai soldaduren batek, ez gu sumatu gindualako, gogoak ala eman ziolako baik, tira du tiroa.

Bañan Sebastian ori, oso bertatik zala ikusirik, or ziak korrika, neri itzik egin gabe eta ni bakar-bakarrik utzita, zakuak ia beterik zuedela.

Tximixta baño ere azkarrago alde egin zidan, eta ortz-bikoa eta bi zaku koxkor patatarekin bakar-bakarrik egin bear izan nuan buelta.

Andik aurrera esaten nion, bañan ez alperrik! Bereala maldezioka asten zan.

Ettxeberria'k eta biok ekarri bear izaten genduan.

Beste batez, Pagotxiki inguruko erle-leku batera joan giñan, beren txaboletako ezta ateratzera.

Sebastian Garagorri oso iaioa zan, eta erlegauza oietan asko zekiana. Eta, beste janari geienetan bezela, ontan ere zalea eta jalea benetan.

Ettxeberria, Garagorri eta irurok joan giñan.

Iru txabola ziran, eta aietan bi kilo inguru ezti bazeuden.

Bañan, nik ez dakit nola, nai ez nuala, makillarekin ikutu egin nion txabola bati. Irrixtatu eta labaindu egin nintzala uste det; eta, ez erortzearren, makillarekin jo nuala.

Sebastian, azkeneko txabolako ezta ateratzen ari zan; eta erle-semea, lotan zegoana, or dana esnatu da bere kotatik.

Esan bearrik ez dago, erle guziak aurrena Sebastianen arpegi eta belarrietara joan zirala.

Eta Etxeberria eta biok igesi korrika benetan, guri ere azkar asko kozkaka asi zitzaizkigun eta.

Sebastian gizagajoa antxe, bere txaketa eta tabardoarekin arpegia ezin tapaturik Gutxienean kilometro batean an ibilli zan borrokan, bere erle-semea bizkar gañean zuala.

Jakiña, guk, nai ez genduala ere, parre egin bear, aren pinta ikusita.

Ala, beintzat, noizbait ere alde egin diote erle oiek.

Orduan, nun gauden deitu diogu, eta or dator maldezioka, bere belarri aundi aiek danak bonbolotuta; baita bere arpegi guzia ere.

Nik, era eta modu artan ikusirik, onela diot gizagajoiari:

— Aizak, Sebastian: kulpa guziak nik dizkiat. Nik, nai ez dedala, makillarekin txabola ikutu diat, eta orduan erleak esnatu dituk. Bar-ka zak.

— Iri barkatu? Aita Santuari ere ez nian barkatuko.

Eta or asi zait jo naiean. Nik, berriz, korrika iges egin nion. Bestela benetan jotzen nau, zuan jenioarekin.

Bañan Etxeberria'k, ongi-ongi esanaz, apaldu zuan gero; eta egun ura ixil-ixilik igaro genduan, berari geiago ez amorraraztearren.

Urrengo egunean, ordea, aren belarri aiei begiratuta, etzan iñor ere parre egingo etzuanik, eta onela dit:

— Iñaki, ni ez nauk iñora joango. Sua egiteko egurrak, erorrek ekarri bearco dizkidak kastiguz. Bestela, seko akabatuko aut. Ik maleziz egin didak azio ori eta.

— Ez, Sebastian, ez. Ez dek orrela. Irrixatu egin zitzaidakan oña, ezkerrekoa; eta, ez erortzearren, uste gabeen, i ari intzan azkeneko erle-kaiola jo nian. Ik ongi badakik guri ere kozkak egin zizkigutela. Nik lendik aspaldian banekitxian erlearen kozkazoa oso mintsua dala. Eta i momentu artan ezti ateratzen bai-intzan, eta ezti-usaia eskuetan bai-eukaken, jakiña zegok, i artu bear lapurtzat, eta iri egin bear danak kozka.

— Bai, Iñaki, bai. Orrela izango dek. Bañan oraindik ez naiz irekin pio, maleziosoa aiz oso eta. Esan dekena egia izango dek; bañan nik esan diatena ere bai: nik, belarri eta arpegi auekin, txabola ontatik ateratzerik etzeukat. Ik naiko egurra onera ekar zak, su egiteko. Bitartean, nere arpegi eta belarriak sendatuko dituk, ezereen miñik etzeukat eta.

Arek esan bezela egin bear izan nion. Bañan parre eta algara ederrik egin genduan.

Gizagajoak, aiek belarriak! Gero ere, illabete pare batean, ospeletan euki zituan.

Illabete inguru onela igaro genduan bigarrenngo txandan, Pagotxiki eta Ollerias alde aietan.

Gero, irugarrenean, askoz ere obeto izan giñan jatekoarekin, andik aurrera konpañi bakoi-tzak bere kozinero eta kozina zitualako.

Bañan gu, esploradoreak, beti aparte ibiltzen
giñan; eta gure kozineroa, len bezela, Sebas-
tian Garagorri izaten zan.

GABON-GABA

Etxeberria eta biok an ibiltzen giñan, batzutan beste iru edo lau lagun artuta, egunez inguruko mendigañak ezagutzen. Eta, gauez, askotan izaten genduan alde batetik bestera igaro eta zerbaiten egin bearra. Batean errexa eta urrengoan oso zalla. Estado Mayorretik orrelako aginduak etortzen zitzaizkion Etxeberria'ri. Amaika ibillaldi txar egin genduan. Arrisku ederak ibiltzen genituan.

Egun batez, erreka-zulo batean, Urbina'ko inguruan, or uste gabe topo egin degu geren etsaiarekin. Lau edo bost rekete ziran. Eta an, pizkorrena nagusi.

Guk laister bota genituan bina esku-bonba, eta ez dakit aiek nola irten ziran. Guk ez genduan zauritutakorik izan. Aiek, ez dakit danak il baziran ere.

Egun artan iru lagun giñan: Etxeberria, ni eta oiartzuar bat, kontrabandista izandakoa. Izena aztua daukat.

Bañan, naiz egun eta gau larritsu asko igaro, geren txolarte egokiak ere izaten genituan.

Gabon-gaba iritxi zaigu eta, jakiña, gure koinero Sebastian Garagorri'k aparti ederra jarri zigun. Gure aparti ori onela izan zan:

Aurreko egunetan, ango mendi bateko egaletan gabiltzala, auntz bat or ikusten degu, arkaitzgain batetik bestera dabillela, iñork ez arrapatzearren.

Izan ere, guk orduan mendi-inguru aietan ikusitako ardi edo auntzak, zail izaten zuan guregandik alde egiten.

Bañan uso-banda batek, eiztariak tiro asko tiratzen badizkio, orduan eta altuago igesi joaten dan bezela, auntz arek ere, lendik eskarmentu asko izanik eta belarri erneak edukirik, laister alde egin zigun altuagoko arkaitzgain batera.

Nik aurrena tiroz il nai nuan; bañan Etxeberria'k onela dit:

— Lau egun falta dituk gabon-gaberako, eta, orain tiroz iltzen badek, ordurako usandu egingo dek. Auntz ori bizirik arrapatzea, guretzat askoz ohea izango likek. Auntz orrek ezagun dik lenagotik askok eta askok arrapatu nai izan dutela. Auntzak berez momentuan indar asko dik; bañan, luzatzera, olloa bezela kuxkurtuta gelditzen dek. Eta ik, Iñaki, korrika aguan te aundia baiteken, ea bizirik arrapatzen deken.

Nik ordurako, nere lagunak mendiko piz-

tiak zenbateraño ezagutzen zituan ongi ikusirik neukan.

Orregatik, berak ori esanda, tabardoa eta buzoa erantzi ditut; mendi-botak kendu eta espartañak jantzi, eta or nijo auntz orren atzetik.

Auntz ori, beti arkaitz eta sasi tartera sartzen zitzaidan; toki zikiñera, alegia. Bañan, Etxeberria'k esan bezela, ordu erdi bat barru, nekatzen asia zala igarri nion.

Nik neronek ere, lar tartean atzapar guziak arramaskaturik neuzkan. Bañan, auntza gero eta mantxoago zebillela ikusirik, gero eta poz eta indar geiagorekin segitzen nion.

Genbiltzala-genbiltzala, ordurako sasi tartean bi edo iru esku-kolpe tireak neuzkan; bañan alde egiten zidan.

Alako batez, ordea, arkaitz batetik bestera salto egiterakoan, nunbait ere indarrrik gabe zegoan eta arkaitz-zulora erori zan.

Gaxoak, erori zanean, besoa autsi zuan, eta an gelditu zan, zuloan, *meee meee* egiñik. Besoa autsi ez balu, naiz neri bereala nekatuko zala Etxeberria'k esan, oraindik ere auntz orren atzetik nenbillen.

Orduan, bizi-bizirik, bizkar gañean txandaka-txandaka arturik eta berak *meee meee* egiñez, geren txabolara ekarri genduan.

Eta Etxeberria'k, artan ere iñork baño geiago jakiñik, beso autsi ori, naiz lau egunerako izan, bi zotz egin eta lotu zion, min gutxiago izatearren.

Onela, gure Sebastian kozinero jator arek auntz ori bezperan il zuan, gu giñan amar la-gunentzat.

Eta gure gabon-aparia auntz ori izan zan: aurrena, gibel-erraiak; gero, gixadu ederra, patata eta abar; eta, azkenik, iztar eta aragi goxoena erreta.

Len esan bezela, ardorik gutxi izaten genduan; bañan apari ortarako zerbeza barrika bat bagenduan, berrogei ta amabost litrokoa.

Apari-jartzallea, Sebastian Garagorri ori, zerbeza edanzale amorratua genduan; eta, aparria jartzen ari zala, nik ez dakit zenbat, bañan apaltzen ere guk baño geiago edan zuan. Ala, guk naikoa jan eta edan arren, aren sabela bai ederki zala benetan.

Apaldu ondoren, ontziak jaso eta garbitu gabe, etzanera joan zan beintzat, eta bereala asi zan zurrungaka.

Etxeberria eta biok, berriz, konpañi guzietara aginduak geunden, joan eta txandaka-txandaka bertsotan egingo genduala.

Alaitasun ederrik jarri genduan. Gaueko amaikak inguruan asi giñan, eta goizeko laurak inguru arte ez genduan bukatu. Azkenerako, gero ere naiko txurrut edanik, geren txabolara lotara etorri giñan.

Sebastian Garagorri'k eta beste mutillak, aiek bai zeukatela zurrunga-otsa. Kañonazo batekin ere etzegoan aiek esnatzerik. Etsaiak izan bagiña, fusillak eta an zeuzkaten tresna guziak

laister asko ostuko genizkien. Aiek zeukaten, aiek, patxara!

Orain ez naiz gogoratzen, gu txabolara etortzerako, elurra asi zuan edo etzuan. Bañan urren-go goizean, meza entzuteiako, goizeko amarretan, Pagotxiki'n elurra zegoala, ori gogoan det.

Eta meza zeñek eman zuan ere bai: gure kapellau eta Loiola'koarena egiten zuana izan zan, Don Jose Antonio Loinaz Otaño, berez Andoain'go Berrospe'n jaioa eta gure bertsolari aundi Pello Maria Otaño'ren illoba.

Eguberri-eguneko meza, meza nagusia, oso ederra izan genduan. Nik nere erri Urnieta'n Abe Maria bezela ikasi nuan meza kantatu zan.

De Angelis edo olako zerbait esaten ziola, uste det, organistak, Mimendia jauna eskolako maixu zanak, neri eskubiko belarria tiraka ia-ia eten egin zidanak, berarekin musika ikasten ari nintzala.

Gure kapellau Don Jose Antonio jaun orrek alaxe nai izanda, Pagotxiki'ko mendigain artan eman zuan meza nagusi santua, naiz elur egon eta naiz etsaia inguru xamar izan. Loinaz Otaño jaunak, euskaldun kobarde bat izan balitz, etzuan arrisku-leku ura aukeratuko. Jaun artaz gogoraturik, naiago nuke gaurko apaizetan alako asko balego.

Leku ura, Nafarrate aldetik gure etsaiak ederki asko ikusten zuten; eta, nai izan balute, andikan guk korrika alde egin bearra izango genduan.

Nunbait ere, gure etsaiak Loinaz Otaño'ren meza nagusia emateko tankera ongi artu zuten; eta Eguberri-egun ori, beintzat, pakezkoa izan genduan.

Gu mezetan eta kantari ikustean, onela esango zutela pentsatzen det:

— Ara! Gorriak ere sinisten ditek Jesus Aurtxoarekin! (1).

(1) *Eguna*, 1937-I-8:

«Jakin dogu Gabon edo Ludi-Gazkatzaliaren Jaiotz-eguna Bizkai-Araba bitarteko basa-mortu otzian Itxarkundia gudari-sallak gaizki baño obetuago igaro dabela. Dantza, abesti ta eresiya izan dabe. Bexigua ere bai. Oba ez. Makala dozak orretarako itxas-bazter adiskidiak, Ederto, mutillak... Urkidi. Bermeo'ko Gudarozte'tik.»

GABONZAR

Gabon-eguna orrela igarorik, ondoren, jakina, Urtezar eguna. Sebastian Garagorri'k zer aparti jarri zigun, ez naiz gogoratzen.

Izan ere, Etxeberria eta biok egin bearra bagenduan gau artan. Olakoetan ez genduan gogorik asko izaten, ez jateko eta ez kantatzeko. Nik gutxi, eta nere lagunak gutxiago.

Alaz guztiaz ere, Gabon-gauaren antzera, konpañi guzietan bertso-saioak egin ditugu. Gau ortan, saio oiek egitera, gure kozinero Sebastian orrek lagundu zigun.

Gu beti berari toriatzen jarduten giñan. Onela esaten genion:

— Guk jatekoa ekarri naikoa eta ik jan, eta ez dek beste kolperik egiten. Badaezpada ere, ez aiz gauean gurekin etortzen.

Eta, Urtezar-egun ortan ere, Etxeberria'k onela zirikatzen zuan:

— I, Sebastian: i kobardea aiz. Gau batez, zergatik ez dek gurekin jirabira bat egin nai izaten?

Eta Sebastian ori askotan jenio txarrez eta amorrazten jartzen zuan.

Bañan Urtezar-gau ortan, konpañi guzietan bertso-saioak egitera guri lagundurik, ura ere, gure antzera, *asaltaparapetos* pattarrarekin asko xamar beroturik zegoan; eta or prestatu zai-gu, gurekin joan bear duala:

— Gaur zuekin joan bear diat, bada. Ea bein edo bein betiko ixiltzen zeraten.

Ordu ta erdiko ibilketa genduan, gu an geunden lekutik, eta Garagorri ori poz-pozik abiatu zan gurekin.

Gure etsaiak zeuden baserri-ondo batera allegatu gera. Jakiña, aiek ere beren kantuak kantatzen ari ziran. Urte zarra ospatzen, esan nai nuke.

Garagorri orrek, oso belarri ernea baitzuan, onela esaten digu:

— Oiek ez dituk guretarrak.

Onela erantzun genion:

— Nola izango dituk, bada, gure etsaiak dituk eta?

Eta, arriturik, onela dio ixil-ixilik:

— Motell, nik ez nian sinisten onela ibiltzen ziñatenik. Zuek merezi dituzute, zuek, eta ez beste oiek, lasaiak!

Gizagajoari, alkoolak alde egin ziotenean, bildur otza asi zitzaion eta onela dio:

— Eta emendik noraño joan bear diagu?

— Motell, gaur emendik beste ordu erdi bateko bidea zeukagu.

Berak onela dio orduan:

— Ni eniak geiago aurrera. Onako sasi azpi ontan gorde eta emen itxogingo dizuet.

Onela esan genion:

— Bai, motell. Lo lasai-lasai egin zak ortxe. Gu etorri eta geren txabolara alkarrekin joango gaituk.

Eta an gelditu zan. Au ere esan genion:

— Al badek, ez zigarrorik erre. Bañan egon adi lasai.

Ala, Etxeberria eta biok ibilketa ori egin degu, Garagorri utzi genduan sasi azpira etorri gera, eta an etzegoala Garagorri ori!

Ango gure estuasun eta larria! Bein ere ez baitzan leku aietan ibilli. Len esan bezela, aurreneko aldia zuan gurekin irteten zala, eta leku artatik ordu beteko bidea bazeukan txabolaraño, eta guk txarrena pentsatu bear noski.

Leku-inguru artan billaka gabiltzala, or asi zaizkigu etsaiak tiroka, eta neri bi tiro txamarrean sartu zizkidaten.

Izan ere, an nenbillen linterna piztuta, eta etzan arritzekoa. Arritzekoa izango zan, orduan ez tiratzea. Bañan txamarrean bakarrik jo ninduten.

Laister alde egin bear izan genduan andik, Garagorri galdu genduala-ta biok oso triste, onela esanaz:

— Guk dizkiagu kulpa guziak, onera ekarri degulako.

Onela, geren txabolara allegatu eta sartu gera, eta an ikusten degu Garagorri ori besteakin batera zurrungaka, alajañetan!

Orduan, nere pozarekin, jo eta esnatu nuan, esanaz:

— Bai al dakik iregatik zer trantzea igaro degun? Biok ia garbitu ginitxen.

Txamarreko bi zuloak erakutsi nizkion eta onela dit:

— Barka zak, Iñaki. Bañan ni an ezin egon ninduan; eta, ala edo ola, txabolara allegatu nauk. Barka zak.

Garagorri ura mutil ona zan. Odol otzean ausardirik etzuan. Bañan, berotzen zanean, guk baño geiago bai.

Ari eskerrak, tarteka jan-aldi goxo askoak egiten genituan, beintzat. Ontarako, doai berezia bazuan.

Bakoitzari berea ematea pozgarri det nik beti, eta oni ere berea ematen diot.

PLAZENTXIARRAK ETA MORTEROAK

Egun batez, nere lagun Etxeberria'ri, or jarrri zaio buruan, gure lagunak beren lekuak gauez nola zaintzen zituzten ikustea eta probatzea.

Jakiña, esploradoreak ez ditu etsaiarenak bakarrik ikusi bear; baita bereak ere. Nere lagun arek orrelako buruzbideak zituan. Ainbeste zituan berezkoak.

Gau bakoitzeko kontraseña zer genduan, beti jakiten genduan. Bear ere bai, ostera gureetara okerrik gabe sartuko bagiñan. Bañan geientan etsaiarena ere jakiten genduan.

Askotan bezela, gau artan ere Urbina aldera gure joan-etorria eginda, onela dit Etxeberria'k:

— Aizak, Iñaki: lendabiziko kolpea Pagotxiki ortan eman bear diagu. Ik, nik baño ere deadar aundiagoa dek, eta, Pagotxiki'tik asi eta bi frenteren tartean joanik, etsaiaren konsijna egiñez, guretarrak gauean guardia nola egiten duten jakingo diagu. Ik badakik, Ollerias gañean geienak plazentxiarrak daudela. Aien trin-

txeretan egiazko konsijna emango diagu. Bitartean, guretarrak erne ote dauden ikusiko diagu.

Arek agindu bezela, nere eztarriko indar guziaz, or ekiten diot etsaiaren kontraseñarekin oju eta marruka.

Berealaxe, Pagotxiki'ko trintxeretan zeuden guardi guziak, tiroka eta zalapartan asi zitzaizkigun. Eta, jakiña, gu biok lurrean arrastaka, esandakoa egitera.

Otxandio'tik Billarreal aldera datorren kamioa pasa eta plazentxiarrak zeuden lekura allegatu gera. An ere oju eta marru berdiñak egin ditut, eta ango ametralladora eta mortero-otsa! Naiz gu artistak izan, an zeuden plazentxiarrak gu baño obeak.

Nik nundik deitu nuan etziran oso urruti ibilli arraio aiek. Bi morterazo naiko inguruan genituan, alajaña!

Jakiña, ni Etxeberria'ren agindu-zai nengoan, guk genduan kontraseña plazentxiar aiei orru egiteko; eta nere lagunak alako batez onela dit, letxua baño preskoago:

— Aizak, Iñaki: oju egiek, gure kontraseña esanaz. Orain, egiazko lagunak nun dauzkagun bazekiat.

Gau artako kontraseña eman diet, eta, aien-gana agertu giñanean, ango zarata eta iskanbilla! Entzun bear ez genituanak ere entzun genituan. Bañan, egiteko ori zergatik egin genduan jakin zutenean, andik aurrera ez genduan gure batalloi *Itxarkundia*'n plazentxiarrak baño lagun oberik izan.

Nere lagun jator arek, onelako probaketak asmatzen zituan, xomorro-xomorro. Ura etzan, ni bezela, berriketan jardungo. Arek, bere doai berezia oarle izatea zuan. Erderaz, *observador* esango nuke. Arek esaten zuanak, ondoren beti argibidea ekarriko zuan. Amarretatik zortzi se-guru izaten zituan bere berezko jatortasunean.

Arek zenbat espiritu santu zuan, gure Jainkoak bakarrik jakingo du bere zeru barrenean.

Gure batalloian ziran plazentxiarrak, geienak edo asko beintzat, armeroak ziran. Eta erri ontan egiten ziran morteroak, guk ibiltzen gemituan.

Etxeberria, Garagorri eta nik, mortero oiekin nola tiratzen zan ikasi egin nai, eta bai azkenerako ikasi ere.

Mortero txikiena aukeratu genduan ikasteko, ez dakianak txikitik astea obe izaten baitu, gero aundira allegatzeko. Aundienarekin asi ba-giña, berealaxe illak giñan irurok. Ara zergatik:

Plazentxi'ko armero tekniko oietako bat, nola tiratzen zan erakusten jardun zitzaigun; zer neurri eta zer erraztun jarri bear zitzaion eta abar.

Gizagajoa gogotik alegindu zan. Bañan, gero ikusi genduan, irurok guzia aldrebes ikasi genduan. Apurtxoka-apurtxoka ikasten da oñez, eta guk bereala eta kolpean ikasi nai izan genduan; bañan ezin litekena izaki.

Tekniko orrek utzi eta mortero ori artuta, Billarreal'ko zabal-leku batera joan gera. Zabal-

-leku ori bi frenteren erdian zegoan, eta Billa-rreal'ko aurreko alde aiaietsetik artzen genduan.

Etsaiaren bildurrik ez genduan, morteroarena baizik. Ustez iru tekniko giñan, eta gero or agertu giñan neofitoak mortero orrekin.

Zanja-zulo batean jarri degu, eta ni disparador eta tekniko aundiena. Ustez ongi kargatu det, Plazentxi'ko maixu orrek erakutsi zigun bezela alegia, obusak isatsean sartu eta bi erraztun jarrita, berreun metrora irixteko moduan. Bañan nere lagunai onela esaten diet:

— Badaezpada ere, lurrean ongi etzanda jarri, katxarro auekin ez nauk batere piatzen eta.

Ala, aiek etzanik, or disparatu det. Bañan, etsaiarengana joan bearrez, berriz ere goitik bera guregana, eta Sebastian Garagorri'ren ondoondoan lertu. Ez bagiña etzanda egon, gutxienez irurok oso zaurituak izango giñan.

Sebastian orrek, ori ikusirik, onela digu:

— Mekauen, mekauen!!

Aurrena, bere maldizio-aldia oso luzea, eta gero itz auek:

— Aizak, Iñaki: ik, gu denbora baño len akabatzea nai dek. Bañan ni ez nauk oraindik ilko katxarro orrekin. Nai badek, Etxeberria ire lagun ori il zak; bañan ez ni.

Andik aurrera, gure lagun Sebastian ori etzan mortero arengana arrimatu ere egiten. Zanja-zulo artatik laister alde egin zigun txabolara, aitzaki-maitzaki, amaiketakoa egitera.

Gu, mortero arekin sekulako saioa egin eta txabolara biurtu giñanean, gosaltzen sobratu zitzaigun gazta-puska batere ogirik gabe janda zeukan. Baita zatoko ardoa edanda ere.

Bañan gizagajoari, eraman zuan sustoarekin, ezer erritarik ematerik etzegoan. Nik onela esan nion poliki-poliki:

— Aizak, Sebastian: gazta eta ardoa jan dituk; bañan ongi egin dek, dagoan artean jatea.

Eta berak onela dit:

— Ez, egon egingo ninduan. Ia iltzeko zorrian allegatu nauk, eta nik naiago diat, badaezpada ere, sabela ondo beteta iltzea, zuek biok ni iltzearren zabiltzate eta.

Onelako tripezai jatorra genduan gure Sebastian laguna.

Gero, bigarren tiroa etsaiari txabola batean sartu geniola kontatu eta bai zera! Etzuan sinisten. Eta ostera onela digu:

— Katxarro ori, zuek uste gabean, esku-bonba bat tira eta neronek txiki-txiki egingo diat.

Bañan etzan orren biotz txarrekoa. Esan bai eta egin ez. Erderaz esaten dan bezela, *perro ladrador, poco mordedor*. Oietakoa zan.

Gure bigarrenko mortero-tira-aldia ongi egin genduan. Lenengo tiroan oker guzia auxe izan zan: erraztunak bi klasetakoak ziran, eta, bi aldeetakoak jarri bearrez, nik batekoak jarri, nerbioso xamar nengoalako. Etzan besterik izan; nere okerra bakarrik.

Bañan, bigarrena tiratzerakoan, buru aundi au pentsatzen nekaturik tira nuan, eta etsaiaren txabola baten erdi-erdian sartu obus ura. Gu bion poza orduan!

Laister atera ziran andikan an zeuden arratoiak, aballa ederrean gañera, beste izkutuko egalera. Berriro ere beste txabolaren batera sartuko ziran. Bañan geunden lekutik, guk ez genduan beste egal-aldea ikusten.

Gure mortero katxarroaren berri ederki ikasi genduan alajañetan. Amar obus eraman genituan, eta, danak tira arte, ez giñan geren txabolara biurtu. Beste zortziak ere an sartu genituan txabola-inguru aietan.

Mortero ori txabolan egoten zan. Bañan andik aurrera ez genduan Etxeberria eta biok askotan erabilli. Eta, jakiña: guk ibiltzen ez bagenduan, Sebastian Garagorri'k gutxiago.

SABIN-ETXEA

Andik laister, Bermeo'ra bakaziorekin jetxi giñan. Bañan Etxeberria eta biok ez genduan bakazio askorik izaten. Geienetan bagenduan zerbaiten agintza edo egin bearren bat.

Atzeko aldeko mendiak ikusten ere ibiltzen giñan. Abiaziorik gabe, araño ere atzeratuko giñala ikusten baigenduan. Abiazioa bai beti agindu; bañan bein ere etorri ez. Eta, badaezpada ere, gu beti mendietako bideak eta lekuak ikusten.

Ibillaldi auek iñoren ordenik gabe, geren buruz alegia, egiten genituan. Gu biok ez genduan Artxanda'ra arte etsi. Bitartean, alegiñak egiten an ibilli giñan.

Naiz atzeko aldeko mendietan, naiz frentean eta naiz etsaiaren alderdian ibilli, Etxeberria'k, abitu baño len, gure enlazeari beti berri ematen zion, nora ginjoazen eta nun izango giñan. Ori egunero egiten zuan, geienetan telefonoz, or gaueko amarretarako. Beste batzutan, enlazea

bera jakiñaren gañean gelditzen zan, olako ordutarako olako lekutara gu eramateko edo andik ekartzeko. Alkarren berri jakiñik ibiltzen giñan beti.

Agirre jaunak, tarteka-tarteka eta iñork ezer jakin gabe, bioi deitzen zigun, frenteko goraberen berri jakitearren. Bañan orain ez nuke esango zenbat aldiz izan giñan Hotel Carlton'en, Agirre jaun orrekin.

Oietako egun batez, jende askorekin nazkanazka egiten ari zala esan zigun. Arek pin esaten zituan gauzak; ori bai. Arek inbusterririk etzuan. Ori entzunik, Sabin-etxeko alper jendea ikustera joatea pentsatu genduan.

Etxe ontan ordurako bi aldiz allegatuak giñan lenago ere. Irugarren txanda ontan joan giñanean, bazkalondo bat zan.

Barrena sartu gera eta an arrapatzen ditugueren usteko lagun batzuk, abertzaleetan goibururu egiten zutenak, lasai-lasai silloi apañetan exerita, beren traje eder, korbata eta zapata dizdiz egiten zutenakin, beren eskuetan puroa, kafea eta kopa pattarra zituztela.

Gu, berriz, al genduan bezela, geren tabardo eta mendi-botakin jantzita geunden noski, eta naiko zikin gañera, naiz-eta egun artan Agirre jaunaren aurrera joateko zerbait apaindu.

Ni, lenagotik jakiñaren gañean egon arren, ori ikusirik, sutan jarri nintzan, eta Etxeberria'k onela esan zidan:

— Egon adi lasai, Iñaki, amorruan jarri aizela ikusten negok eta.

Onela erantzun nion:

— Bañan, Joxe! Ik badakik gu nola gabiltzan, eta, auek onela ikusita, ez nauk bada amorruan jarriko? Gaur etzioatet ixilik utziko.

Gipuzkoa'ko gure lagun bat ere an zan. Ez det izenik esango. Eta arekin batera, len esan bezela, lujoan eta alperkerian, beste bost edo sei lagun, beren ustez euskaldunik piñenak. Etxeberria'ri esan nion:

— Motell, motell, gaur ez gatxiok mendi-gañetan, eta an baño bildur gutxiago bear genikek emen zerbait esateko, eta gure lagun orri bertso bat kantatu bear zioat.

Etxeberria'k, ain zan apala eta xantua, onela esan zidan:

— Nai dekena egin zak, bañan pakea izan dedilla.

Orduan esan nion:

—I, Joxe: pakerik onena, nere iritziz, egia esatea dek, eta, emen ikusten deguna esaten ez badegu, gu ere oien berdiñak edo okerragoak gaituk.

Eta onela kantatu nion:

Aizu, laguna, arratsalde on,
poz artzen det ikustea;
Etxeberria ta biok gabiltz
gudan batetik bestea,
bizirik dana agertutzen da
nunbaitetikan ostea;
silloi ortatik nai al zenduke
guk guda irabaztea?

Bertso geiago ere kantatu nuan. Bañan nere lagunak ori bakarrik artu zuan gogoan. Gero amaika aldiz kantatzen zuan.

Beste jaun bat ere, oso goi-buru egiten zuana, an zan; eta, ori entzunik, altxa eta komunera edo ez dakit nora alde egin zuan. Lenago ustez lagunak izanik ere, etzigun agurtzarik ere egin.

Irakurle, zer egin bear dezu orrelako buru-agintariekin? Zerorrek, nai dezunean, orren erantzuna eman.

Orrela genbiltzan gerra zikin artan: batzuek bizia arriskatuaz eta beste batzuek lasai-lasai gerrari urrutitik usai. Gaur ere, ostera gertatuko balitz, berdin-berdin izango litzake. Ainbesteraño ez bearbada, gaurko tiroak eta bonbak oso urrutira allegatzen diralako.

Bañan, ala ere, batzuen batzuek izango lirake gordeko lirakenak. Oietako bat, al dala beintzat, ni neroni izango nintzake. Motellak, gerra negargarria dek ikusi duanarentzat. Eta ikusi ez duana, oraindik umetxo bizi dala esan ditekete. Bañan ikusi duanak ez du aitatzetik ere nai izaten. Neri, beintzat, gerra aitatzetik ozkia ematen dit.

KALAMUA-INGURUAN

Gau artan, Ermua'ko erri-ingurutik irtenda, Kalamua eta Arrate bitarteko gain batera joan bear genduan.

Mendigain artan etsaiak zeuden; bañan Kalamua mendian gureak, artean beintzat.

Oso gau izartsua zan, eta illargitsua benetan. Eta guk, linternarik piztu gabe ibiltzeko, uraxe bear.

Izan ere, gau argiarekin askoz ere obeto egiten genituan geren egitekoak.

Andik edo emendik, alako batez allegatu gera, esan bezela, Kalamua mendiaren inguruetara eta etsaiaren trintxera-ixkin batera.

Eta, beraren beko aldetik begira gaudela, or ikusten degu rekete bat, bere txapel gorri aundia buruan jantzirik duala eta zentinelamedo dagoala.

Etxeberria eta biok errañuan ezagutzen genduan zein zer zan.

Ara nola: reketeak gure euskaldun txapela ibiltzen zuten, naiz kolorez gorria izan. Falanjistak, berriz, gorroa ibiltzen zuten, alako zintzilikario edo txintzarri txiki batekin. Eta militarrek ere gorroa, bañan txintzarri gabekoa.

Onela nabarmentzen ziran zein zeñetakoak ziran, naiz gaua izaki. Gau ortan, beintzat, reketea egokitu zan.

Gu jakiñaren gañean geunden, gutxi gorabera, batek logalea zer ordutan izaten zuan. Naiz militar, naiz txofer eta naiz edozein izan, gaueko iruretatik bostak inguru bitartean, geienak lo-kuluxka bat izaten dute.

Eta rekete arekin ere ori gauza bera gertatu zan.

Laurak inguruan giñan orduan, eta lo zegoala garbi ikusi eta ezagutu genduan.

Ara nola: bere ondora arri koxkor bat tiranion, eta etzuan iñungo zarata eta zalapartarik atera.

Ori ikusirik, nere lagunari onela esaten diot ixil-ixilik:

— Aizak, Merdillegi: ori seko lotan zegok eta nere egiteko oietako bat egingo zioat.

— Motell, zer egin bear diok?

— Fusilla kendu. I atzeratu adi emendik beko zulo aldera. Biok iltzea baño, obe dek bat bakarrik iltzea. Bañan nik orri fusilla kendu bear zioat.

Reketearen ondora lau orñean arrastaka-arrastaka allegatu nintzan.

Ura zurrunga-otsa zeukan gizagajoak! Trinxerari sorbalda eta bizkarra emanik, seko lo zurrungan.

Fusilla eskubi-eskuarekin zeukan, makillari eltzen zaion bezela, ia goiko muturretik eta puntatik.

Eta emen zan koxka: nik pixkanaka-pixkanaka tiratzen nion ubeletik; bañan arek oso gogor eltzen zion, naiz seko lotan egon.

Nik ez dakit zenbat txandatan eta zenbat aldiz ubelari tira nion. Ori aztuta daukat. Bañan nere asmoa, ixil-ixilik kentzekoa zan; reketete ura eta aren lagunak oartu gabe alegia.

Asmo ori nuan eta ara zergatik: nik fusil ura ixil-ixilik kendu izan banio, banekian, reketete ura esnatzen zanean eta fusilla ostu ziotela ikusten zuanean, gure alderako lagun bat geiago izango genduala. Kodigo militarrak, gerra-denboran soldaduari fusilla ostu eta kentzen badiote, bera afusillatzea agintzen baitu.

Nik ez nuan reketete ura neregatik iltzerik nai. Bakar-bakarrik, lotatik esnatzen zanean gure aldera etortzea nai nuan, bere burua galdurik zeukala ikusita.

Bañan, nere asmoak orrela izan arren, etziran nik nai bezela irten.

Esan bezela, ubelari ainbeste aldiz tireaz ere, etzidan fusilla uzten. Nik banekian Etxeberria erreka-inguruan gordeta zai neukala, eta oso nerbioso egongo zala ere bai.

Oiek danak ikusirik eta neroni ere naiko asperturik, erabaki auxe artu nuan: ubelari poliki tiratzeari utzi eta indarrean tiratzea. Orrela egin bear izan nuan.

Nere orduko sasoi arekin, nik banekian seguru, ari fusilla zalapartan kenduta ere, aiek tiroka asterako Etxeberria'ren ondoan nintzala laisterketa batez; eta arek lasai gordetzeko toki eta leku edukiko zuala.

Pentsatu bezela, alako batez, nere indar guziarekin ubelari tira eta or lapurtu diot fusilla. Lenago ostu egin nai nion, eta azkenerako lapurtu egin bear.

Bereala, zarataka eta bullaka asi zan rekete mutil ura.

Ni, berriz, lenago esan bezela, tiroka asterako an nintzan nere lagunaren ondoan. Kontra-seña egun artan *fi-fi-fiu* genduan, eta orrela egin zidan, neroni zaintzeko ongi gordeta zegoala adieraziaz alegia. Onela ibiltzen giñan biok.

Laisterka eta korrika nere lagun Etxeberria'rengana allegatu nintzanean, onela esan zidan berak:

— Motell, emen al aiz ere pekatua eginda?

— Bai, motell, emen nauk. Bañan orain ixildu adi. Gero itzegingo diagu.

Ala, puska batean leku artan egon giñan, etsaiak tiroka aspertu arte alegia.

Ondoren, lasai-lasai erreka-zulo artatik geren bidera atera giñan.

Eta orduan Etxeberria'k erritaldi gogorra eman zidan:

Nik banekiala gure eginkizuna ez nuala bear bezela bete; esploradoreak ez duala iñungo zalapartarik jarri bear, eta abar eta abar.

Gero, aren erritaldia reketeari egin nion txar-kerira erori zan:

— Kodigo militarrean orrek salbatzerik e-tzeukak. I aizelako, Iñaki, bigar afusillatua zegok ori.

Nik, nere burua umildurik, onela erantzun nion:

— I, Joxe: dan-danak arrazoi ematen dizkiat. Nik bazekiat rekete ori bigar eguerdirako, kodigo militarrek agintzen duana egiten badute, afusillatuko dutela. Ortan irekin negok. Bañan entzun zak orain nerea: bigar gauean, gaur bezela, eginkizun berdiña bagendu eta ori esnai egon, biok illak ginduken. Orain orrek ez dik fusil onekin iñor ilko, ez gu eta ez gure lagun-rik. Eta gerra gerra dek. Nik ez detala ongi egin, ori bazekiat. Bañan ez diat uste rekete ori afusillatuko dutenik.

— Zergatik ez bada?

— Bejondaikala, motell! Mundu ontan lege guziak ongi jarriak zeudek; bañan alakoxe irrix-tara bat beti izaten ditek. Nik liburu batean irakurria gogoan zeukat: *Toda ley tiene su trampa*. Eta rekete ori, *voluntario de guerra* izango baita, ez ditek ilko.

Geroztik, mutil ari ori egiña beti damuturik nago.

Bañan nere emeretzi urteko sasoiarekin eta buru ariñarekin, ori egitea bururatu zitzaidan eta egin.

Eta orra nik orain emen nere aitorketa daren aurrean egin...

LARRAURI

Sollube mendia esploratu bear genduan egun artan.

Bermeo'tik goizeko zazpiak inguruan atera giñan, egunerako janari-poltsak artuta; geren razioak alegia.

Eguna, ostiral bat zan; Bizkaia'n barikua esaten dutena.

Oso eguraldi bikaña genduan; ego-aize oietakoa alegia. Otzik gabe lasai egotekoa esan nai nuke.

Sollube mendi aundi ortara Matxikako'tik barrena igo giñan.

Emen, leku alaia izanik, egonaldi bat egin genduan, itxasoari eta itxasoan zebiltzan itxasontzi eta baporeai begira.

Itxas-ertzeko ontzi txikiak ikusten genituan, eta urrutira gerrako ontzi aundi bat ere bai, batera eta bestera joan-etorrian itxasoa bijilatzen zebillena.

Crucero Cervera zala uste det, etsaiaren aldekoa. Gure aldekoak ere baziran, txikiak, *bou* esaten ziotenak, naiz-eta egun artan nunbait ere gordeta egon.

Bañan geiegiak ere ez du berekin askotan gauza onik, eta ara zer gertatu zitzaigun: geren katalejo eta guzi itxasoari begira geundela, or etorri zaigu jateko gogoia; eta, jakiña, naiz razio ona izaki, uste gabeen eramandako guziak jan ditugu.

Ardoa bai, gelditu zitzaigun; bañan jatekoa bukatu zalako. Bestela ura ere bukatuko genduan, naiz-eta litro ta erdiko zatoa izan, janariarekin edariak bein ere kalterik ez du eta.

Matxikako itxas-ertz ortatik altxa gera, eta, zear-zear eta eiraka-eiraka, Sollube mendi orren gañera igo, piñudi eder askoren tartetik barrena.

Sail ederrik bazegoan mendi ontan, Bizkai'-ko mendi geienetan bezela.

Gero, etsaiaren abiazioak amaika kixkali zuan, erderaz *bombas incendiarias* esaten zaien oiekin. Makiña bat millaka metro kubiko bai, alajañetan.

Aiek suak eta garrak, dan-danak alperrik galtzeko! Eta alperrik galtzen dana, iñorentzako ez da. Bañan gerrak onelakoxe gauzak ditu, eta ez batere arritu.

Esan bezela, gain-gaiñeraño eta erpiñeraño igo gera, eta an ibilli giñan batera eta bestera, bere gallur eder zabalean.

Aspertu giñanean, Bakio aldetik barrena je-

txi giñan, biok ere ederki gosetuak eta zatoko ardoa ere dana edana.

Ala, Larrauri erri politera goserik allegatu gerade.

Erri ori, Sollube'tik Mungia eta Bilbao aldera egiten da. Eliza, Sollube'tik jetxi eta eskubira dauka, irureun bat metro ingurura kamiotik. Eta kamio-gurutzeko ertzean, ezkerretik, taberna bat eta pelota-lekua zeuzkan. Lenago beintzat bai; geroztik ez dakit, ez naiz izan eta.

Sarreran, zabal batean, baserri aundi baten inguruan, ardi-sail aundi bat ikusi genduan, eta nik bereala onela esan nion Etxeberria'ri:

— Biok oso goserik gatoz; bañan artalde orren artzai nagusiak edukiko dik gazta, mami eta abar, eta ondoko baserri ortan sartuko dizkik gauean ardiak. Goxo-goxo itzegiñaz eta bertso bat edo beste kantatuaz, ikusiko dek zeñen merienda ederra egingo degun.

Eta lagunak onela dit:

— Ez adilla erotu, Iñaki. Bermeo'ra joateko autobusa laister dek, eta an naikoa jango diagu.

— Aizak, Joxe: nik bazekiat nola edo ala jango degula; bañan Bermeo'n jende asko zegok eta jateko gutxi. Eta, emen janda joaten bagera, an daudenak ere laister jango dizkiat gero gauean nere emeretzi urterekin, eta ik ere bai ere ogei ta seirekin.

Onela, beintzat, artalde orren ondora allegatu gera, eta ardi zai zegoana morroia izatea egokitu.

Arratsaldeon esanaz, poliki-poliki artu det. Berak, zer genbiltzan eta nungoak giñan galde-tu zigun eta guk esan.

Berak orduan, Amurrio'tik ondoko baserri aundi artara etorriak zirala esan zigun; baita ere ardi batek bi arkume izan zituala eta nagusia baserri artako estalpera joana zala, bere ardi eta arkumeakin, auei esnea edan araztera.

Guk aitzeki ori naikoa izan genduan, artzai ari zorionak ematera joateko.

Morroiak esan bezela, artzai nagusi ori an ari zan, pozez beterik, bere artaldean jaiotako bi arkumeai amaren esnea edan arazten. Eta nik txabola kanpotik onela diot, alai-alai arratsaldeon eman ondoren:

— Artzai guziak, orain artekoak, ardi batek bi ume izaten dituanean, pozturik, bereala asten dira bi arkumetxoai esnea edan arazten; eta zu ere, adiskide, pozik ari zerala ikusten zaitut, emen nagoan lekutik.

Eta berak onela dit bereala:

— Orduan, txo, badakizu pastorien barri?

— Bai, jauna; zerbait badakit, pastoriak asko ezagutzen ditut eta.

— Eta, txo, nungoak zarie, ba?

— Ni Urnieta'koa; eta nere lagun au erri auzoko Andoain'goa.

— Nun dire orreek?

— Donosti inguruan.

— Orduan giputxek zarie?

— Bai, jauna; alaxe garie.

— Eta zelan zagoze amen?

— Bermeo'tik Sollube mendigañak ikustera igo gera, eta onera jetxi. Eta, ardiak emen ikusirik, eta ardiak gogoko izanik, emen gaude pozik begira, naiz nekaturik eta goserik egon.

Eta berak onela dio:

— Txo, gose-antzean zarie? Itxogin apur bat.

Ori esan eta barrena joan zan. Nik aren izkerari segitzen nion, Bermeo'n zerbait ikasia neukan eta.

Ura joandakoan, lagunak onela esan zidan:

— Motellak, Iñaki, lotsagabea aiz benetan.

— Motell, Joxe, nik etzioat ezer gezurrik esan. Bakarrik, bere galderai erantzun. Eta goseak gaudela esatea ez dek lotsagabe izatea, egia esatea baizik. Nik orrekin etzioat jatekoa eskatzen. Sollube menditik goserik jetxi gerala esaten zioat; besterik ez. Berak, apur batean itxogiteko esan dik; eta orain naiago nikek, ire kontu oiek baño, gazta-puska aundi bat ekarriko baligu.

Ni gazta-jale ikaragarria bainaiz, neretzat etzan une artan ez dirurik eta ez besterik, gazta-puska bat bezelakorik. Bañan geroago danak izan genituan: gazta, talo, urdai-azpiko, mami, gazura eta abar.

Bost bat minutu eta bearbada geiago pasako ziran; bañan inguru ori beintzat.

Alako batez, baserri-sarrerako atetik irtenda, or dator artzai ori, ez nik nai nuan bezela gaz-

ta-puskarekin, baizik andereño bikain batekin alajaña, eta ondo jantzita bera gañera.

Ondoratu zaigu eta onela digu:

— *Muy buenas tardes, guipuzcoanos.*

— *Muy buenas, señorita. ¿Qué tal está Vd?*

— *Muy bien, y ¿vosotros?*

— *Un poco cansados por el exceso de recorrido; pero bien.*

Orduan berak, ango euskeraz, onela digu:

— Egijetan giputxek zarie?

— Bai, andereño; giputxak. Au Andoain'-goa, eta ni Urnieta'koa.

— Ba etxe onetara, lengo urteraño, Gipuzkoa'ko pastore bat etorten zan. Kottau a nun ete dabillen Jainkoak jakin.

Itz oiek esanik, negar-malkoa begietara irten zitzaion. Onekin, an egoten zan artzai ura benetan maite zuala esan nai zuan. Eta an zegoan Amurrio'ko artzaiak gipuzkoarrak giñala esan zionean, ederki-ederki jantzita agertu zan guregana agur egitera.

Gipuzkoar batengana maitasuna jarria zuan ezkerro, guregandik poza arkitu nai; besterik ez.

Urrena, onela esaten digu euskeraz:

— *Como no me van a entender bien el vascuence de aquí, les hablaré en castellano, si no les importa.*

Nik orduan, bere buruarekin norberak agintzen zuala erantzun nion; bañan, guri ango euskeraz mintzatuta ere, ez genduala alkar galduko.

Onela, andik aurrera bakoitzak bere euske-
ra egiñik, etzan gurekin ezeren okerrik izan,
alaitasun ederra baizik. Ala edo ola, alkarrekin
entenitzen giñan beintzat. Aiek guri obeto, guk
aiei baño.

Bereala onela digu andereño orrek:

— Pastore onek esanda, gosez zagozela ja-
kin dot. Eskaratzera etorri. Nere ama asi da
zuentzako talo erretan.

Ala, beintzat, baserri ortan sartu gera, geren
andereño jator ori aurretik degula, eta sukal-
deraño eraman gaitu.

Alabak esan bezela, an ari zan ama, amon-
dua egonik ere, lureko su-lekuan taloak erre-
tzen. Ordurako, larogei urtetik gorakoa izango
zan. Bañan, sartu bezin laister, benetan emaku-
me alaia zala igerri nion.

Bai emakume eta bai gizaseme, berez len
pizkorra eta alaia izan dana, zartuta ere pizko-
rra eta alaia izaten da. Motela, berriz, beti mo-
tela eta tristea.

Amona ari arratsaldeon esan genion, eta
onela erantzun zigun:

— Ondo etorrijek zarie, giputxok. Talo
erretan nabil, eta egon trankil, jezarrita.

Zer esan nai zuan bereala igerri genion: or-
duan, taloak erre artean, ari ez itzegiteko; au-
rrena lan bat bukatu bear dala alegia, gero bes-
te batean asteko.

Etxeberria, alabarekin mintzaketan ari zan;

ni, berriz, goseak amorratzen, amonari begira, taloa nola zabaltzen eta nola erretzen zuan.

Ordurako, atzaparrak eta esku-beatz guziak oker eta kuxkur-kuxkur egiñak zeuzkan. Etzuan taloa esku zabalarekin zabaltzen. Eskumuturrarekin egiten zuan, bañan bai azkar eta ondo. Ez talo okerra eta gutxiagorik ere, benetan biribil-biribilla baizik, erretzeko palaren neurri-neurrikoa. Talo aundia eta me-mea.

Etzan, nik nai ordurako, talo bat neregana allegatu. Ura nere zaletasun eta gosea! Bañan, bein ematen eta partitzen asi ziranean, laister nintzan asea. Bitartean, oso arrituta egon nintzan amonari begira.

Denbora gutxi barru, zortzi talo erre zituan, eta, erre alean, parrilla baten arrimoan suari begira jarri. Eta, zortziak palan erre arte, etziztaigun talorik ematen asi. Bañan gero bai leial asko.

Alabak bereala jarri zituan urdai-azpiko, gazta, mami, ardo txakoli, eta ez dakit zenbat janari geiago.

Nik, beintzat, gazta-pusketa aundi bat talo tartean jarri eta ekin nion.

Lagunak urdai-azpikoa artu zuan. Au etzan, ni bezela, gazta-jale berezkoa. Jaten zuan, bañan ez nik bezelako gogoarekin.

Nik bi talo bi gazta-pusketarekin jan nituan, ardo ederra edanaz. Gaztaren erdia jango nuan, gutxi gora-bera.

Beste bi talo nik esnearekin jan nituan, eta Etxeberria'k ez dakit zerekin, jateko kontu on-

tan aurrena norberarena egiten baita, eta nik ere orrela egin nuan orduan.

Nik naikoa janda gero, sutako parrillara begiratu nuan eta an talo bat bakarra gelditu zala badakit, eta nik lau jan nituala ere bai: bi, bi gazta-puskarekin, eta beste bi, esnearekin.

Nere lagunak iru jango zituan, amonak erre-ak zortzi ziran eta.

Etxe uts baterako alaja ederrak geunden biok ere. Eskerrak janariz betea zegoan baserrira joan giñala. Bestela, ez dakit zer gertatuko zan gurekin.

Lenago goserik banengoan, ederki ase nintzan. Eta, amona ura talo erretzen ain salada ikusi bainuan, nere artean onela esan nuan:

— Gaur a zer alaitasuna eta umorea jarri bear degun etxe ontan!

Eta bai andik pixka batera jarri ere ederra, bañan naikoa janda gero.

Etxeberria'k, Bermeo'ra autobusean jetxi eta an naikoa jango genduala esan zidan aurretik. Bañan nik uste det, Bermeo guzian, egun artan beintzat, etzala izango ainbeste jateko.

Ura asekada, ura! Baserri artan bai sartu giñala egiazko zerura. Irakurle: orrelakoetan joan zaite ardiak dabiltzan ingurura. Zerbait allegatuko da zure aora.

Oiek danak ala izanik eta naikoa janik, etorri zait alakoxe sasoi bikaña bertsoan egi-teko.

Ettxeberria'k, bertsotan egin bear genduanean, asiera neri uzten zidan, eta bat edo beste takigrafiarekin beti artu ere bai, gero gogoan izatearren. Ordurako ikasia baitzeukan takigrafia ori, eta bai aballa ederrean gañera arek. Arek tontotik etzuan illerik ere.

Eta egun ortan aurrenekoa artu zidan, eta bai amonari ere.

Guk usteko genduan, bada, amona ura bertsolaria zanikan? Ezta iñola ere. Bañan bertsolaria izaki alajañetan.

Nere lenengo bertsoa onela izan zan:

Larrauri ontan arkitu gera
gu etxe jator batean,
amona onek taloak erre
guztizko borondatean.
Goseak kendu dizkit ederki,
ez da neretzat kaltean;
alaitasun bat ederra jartzen,
Joxe, gu asi gaitean.

Eta, nik kanta orduko, amonak onela dit lenengo, pozez beterik, bere mai-burutik:

— Txo, kottau ori bertsolaria zara?

— Bai, amona; bijok ala gera.

Eta, su ondotik gazte bat balitz bezela altxata eta bere buruko pañueloa kenduta gañera, onela kantatzen dit:

Ortaz poza emoten
etorri zarie,
amuma be ni nauzu
bai bertsolarie,
aspaldi ezertxu be
kantau gabie,
gaztie nintzanean
zeu baño obie.

Oraindik ez det ura baño emakume salada-
gorik ikusi, ez amonik, ez neskatxarik eta ez
neskazarrik. Ura bai zala emakume euskaldun
benetakoa. Naiago nuke, alargun nago eta, aren
antzekoa balego. Laister egingo nuke elizara sar-
tu eta ateratzekoa.

Orduantxe ura bakarrik bear genduan gu
biok. Nik, beintzat, mai-burutik altxa eta amo-
nari sorbaldatik oso indarrez eldu eta besarka-
tuaz, iru edo lau musu eman nizkion nere
pozarekin.

Uraxe bakarrik falta nuan, nik neukan sa-
soiarekin: amona arek neri bertsoa kantatzea!
Len pozik banintzan, bertsoaren ondoren txora-
tua zearo. Eta nere laguna berdin.

Oni orduan ederki aztu zitzaizkion takigra-
fiak eta ortografiak.

Ama-alabak algaraz eta parrez lertzen. Gu,
berriz, pozez beterik, alako jatortasuna ikusita.

Nere denboran baditut egun penagarriak
igaroak; baditut ere egun alaitsuak pasatakoak.
Bañan egun ura bezelakorik neretzat ez da in-
guratu eta arrimatu.

Oraindik ere, gogoratu utsarekin poza etortzen zait.

Andik aurrera, bi lagunak bertso batzuk kantatu genituan, eta entzuten egon ziran artzai nagusia, mutilla eta beste amonaren seme bat. Orain ez naiz gogoratzen, ura ezkondua ala ezkongaiia zan.

Gero, kontua zenbat ote zan eta alperrik gure galde egitea.

Aiek, gu bertako seme eta anai bagiña bezelaxe artu ginduzten. Aiek bai zutela lagun urkoarentzat egiazko maitasuna. Ez, gu askotan gabiltzan bezela, alkarri begiak ezin atereaz.

Aien bidetik daukagu aurrerapena zeruetarako. Bestela, orain ari geran bezela, aurki ez degu balioko, ezta estuasunean taloak jateko ere.

Bederatziak inguruan geneukan azkeneko autobusa, Bermeo'ra joateko, eta etziguten iñolaz ere joaten utzi nai.

Amona, suaren ondotik berriz ere altxa, neri lepo gañetik eldu eta onela dit, benetan negar egiñaz eta musu eta musu emanaz:

— Kottauok ez zarie emetik joango. Gera-tu zaiteze amen lo egiten.

Bañan gau artan ez geneukan iñolaz ere an gelditzerik. Gure enlazearengana, amarretarako, Bermeo'ko alako tokitara joan bearra genduan.

Bakoitzak bere lanak orduan ere, gaur bezelaxe, eta gero ere izango dan bezelaxe. Nork bere eginkizunari eldu bear. Bestela ez artu iñolako lantegirik. Askoz ere obe dezu eta.

Ala beintzat, baserritik atera eta ate ondoan amonari besarkada eta musu ugari emanaz, eta alabari ere berdin, biak onela esan zигuten:

— Etorriko zarie barrero ona?

Baietz erantzun genien; al genduan azkarren joango giñala gañera, eta abar.

Biak negar-malkoa zeriotea gelditu ziran, eta guk onela esan genion alkarri:

— Jende guzia orrelakoa bageneuka, oraindik ere gerra irabaziko genikek errez asko.

Oiek danak orrela izanik eta esanik, autobus ura juxtu-juxtuan arrapatu genduan beintzat. Bi pisu zituana baitzan, biok laister gorafio giñan, eta Bermeo'ra allegatu.

Ez genduan apari bearrik izan, alajafietan. Geren enlazearekin egonda, laister asko oieratu giñan, pozik gañera.

Onela izan zan gure lenengo egoera, Larrauri'ko baserri artan.

Andik bigarren egunera, ni biurto nintzan osterata etxe artara, beste bi lagun artuta.

Etxeberria gaixotu egin zitzaigun egun artarako. Talo eta mami eta abar jate arek intoxikatuta zegoala esan zidan, eta joaterik etzekala.

Nere ustez, mamiak egingo zion. Neroni ere, artzai tartean nenbillen batean, izugarrizko kaltea egin zidan mamiak, aurretik taloa janda nengolarik. Ondoren oso tratu txarra eramanez nuala oraindik ere gogoan det.

Eta Etxeberría'ri ere ori bera pasako zitzaien jan eta ase-aldi artan.

Etxeberría Bermeo'n gaixorik gelditurik, Jose Berakoetxea eta Jose Luis Elizondo, bata nere erritarra eta bestea Andoain'goa, lagun artuta, autobusean joan nintzan.

Berakoetxea'ri, au berez alaia izanik, onela esaten nion:

— Ik egingo dituk parrak amonarekin. Iku-siko dek zeñen salada dan.

Arratsaldeko irurak inguruan allegatu giñan. Baserriko atea semeak idiki zigun, esanaz:

— Pasa zaiteze aurrera.

Sukaldean amona bakarrik arkitu genduan. Alaba Bilbao'ra joana zan, tratu-gauzekin, saltzeko. Nik agurtu nuan:

— Arratsalde on, amona.

Eta berak, erantzuna berdin emanik, onela dit:

— Nun dozu lengo eguneko lagune?

Nik, jakiña, egia esan bear eta onela diot amonari:

— Bermeo'n gelditu da, ongi ez dagoala eta etortzerik ez daukala. Eskumuñak zuentzat emateko esan dit.

Eta onela dit amonak:

— Kottaua gatzatu asko janik joan zan, eta taloan ganetik txarra da orrenbeste gatzatu. Eta kottaua geixorik jarri. Baña zuek jesarri.

Exeri giñan, eta amona ori, Etxeberría'ren

berri nik emanik, oso triste jarri zitzaigun gajoa. Bazirudian bere seme bat bezela maite zuala.

Nik, ura orrela ikusirik, egiñalak egiten aintzan amona pozik jartzearren; bañan guziguzia alperrik.

Nunbait ere pena aundia artu zuan gajoak, berak gure gose-egarriak kentzen alegiña saiatu gure onerako eta bietatik bat gaixotu. Ez da arritzekoa, amona ura zan bezelakoarekin.

Alaz guztiaz ere, arto-iriña baiian pasatzen nik lagundurik, berak egin zuan orea, guretzat taloak erretzeko.

Bañan, ortan ari zala, ia erdi negarrez ikusten nuan, nere laguna Bermeo'n gaixorik gelditu zalako.

Neroni ere, ura ala ikusita, tristetu egin nintzan. Bai ederki erakutsi zidala, laguna gaixorik dagoan bitartean, lutoan bezela egon bear dala.

Arratsalde ura orrela igaro genduan. Gazura egosiarekin bina talo jan genituan iru lagunok, gure amona orrek taloak erreta.

Alabarik etzan azaldu, gu an etxean geunden bitartean.

Eta gu, amona eta semea agurtuaz eta zerbait diru mai gañean utzirik, eta nik amona besarkaturik, autobusa artzeko lekura joan giñan, amonaren sentimentuarekin arrituta.

Bañan autobusik zazpiak arte etzala esan ziguten. Bera gelditzen zan aurrean taberna zegoan, eta atzeko aldean pelota-plaza. An ibilli

giñan illundu arte pelotan, txakoliña bazegoan eta zerbait andik edanaz (1).

Onela izandu zan gure bigarren Larrauri'ko joan-etorria: triste xamarra, bañan ongi.

Gu Bermeo'ra biurtu orduko, Etxeberria an zebillen gure galde egiten, eta joan eta bereala laurok taberna batean alkartu giñan. Zer nola ibilli giñan neri galde eta dan-dana esan nion. Eta onela dit:

— Iñaki, orduan beste arratsalde batean osterera joan bearko diagu amona orrengana.

— Bai, motell, Joxe. Arek artuko likek poza benetan, eta al dan azkarren gañera obe joatea. Bestela, urte batzutako bizia galduko dik arek.

Etxeberria oso sendatu zanean, andik irugarren egunera, joan gera arratsalde batez osterera iru lagun.

Oraingoan andoaindarrak etzuan joaterik izan, eta bi urnietar eta Etxeberria joan giñan, amona ura berpiztutzeroa.

Allegatu gera ingurura eta bazirudian alabak bazekiala gu joatekoak giñala. Sukaldeko leiotik begiraka zegoan, eta, gu ikusita, etxe-sarreako atera etorri zan, agur egitera.

Nolako agurtza gañera! Emengo andereño askok joan bear luteke, alderdi artan zeñen agurtza alaia egiten duten ikustera eta ikastera, batzu-batzuek ikasi bearra badaukate eta.

Alaba aurretik degula, sartu gera irurok sukaldera; eta amona gajoa, Etxeberria alkarrekin

genduala alabak esanda ordurako jakiñik, an zegoan zut-zutik, suaren ondotik altxata eta buruko pañueloa erantzita, gure laguna agurtzearen, pozez beterik.

Etxeberria'k berak besarkatu bearrean, amonak, bere maitasunarekin, berak besarkatu zuan, nere lagunaren sorbaldan negar-malkoak ixuriaz eta onela esanaz:

— Etorri zara, kottau ori? Ondo jarri zara?

Onela galde egiñaz, biak an egon ziran alkarrekin.

Alaba, gure beste laguna eta nik, sukaldetik apurtxo bat irten egin bear izan genduan, amonaren itz goxo aiek entzuten egin egon giñan eta.

Andik bereala ostera sukaldera sarturik, amona ori buruko pañueloa jazten ari zan, eta zeñen salero ederrarekin gañera! Eta bere alabari onela dio:

— Alabie, emon oneri edari ta janari nainko. Nik taloak egingo deutsetez.

Aurreko egunean bezela, nik lagundu nion baiian arto-iriña pasatzen, eta amonak, berak ostera orea egin zuan bere esku bildu aiekin.

Beste gauza bat ere nabarmendu nuan amonaren su ondo artan. Oraingo joan-aldi gurea irugarren txandakoa zan, eta amona arek iru txanda oietan beti su ederra taloak erretzeko, eta beti egur-pilla bat suaren ondoan su egiteko.

Orrek, erderaz esaten dana esan nai zuan: *hombre prevenido vale por dos*. Beti lanari au-

rrea artu bear zaio, naiz ori zalla izan gu bezelako alperrentzat.

Bañan amonak nunbait gogoko izaki talo erretzeko eginkizun ori, eta arek su ondora aurretik ekarri arazten, bear zuan guzia.

Ori dana ikusirik eta naiko ardo eta txakoliña alabak maiean jarririk, ekin diot amonari bertsoan, bere alaba asko gustatzen zitzaidala eta abar esanaz.

Amonak, bost talo eder zabaldu artean, etzidan ezer bertsoz esan, izugarritzko algarak egin baizik.

Baita gure lagun Berakoetxea'k ere, bere esku kuxkurtuarekin taloa nola zabaltzen zuan amonari begiratuta. Arratsalde artan bapo gozatu zan ama-alaba aiekin. Eta zein ez amona arekin?

Artean aoan bazeuzkan argin-ortz batzuk, eta emakume aundia zan oso.

Baita alaba ere, oso bikaña. Ni aña bazan; 1,75 alegia.

Ari nintzan, bada, ia ixildu gabe, amonari eta danai bertso zarrak kantatzen. Nik nere lagun Etxeberria astea nai eta arratsalde artan gizagajoak gogorik etzeukan. Nunbait ere, artean bere onera etortzeko egongo zan, bat bakarrik ere etzigun kanta nai izan eta.

Itzez onela esan zidan:

— Motell, Iñaki: nik etzeukat gogorik gaur eta erori bakarrik naikoa aiz. Nik ere noizbait

egon bear diat lasai entzuten, eta jarrai zak, oso ongi ari aiz eta.

Alako batez, amonak itzez, bañan bertsoz, kantatu gabe alegia, onela esaten dio alabari:

Entzuixu, alabie,
ara or txo dotorie,
berak diñonez
mantxarik bagie;
zeuretzat ez da
gaztegie,
zeuk asko bear dozu ta
ez al da obie?

Arratsalde artan nere lagunak bertsorik etzidan granorik ere artu. Nunbait, ontarako ere etzeukan gogorik.

Bañan amonarenak iru izan ziran eta irurak artu zituan. Gero parre ederrik egin genduan autobusean, bidean Bermeo'ra alkarrekin goazela, egun berean.

Amonaren lenengo bertso ori entzun genduanean, talo-esnea jaten astera ginjoazen, eta ango gure algarak eta parrak!

Geiena gozatu zana Berakoetxea izan zan. Nai ta ere, talo-esnea bukatu gabe gelditu zan, amonaren bertsoak egin zion graziarekin.

Gero, andik laister, gazta-puska bat talo tartean jarri zidaten neri.

Aurrena ura janik eta gero beste talo erdi bat esnearekin, atsegin zegoan nere sasoiarekin.

Ekin diot osterara amonari, eta zenbat urte zeuzkan galde eginaz, eta erantzuna etzan txantxetakoak izan. Onela erantzun zidan, berriro ere itzez, bañan bertsoz:

Larogei urte dire
amuma onenak,
garbi-garbijek dire
neuk dittudanak;
baña ez sinixtatu
alabiarenak,
bi lapurreta ditu
emakumienak.

Orduan, altxatu eta onela diot:

— Amona, alabiak zenbat dauzka bada?

Eta berak onela erantzuten dit:

— Nire alabiek, txo, zeuri ogetazortzi esan; baña ogetamar dire.

Berak algara eta parra egin, eta guk zer esanik ez. Eta osterara, alako batez, onela digu amonak:

— Nire alabie urteaz barie, poltsaz dotorie.

Orrekin esan nai zuan bere alaba urtetan naiko aurreratua zegoala, bañan poltsa diruz ongi beterik zeukala, iñork berarekin ezkondu nai bazuan.

Guk orduan amona arekin egindako algarak, ikusi gabe ez dira sinistekoak. Ezta mundu guziko zine xelebrenarekin ere. Amona arek bai ematen ziola bati bizitzeko poza!

Nik esan gabe, edozeñek badaki andik edo emendik personak poza bear duala eta poza arkitzen ez dala beti erreza. Pozik ez daukana, ura beti ildako baten gisan bizi da.

Eta amona arek, egun gutxi barru guk frentera joan bearko genduala ikusten zuan, eta gu ri poz ematearren ari zan.

Bañan orain azkenean dator gogorra. Etxeberria eta gu aurretik jakinda geunden urrengo egunean frentera joan bearrak giñala, eta ortxe zan koxka: amonari eta alabari zeñek esan?

Autobusera joateko ordua allegatu zaigu eta iñork ausardirik ez berri ori emateko. «Ik esaiok» eta «ik esaiok» alkarri esaten asi giñan; eta, alako batez, neronek aitortu bear izan nien nola edo ala, esanaz alegia gutxienez illabete batean alkar ikusiko ez genduala, frentera joan bear gendualako.

Ori entzunik, amona gajoak, bere su ondotik altxeaz, itzez onela esan zigun bere bertsoa:

Kottau orrek gerrara
joan zoazte,
beti ibilli zaitzeze
edonun baliente;
gu errezetan zuentzat
izango garie,
bizirik bazagoze
elduko zarie.

Len esan dedan bezela, egun artan nere lagunak amonarenak bakarrik artzea nai zuan.

Bañan, dana ez bada ere, nere azkeneko agurra artu zuan zerbait, eta gero bidean, autobusean Bermeo'ra goazela, berritu eta zuzendu genduan.

Onela izan zan:

Ai beza, amona, berriro ere
uzten nau aberastuta,
ez beintzat beste askok bezela
aurrerantzeko oztuta,
atzerapenak mundu onetan
beñere onik ezta;
amona, ezin egon niteke
iñola zutzaz aztuta,
bizirik baldin gelditzen banaiz
etorriko naiz poztuta.

Bertso ori kantaturik eta, negar-malkoak ditugula, guziok alkar besarkaturik, agur eta ikusi arte esanaz andik alde egin genduan.

Gero, gerra bukatu ondorenean, lenago Larrauri'n izaten zan Idiazabal'ko artzai bat, Urnieta'ra etortzen asi zan. Eta, arek esan zidanez, amona gajoa andik bi urtera il zan. Zeru goietan gerta dedilla!

Artzai orrek, baita ere, aren alabarekin nobio bezela tratatzen zuala esan zidan. Nunbait orregatik alabak ainbeste aldiz aitaturko zigun, «Nun ote dabil gure Idiazabal'ko pastore kottadu ura?» esanaz. Ara askotan gauzak nola izaten diran mundu ontan.

Bertso onekin bukatzen det Larrauri'ko
amonarena:

Ai, irakurle, gezurrik gabe
zan egiazko amona,
arek zekian nolatan zaindu
mutilla eta gizona.
Ikusten zuan nundik zetorren
munduko etorkizuna,
orregatikan jartzen ziguen
alako alaitasuna,
ura bai zala txoro gabetan
benetako euskalduna.

(1) Taberna, Meñaka'ko bide-gurutzean dago gaur
ere. Pelota-lekua ere bai, taberna atzean; itxita, ordea.
Gerra ondoan erre egin zan, aldameneko zerreriarekin
batera. Eta geroztik berritu ez.

BILBAO

Beste gertaera bat, Bilbao'ko ostatu batean. Ostatu ontara asi giñan biok aurrena jatera eta lo egitera joaten, eta nagusi-etxeakoandreak oso euskaldun eta oso leialtasun aundikoak ziran benetan.

Ostatua daukanak bear duan bezelakoak, esan nai nuke. Bestela, badakizu jai daukala. Eta nagusi-etxeakoandre aiek gutxi ez bezelakoak ziran, gurekin beñepein, naiz geienetan ongi apainduak ez joan.

Laugarren joan-aldirako, oso gure adiskide egin ziran danak: nagusi, kamarero, neskame eta abar.

Bañan ara zer gertatu zitzaigun gau batean ango bi neskamerekin.

Gau artan, naiz naiko nekatuak egon, nik egin nituan parrak! Oraintxe, eskribitzen ari naizela ere, irriparez ari naiz, nere lagunak eman zidan erritaldiarekin gogoratu utsarekin, nik ezeren erru eta kulparik izan ez eta.

Artean frentea geldirik zeuden; esan naidet, Billarreal'en guk emandako atake aien ondoren zala gure ibilketa au.

Gure batalloia Bermeo'n zegoan ornitzen eta deskantsatzen.

Bañan Etxeberria nolabait ere ez izan geldirik egoteko jaioa, eta, bazkalondo batez, orbururatu zaio Bilbao'ra joan-etorri bat egin bear degula, *Hotel Carlton* artan argibide bat billatzera eta egonaldi bat egitera gure goiburu eta nagusi aiekin.

Orrela, Bermeo'ko autobusa artuta, joan gera Bilbao ortara.

Gure lenbiziko sartu-aterea *Bar Chaval*'en egin genduan, batetik oso adiskide giñalako, eta bestetik andik edo emendik nagusiak zerbeza ematen zigulako eta orduan leku askotan izaten etzalako.

Bañan ango sartu-aterea adiskidetasunarengatik egiten genduan geien-bat. Izan ere, ain zan alaia eta sinpatikoa nagusi ura, eta gu ezin egon, iñolaz ere, ura bixitatu gabe.

Aurrena, kafe eta kopa bana artu genduan. Ondoren, txarrokada txiki bana zerbeza. Eta, bertako nagusiarekin egonaldi alai bat egin da gero, Sabin-etxera joan giñan, an egoten ziran alperrak ikustera.

Bazeuden batzuk, bañan guk nai genituanik etzegoan iñor ere. Ala ere, gu ezagutzen ginduzten gudari batzuk an ari ziran euskal kantak kantatzen.

Gu biok ikusi ginduztenean, batzuk bereala zirika asi ziran, xaxazaleak alegia, gu ere kantatzen asteko.

Jakiña, bertsotan astea nai zuten. Nik olako egonaldietan ez nuan nai izaten, eta nere lagunak gutxiago.

Arek aurrena geren eginbearra bete nai izaten zuan; eta, ura bete artean, agurtza goxo eta jatorra bai dan-danai, bañan bertsorik ez nolanaietan.

Irten gera Sabin-etxe ortatik eta jo degu *Hotel Carlton* ortara. Onera allegatu eta ango atezai edo ordenantzarekin egonaldi bat egin genduan jator-jator.

Bañan nere lagun Etxeberria'k nai zuan jautsua, arratsalde artan etzegoala an. Ez dakit, garbi esateko, nor zan eta zertarako nai zuan. Bañan zerbait ere abiazioko buru eta kargu egiten zuana zala uste det. Etxeberria'k beti abiazioa ibiltzen baitzuan buruan, eta arrazoi zeukan.

Madrid alde ortatik, beti itxaropen eta esperantza onak izaten ziran. Bañan, aurren-aurrenetik, agindu bai eta ez ematen asi ziran.

Ni orrekin arrunt su-garretan jartzen nintzan.

Etxeberria'k etzuan ala ere konfiantza galtzen. Motellak, sinismen aundikoa zan benetan gizagajoa.

Egun ortan ere orrelakoren bat izango zuan. Bañan neri etzidan aitatu ere egiten abiazio-konturik.

Guzia zan, Madrid alde ortatik arrazoi txarren batzuek besterik etzala guregana etorriko ni ordurako ikusten asia nengoalako. Gauza onik ez beintzat.

Nik onela esaten nion Etxeberria'ri:

— Motell, orain arteko guzian, euskaldunai geren kopeteko izerdia kendu besterik etzigu-tek egin, eta nik etzedukat ezeren esperantzarik.

Onela, beintzat, ostera bildu eta etorri gera *Bar Chaval* ortara.

Ordurako zortziak inguru baziran, eta, an sartu ezkerro, jakiña zer zegoan nagusi alai arekin: bolara batean an egon bear, bera asarretuko ez bazitzaigun.

Atxuri'ko tren artzea bederatzia inguruan genduan; eta, jakiña, gu ere orduan pozaren billa baigenbiltzan eta *Bar Chaval*'eko nagusi alai arek poza ematen baitzuan, zer gertatuko eta trena artzeko garaiak alde egin, batere uste gabe.

Azkeneko trena Atxuri'tik Mungia'ra izaten zan, eta Bermeo'ko autobusak emendik artzen zuan jendea.

Guk, ordea, trena utsegin eta, jakiña, apartia auzoan.

Bañan iñongo kezkarik ez baigeneukan, joan gera apaltzera len aurretik esan dedan ostatu artara.

Emen sartu giñanean, Jesus, motellak, ura zan agurtza-pilla! Bazirudian enbajadore oieta-koak giñala:

— *¿Qué hay, Josetxu? ¿Qué hay, Iñakitxu? ¿Qué tal estáis? ¡Tanto tiempo sin aparecer por nuestra casa! ¡Ya estábamos preocupados por vosotros!*

Eta danak onelaxe, naiz erdia baño geiago gezurra izan.

Bañan Bizkai aldeko emakumea, emen Gipuzkoa'koa baño legunagoa da askozaz ere izketan. Eginkizunetan berdin, ordea.

An ere, mundu guzian bezela alegia, emakumea emearen umea. Ori esan nai du emakume itzak. Ortatik pentsatu, gizonak, gizon bada, zer berezko indar bereziak dauzkan berarekin.

Bañan gu askotan ez izan gizonak, alderatzeko ere; eta, azkenean, emakumea gallendu. Alaz guztiaz ere, ez da gutxi gizon baten utsunea emakume batek estaltzen badu.

Apaldu genduan, ez gaurko eran, ordukoan baizik: ogi-puska bana beltz-beltza eta edaria zerbeza.

Ardoa, neska batek esan zigunez, etxe azpiko gordeleku eta bodegan bai omen zeuden ardo zar enbotellatuak; bañan aiek nagusi-etxe-koandreak bakarrik edaten omen zituzten.

Nik onela diot orduan:

— *Pues, señorita, eso me parece de maravilla. Porque primero Dios y luego los santos. Pero Vd. no se apure: tráiganos suficiente cerveza y misión cumplida.*

Naiko zerbeza ekarri zigun eta naiko janari ere bai. Zer geiago bear genduan guk?

Ondoren, kafe eta kopak artu genituan lasai-lasai, eta amabiak inguruan neskame aietako batek zein gelatan lo egin erakutsi zigun. Ala, oieratu gera biok oi banatan, geren errezoak bakoitzak bereak eginda.

Nik, orduan beintzat, txikitandik alaxe oituta, izugarrizko errezo luzea izaten nuan oieratu eta gero ere.

Nere lagun Etxeberria'k onela esaten zidan askotan:

— Iñaki, errezo luzeegia egiten dek. Errezoa motza, eta ura izan dedilla ona.

Nik erantzuten nion:

— Luzea eta ona txarragoa al dek?

— Ez, Iñaki. Bañan ori zail xamarra dala iruditzen zaidak neri.

— Joxe, iri orrela irudituko zaik. Neri, berri, ez; egiñaletan pin errezatzen diat eta. I erearekin or konpon adi. Bakoitzak jakiten dik norbere berri.

Orrela bukatzen zan gure eztabaida, ezer iñungo asarre gabetan.

Dan-danok orrela bear gendukela uste det nik gañera: norbere lanak ongi egin, besterenak ikutu gabe.

Onela, beintzat, artean erne eta lo artzeko nengoala, *dan-dan* atea jotzen digute, «Iñaki Iñaki» esanaz gañera.

Bereala oietik altxa nintzan, eta, jakiña, gantzontzillo utsik, zerbait gauza txarren bat pentsaturik, ainbeste ziraden orduan eta. Momentu artan nik ez nuan galtzak jazterik pentsatu ere.

Bereala atea zabaldurik, zein izango eta neskame aietako bi. Eta biak beso-besotik eldu eta onela didate:

— *Iñaki, te vamos a enseñar una cosa bonita.*

Eta, pasilloan aurrera eramanez, or sartu naute beren gela eta lo-lekura.

Neska arraio aiek zer izango eta tabikeari zulo txiki bat egiña zeukaten aldameneko gela ikusteko, eta egun artan ezkonberri batzuk an jarriak, erderaz esaten dan bezela *luna de miel* pasatzera, Bizkai'ko erri batetik etorrira.

Neska demonio aiek ni ere andik zeletatzera eramanez.

Bañan orrelako txorakeriak ez baititut nik bein ere gogoko izan, erritaldi bat eman nien neskame aiei, eta osteras lasai oieratu nintzan, Etxeberria'ren zurrunga-otsa entzunik.

Urrengo goizean, goizeko zortziak inguruan, or datorkigu neskame aietako bat kafe-esnearekin, txurro eta guzi gañera, algara ederrik neri egiñaz.

Nere laguna, gure artean zerbait bazala laister oartu zan, eta, neskameak gure gosariak mesanotxe gañean utzirik alde egin zuanean, onela dit:

— I, Iñaki: neska orrek zer dik orrenbesteko algara oiekin?

— Zer izango dik? Bartarratseko txorakeri eta jostaketak. Ez al dakik zer diran hoteletako neskameak?

— Iñaki, zer dan ez al didak esan bear?

— Ez, Joxe. Orain ez diat esango. Gero bai.

Gero, dan-danak esan nizkionean, ez giñan geiago etxe artan sartu. Andik aurrera, *Hotel Europa*'ra joan giñan. Oso nagusi-etxeakoandre jatorrak ziran. Orain ez dakit jarraitzen duten; jarraitzen badute, obe.

Gertaera onekin auxe esan nai det: nere lagun Etxeberria, zera ortan ere oso azkarra ta serioa zala, eta gaur ere badaukagula ura zan bezelako batzuen bearra.

ENBEITA'REN ETXEA

Etxeberria eta ni bi aldiz gertatu giñan Enbeita bertsolariaren etxe eta baserrian bixita egi-ten. Oso pozturik irten giñan bietan senide aien alkartea ikusita. Oso jatorrak benetan.

Aita, gerrak Rioja'n arrapatu zuan, bañutara joana zalako. Bañan beste guziak, beren amaxorekin, an ziran baserrian jator asko. Aitaren kezkarakin, ordea.

Sagardo egiteko tresnak eta tolareak an ikusi genituan, guk ezer uste gabeen. Baita etxean bertan egindako sagardoa edan ere. Ez emen bezin berdea; bañan orduan guretzat naiko ona.

Ez det uste ezer abestu eta kantatu genduan. Aita etxean etzegoalako izango zan noski. Bañan bi egonaldi jator-jatorrak egin genituan bi joanaldietan.

Nere aita ezagutzen zuten aspaldietan, aien aita eta nerea erriz-erri bertsoan ibilliak ziralako.

Edurne izena zuan alabak laguntzen zigun
trena artzera Muxika'ko estaziora, sinpatika as-
koa. Irripar ederrik egiten zuan gurekin, eta bai
guk ere berarekin. Oso ongi etortzen giñan al-
karrekin.

Bearbada, geroztik gu biok illak generala us-
teko dute. Ni, bat beintzat, bizi naiz oraindik,
eta, bizi naizela adieraztearren, emen liburu on-
tan bertso bat dijoakie. Eta zorionak.

Enbeitarrak, aurren-aurrena
goraintzi sutsu-sutsua;
bizi naizela adieraziaz
ondoren nere bertsoa.
Zuen etxeko egonaldiaz
ni nola egon aztua?
Ain gutxi berriz iñolaz ere
nere kopeta beztua.
Ibilli arren guda-garaiez
bata besteaz nastua,
bañan odola oraindik ere
nik ez dadukat oztua,
arkitutzen naiz beti bezela
euskaldun prestu-prestua,
gure euskera goratutzeko
biotza poztu-poztua.

ORDUÑA

Egun batez, Bermeo'tik Orduña'ra joan bear izan genduan, zerbaiten zalantzarengatik.

Orduantxe bakarrik Etxeberria eta biok igo giñan Gorbea deritzaion mendi aundi orren gañera.

Bitartean, batalloia komentu uts batean gelditu zan (1).

Orduña ortan, iru egun bakarrik egin genituala uste det.

Bi gau egin eta urrengo egunean, Garagorri'k eta biok Azkoiti'ko Urzelai eta bere erritar Sodupe'ri jokatu genien pelotan eskuz, an zegoan pelota-lekuan.

Sodupe'k aurretik jokatzen zuan, eta Urzelai'k atzetik; Garagorri'k aurretik, eta nik atzetik. Bi azkoitiar eta bi urnietar alkarren kontra, beraz, laurok ere pelotan aspaldian ibilli gabeak.

Asi gera jo ta ke. Azkoitiarrak, urnietarrak pelotan ezer jokatzen etzutela uste zuten, eta gero ziran ixtilluak.

Denbora pasatzearren asi giñan. Eta, eguraldi otz xamarra baitzan, berotzearren ere bai, alkartasun ederrean.

Bai ederki asko berotu ere, alajañetan. Alde egin zuten laister asko atzapar eta gorputzeko otzak.

Lendabizitik, errez xamar aurreratu ziran azkoitiarrak.

Sodupe'k berez bolea zualako eta gorputzez luzea zalako, neri pelota asko arrapatzen zizkidan.

Eta, Garagorri'k zuan jenio gizatxar arekin, neretzat ziran errita guziak, boleatik Sodupe'k tanto egiten zionean.

Onela, gero eta amorru geiagorekin ari giñan, bañan beti gu lau edo bost tanto atzetik; eta azkoitiarrak irripar guri egiñaz, amorruan geiago jartzearren.

Bañan, alako batez, Garagorri'ri or etorri zaio buruzbide bat, eta onela dit:

— I, Zarpa: ik atze ortatik zertarako altxatzen dek pelota orrenbeste? Arrapatzen deken guzia jo zak txapa gañera, eta ikusiko dek orren bolea nora joango dan. Egin zak ori eta laister izkutatuko dituk auen irripar txoro oiek.

Garagorri'k arrazoi guziak izan zituan. Berak esan bezela asi naiz, eta, emezortzi eta ama-bi gaudela, uste gabeen or berdindu ditugu ogeiean, ogei ta bira. Orduan bai alde egin zutela irripar aiek.

Berak partidua berritu egin nai eta guk ez, an ziran eztabaidak eta komeriak.

Nolabait, beintzat, Garagorri poliki artu eta berriz amabi tantora jokatu genduan pake-pakean, eta amabi eta zazpi guk irabazi.

Berriro noizbait ere jokatzekotan gelditu gihan.

Bañan geiago ez det uste iñork Bizkai'ko gerra guzian pelota bat ere jo genduanik. Nik besterena ez dakit; nerea bai, ordea, geroztik ez nuala pelotarik ikusi.

Abiazioko bonbak bai ugari; bañan pelotarik ez.

Orduña'n egin genduan saio ori, naikoa izan zan ezur guziak minberatuta gelditzeko egun batzutarako. Gorputza berotzearren asi eta azkeneko kixkaldu.

Gazteak baditu amaika astakeri olako, eta guzia gazte dagoalako.

Azkoitiarrak, azkoitiar ziralako, gure aldean pelotan askozaz ere obeak zirala uste zuten.

Nik ori banekian asterako ere. Bañan nere lagun Garagorri, aien irripar ura ikusirik, sutu egin zan; eta, sutu egin zanean, orduan bururatu zitzaion joko berria.

Erderaz bada esakera bat: *Al freir será el réir*. Orduña'ko partidu artan ere orixe gertatu zan: ustez nagusi ziranak, gero apaldu eta umiltzea.

Onek esan nai du, uste ez dan lekutik ateratzen dala erbia.

Bi azkoitiar jator aiek bizi dira oraindik, eta oso lagun gera alkarrekin. Partidu artaz ere etzitzagun odolik irakin.

Eta zertan okertu gaztetako jostaketa bategatik? Ni ez beintzat, aundixeagoa izanda ere.

(1) Jesuiten ikastetxea izana. *Colegio de Nuestra Señora de la Antigua* beraren izena.

URBINA

Egun batez, Bermeo'n giñala, or artu degu Estado Mayor zegoan lekura bereala agertzeko deia. Baita azkar joan ere. Andik, automobillean artu eta Otxandio'ra.

Ibarrola ango frenteko buru egiten zuan teniente koronelarengana azaldu giñan, eta bere agintzak ematen azi zitzaigun.

Ibarrola orrek euskeraz etzekian, eta nere lagun Etxeberria'k erderaz nik baño gutxiago egiten zuan. Olakoetan, ni izaten nintzan buru edo ordenak eta abar artzen nituana.

Egundano ez nuan Ibarrola jaun ori egun artan bezin larri eta estu ikusi. Bazirudian, ari begiratuta, mundu guziak azken juizioa zekarrella. Berez gizon alaia zan; bañan orduan mendiko otsoa ematen zuan. Arek ere itxura geiago zuala uste det, eginkizun jatorra baño.

Ordurako, Etxeberria eta biok jaun orrekin zerbait ernetzen asiak geunden. Asko eta askotan, guk geren ibilketak jator eta zintzo egin

arren, etzuan bear zan esker ura izaten, erritaldiren bat baizik, zerbaiten itxura egitearren.

Ordura arte sekulan ere eman etzigun konfiantza, orduantxe asi zitzaigun ematen, beste itz asko eta abarren artean onela esanaz:

— *Hoy os vais a jugar quizás la vida. Según informaciones extranjeras, el enemigo está preparando una gran ofensiva contra el ejército del Norte.*

Arek etzuan *ejército del Norte* besterik esaten. Bein ere ez nion *ejército de Euzkadi* entzun.

Ondoren onela jarraitu zuan:

— *Primero vais a ir hasta Urbina, y luego os adelantaréis hacia Vitoria todo lo que podáis. Tenéis que observar cuántas baterías, cuántos tanques y qué movimiento de tropas hay.*

Au dana illunbistan izan zan. Illundu zuanen eta guk ongi apaldu genduanen, lengo jakinbideetatik abiatu giñan, beti bezela janari-zorro bana eta zato ardoa artuta.

Oitura genduan bezela, bidean lasai-lasai jantziak aldatu genituan, aldi artan soldaduena arturik.

Egun artan etsaiak zer konsijna zuten jakiñaren gañean geunden: *España*, beste askotan bezela.

Bueltakoan okerrik gerta etzedin, Pagotxiki eta Albertia mendian zeudenak jakiñaren gañean gelditu ziran, gure ibilketa zein aldetara zijoan. Geren kontraseña ere zabaldu genduan. Egun artan *Eup, argi!* izango zan.

Alaz guztiaz ere, etortzerakoan, geren kontraseña lurrean etzanda ematen genduan beti.

Egun batez, Pagotxiki'n, an zegoan zentine-la, erdi lotan egonik edo gure kontraseña nun-bait ere ongi ez enteniturik, bereala ametralla-dorarekin tiroka asi zitzaigun. Eskerrak, esan bezela, lurrean etzanda geundela. Bestela, ez nin-tzan gaur emen idazten jardungo.

Gau artan, eguraldi lañotsua zan. Bañan eu-ririk ez genduan izan, alik-eta Urbina ingurura allegatu bitartean. Erri artako saiets batean gen-biltzala, or ekin dio euri eta kazkabarrari. Es-kerrak, beste geienetan bezela, sirak eraman ge-nituala. Rusoak-edo omen ziran; bañan oso ede-rrak.

Andik aurrera, oso gau txarra igaro genduan. Bañan alde batetik guretzat oso ona olako egu-raldi txarra, etsaiaren asmoak eta prestamenak obeto eta lasaiago ikusten genitualako.

Lendabiziko jasara ura pasa bitartean, pago-tegi baten azpira sartu giñan eta egonaldi bat egin genduan. Bañan pagotegi azpi artan ia-ia alkarrekin asarretu giñan Etxeberria eta biok. Eta zergatik, eta Ibarrola'rengatik.

Len or esan bezela, egun artaraño etzigun sekulan ere konfiantzarik ematen. Dan-dana, gerra errez irabazia zegoala eta abar izaten zuan. Berak nai zuanean, Madrid'tik eun abioi eto-rriko zirala esaten zigun. Bañan abioi oiek egun artan, estuasun ori ikusi zuanean alegia, ekarri bear zituala iruditzen zait neri.

Orduan bai egiaz ikusten asi nintzala salduak geundela. Eta erritaldia, Ibarrola'ri eman bearrean, nere lagun apalari eman nion. Euri eta kazkabarra ari zan bitartean, onela esaten nion:

— Aizak, Joxe: agindu eta eman ez, emen etzegok gauza onik. Eta orain Ibarrola ori guregana oinbeste makurtzeak, etzidak iñungo lekutik ezeren pozik ematen. Lenago bertsoak jarri ditudala? Aundiagoak jarri bear dizkiat bada.

Etxeberria'k erantzunez onela esaten zidan:

— Motell, erorrek esaten dek Ibarrola ez dala sekulan egon gurekin konfiantza ematen gaur bezela. Ori siñale ona dek.

Eta nik berriro esaten nion:

— Alde batetik arrazoi daukak. Bañan beste aldetik nik gauza bat ikusten diat. Iru bat illabete badek, nai zuanean Madrid'tik eta Rusia'tik eun abioi ekarriko zituala nik entzun niola. Granorik ez dek oraindik agertu, eta nik bildurra zeukat bakar bat ere ez dutela ekarriko.

Bañan nere lagunak, ain zan siniskorra eta ona, etzuan sekulan ere txarrikan pentsatzen.

Puska batean orrela jardun giñan. Bañan gero, euria eta kazkabarra aterturik, Urbina'n saietetik sartu giñan. Baita ere erria pasa eta Bitori aldera artu.

Eta Urbina'ko atzeko aldean an zeuden, kamio-bazterrean, amabi tanke, soro batean sartuak. Aurreraxeago, arbolategi batean, lau bateri *ocho con ocho*'koak, alemanak; eta aurrerago, *quince y medio, diez y medio* eta *siete y*

medio'koak amazapi bateri. Danetara, ogei ta bat bateri kontatu genituan.

Ura ikusita, ez geneukan Bitori'ra ezertara joan bearrik. Orduan nere lagunak, boz triste batekin, onela dit:

— Aizak, Iñaki: oraintxe ikusten diat arrazoi guziak ez, bañan geienak erorrek ote dauzkaken.

— Bai, Joxe, bai. Naiago nitek ez izatea. Bañan, ikusi dekenarekin, or daukak ondoren zer datorkigun. Auek emen zeudek, eta gure abiazioa Rusia'n egongo dek, eta urrutiko in-txaurrak beteak izango dituk guretzat.

Gau guzian ez genduan geroztik itz askorik egin, bañan bai ibilketa ikaragarria. Ibarrola'k eman zigun agintza egiña genduan; bañan Etxeberria'ri, ain zan abertzale piña, Eskoriatza alde-a ikusi bear genduala bururatu zitzaion.

Badaude makiña bat kilometro. Guk Urbina utzi genduan ordua, ortxe irurak ingurua izango zan. Andik irten eta, eiraka-eiraka, baztarka-baztarka, Eskoriatza'ko mendigain batera goizeko bost eta erdiak inguru ortan allegatu giñan. Ez naiz izenarekin gogoratzen.

Arrantxoa egiten asi giñan: zorroan genituan txokolate, galletak eta abar, geren zatoko ardoarekin.

An geundela, kamioi-motor otsa eta soñu asko eta asko entzuten genduan. Bitori aldetik zetozen, batzuek argia aldizka pizturik eta beste batzuek itzalita. Eta Bergara'ko Deskarga aldetik ere automobil-mobimentu aundia zebillen.

Etxeberria'k onela dit:

— Urbina'n artilleri eta tanke-pilla ederrak ikusi dizkiagu; bañan auek emendik emango ditek atakerik aundiena.

Nik orduan:

— Emendik? Zer bada?

— Zergatik? Andik kañoi-danbarrada aundiak jarriko dizkitek. Bañan infanteria mendi auetatik botako ditek, gu saietsetik arrapatzeko, Aramaio'ko kamioa ebakita.

Oiek danak ikusi eta esanda, egunsentian, neka-neka eginda, Aramaio'n agertu giñan, eta betiko errota edo baserrira joan giñan.

Nik dozen erdi bat arraultz prejitu jan nuan, bi talorekin; eta nere lagunak iru arraultz, urdai-azpikoarekin. Gero, nik bi talo esnearekin, eta arek beste bat esnearekin. Eta ez daukat aztua, gure orduko gastua zenbat izan zan: zortzina pezta.

Andikan ostera Otxandio'ra, Ibarrola jaun orrengana. Ikusi genduan guzia esan nion; baita ere Etxeberria'ren iritzia zer zan:

— *Mi amigo dice que, aunque hayamos visto tantos tanques y tanta artillería en las cercanías de Urbina, como no hemos visto casi nada de tropa por allí, cree que atacarán por el costado, para cortar la carretera de Villarreal a Aramayona.*

Eta onela dit apal-apal:

— *Quizás tenga razón tu amigo. Pero la infantería tendría así mucho bosque y mucho mon-*

te para comunicar con la artillería y los tanques. Yo creo que el ataque principal será por aquí.

Ondoren, berak esker-itz esanik, gu geren enlazearekin Bermeo'ra, geren kuartelera, jetxi giñan, lo egitera alegia.

Andik irugarren egunera, gu Bermeo'n geundela, enlazea etorri zitzaigun, Albertia mendia etsaiak artua zegoala argibidea ematera, eta infanteria Eskoriatza aldetik saieska-saieska sartua zala, naiz artilleriak eta tankeak Urbina aldetik tira.

Bai; nere lagun Etxeberria arek tontotik illerik ere etzuan. Artzaiak, teniente koronelak baño obeto asmatu. Militar estudiatu izan balu, alako jeneralik etzan (1).

(1) Alkain'ek dionez, etsaiaren infanteria Eskoriatza aldetik saieska sartu zitzaien; ziri bat bezela, alegia. Liburuak ere ala diote.

Naparroa'ko Brigadak jo zuten atakea: laugarrenak, Billarreal aldetik; lendabizikoak, Eskoriatza eta Gatzaga aldetik Otxandio aldera; irugarrenak, Aretxabaleta aldetik.

Orra nola gertatu ziran gauzak, J. M. Martínez Bande'k bere *Vizcaya, monografías de la guerra de España, 1971*, liburuan dionez:

«La preparación artillera se inicia con las primeras luces, intensificándose inmediatamente el fuego. Poco después de las 7 horas comienzan los vuelos de la aviación.

A las 10 horas 20 minutos, la IV Brigada ocupa el vértice Maroto; y a las 11 horas 45 minutos el Albertia y el Jarinto, alcanzándose la carretera de Villarreal al valle de Aramayona. A la vez, la III Brigada gana, aun-

que con mucha dificultad, Asensiomendi y parte de Uncella y las fortificaciones intermedias, mientras que la I lo hace con una cota al sur de San Adrián y los poblados de Zarimuz y Mazmela...

Al finalizar el 31 principia una lluvia que dura toda la noche. Al día siguiente, con los campos encharcados, prosiguen las operaciones ante una valerosa resistencia del enemigo. La III Brigada, tras duros combates, termina de ocupar Uncella y se posesiona del Murumendi; y en combinación con la I, conquista el monte de San Adrián y el puerto de La Cruceta. Esta última Brigada lo hace además con San Cristóbal y la cota 694, y realiza una marcha por la espalda del Jarinto, rebasando la carretera Villarreal-Mondragón...

El día 2, la I Brigada, luego de fuertes combates, ocupa las primeras estribaciones de las peñas de Aranguio...»

Toki-izen oiek mapa on batean arkituko ditu irakurleak. Orrela obeto jabetuko danez, saieskako lan ori lendabiziko eta irugarren Brigadak egin zuten; lendabizikoak batez ere.

* * *

Brigada ontakoa zan Tercio de Montejurra izenekoa. Onen kapellauak, Policarpo Cía Navascués'ek, *Memo-rias del Tercio de Montejurra* liburua idatzi zuan gerra ondoren. Egun aietako gertaerak onela kontatzen ditu:

«En la mañana del 31 de marzo salimos de Escoriaza en orden de aproximación al frente enemigo: otras fuerzas... abren ruta por los bosques y barrancos...

Los de Montejurra, en reserva de vanguardia, siguen la sangrienta estela...

Ha habido necesidad de vencer no pocas dificultades desbaratar no pocas resistencias en las primeras líneas, que protegían la carretera Aramayona-Ochandiano. Sin embargo, al sucumbir el día por el peso de su carrera, nosotros también, sudorosos y polvorientos, vivaqueábamos a tres kilómetros de Ochandiano y arrebatábamos a los rojos su cuartel general, instalado en la carretera de Aramayona.

Eta Apirillaren lenengo egunaz:

«...Antes de que el enemigo conozca nuestras posiciones; antes de que estudie nuestra posible trayectoria; antes de que barrunte nuestras intenciones combativas, abandonamos nuestro nocturno campamento y desplegamos en orden de batalla.

...Nos acercamos ya a las lindes del enemigo: son emociones indescriptibles que no experimentamos desde los días lejanos de San Marcial. Forcejeos reiterados, explosiones simultáneas, disparos de fusil, intentos de asalto, y después, silencio y quietud de muerte. Por fin los del Montejurra... asaltan las trincheras enemigas con su coraje legendario y las ocupan con la eficacia contrastada de anteriores luchas. El parte oficial correspondiente a este día consignará: «Nuestras tropas han seguido el avance, batiendo al enemigo y ocupando Gorbea, San Adrián, Guruceta y Gurumundi».

Onek ere, ziri antzean sartu zirala esaten du:

«Cuando en mis mocedades estudiaba perezosamente las leyes físicas de las fuerzas que operan en distintas direcciones, me llamó la atención la ejemplaridad y sencillez teórica de la cuña. Cuando un Oficial del Estado Mayor de la columna me explicaba al día siguiente las operaciones de hoy y técnicamente me exponía la situación difícil del Tercio de Montejurra, recordé aquellos estudios, ya olvidados, y volví a meditar en aquellas leyes inmutables de la naturaleza.

Si el vértice de la cuña ha penetrado profundamente en un cuerpo extraño tan resistente como ella, y entonces la base de ésta se parte en mil pedazos quedando el vértice dentro, resulta agarrotado y aprisionado por las paredes del cuerpo invadido, que ha vuelto a recobrar su anterior posición en virtud de las ineludibles leyes de la inercia.

Las posiciones que habíamos conquistado en la mañana de este primer día de abril, indicaban el vértice de la cuña introducida por el Mando. La operación de conjunto había fracasado y las fuerzas de los flancos se mantenían en sus antiguas posiciones. Quedábamos, pues, aprisionados por las paredes de la abertura hora-

dada en el campo enemigo, a merced de sus contra-ataques, de sus continuos tiroteos, pero sobre todo, sin esperanza de poder recibir provisiones y refuerzos. Era la primera vez que los requetés del Montejurra se hallaban en situación tal. Veinticuatro horas duró tan terrible situación...»

ARANGIO

Esan bezela, etsaiak andik iru egunera jo zuten atakea. Martxoko azken eguna zan. Durango eta Otxandio bonbardeatu zituzten. Durango ainbesteraño ez, kalte eta il asko izan baziran ere. Bañan Otxandio txetuta utzi zuten; pareta utsa dan-dana. Eta frentean Albertia mendia artu zuten, saietsetik sartuta. Ori dana lenengo egunean.

Urrengoan, gu, irteera ura denbora luzerako izango zala jakiñik, Bermeo'n geren armak, tresnak, erropak eta al genituan gauza geienak artuta, autobusetan atera giñan, arratsaldeko laurak inguruan, Gernika aldera.

Gernika'ra, agustinoetako arbolategi artara, allegaturik, autobusak an gelditu bear izan zuten illunbista arte, egunez abiazioak dan-danak txikitzen zitualako. Eta illunabarra arte, ez dakit zer ordu jarriko zuten, Gernika'ko errian ibiltzeko baimena izan genduan.

Baziran batzuk, zearo orditu eta mozkortuta etorri ziranak.

Oietako bat Bergara'koa zan, oso xelebrea eta fiña benetan trintxeran jartzen zanean. Illunbistan or etorri zait aurreko aldera balantzaka eta zalantzaka, onela esanaz:

— Aizak, Alkain: gaur gabean Bitori'raño joan bear diagu bijok, ango txarri guztijak iltzera. Zergatik txarri aundijenak il ezkerero, txikijak ez dik kozkarik eltzen. Eta gu bijok naikoak gaittuk Bitorija'n dauden txarri aundi oiek iltzeko. Eta ori gudia akabatzeko naikoa dok. Bestela alper-alperrik gabiltxik emen zantarrarena egiten. Ik orain nai dokena egin zak. Ni, autobusean lo egitera niak. Eta gero arteraño.

Une artan, bergaratar ari oiek orrela entzunda, odol irakiten jarri nintzan. Asko edana baitzegoan, eta asko edaten duanak, gero nola egin lezake lana? Erritaldi bat izugarria eman nion:

— Motell, orrenbeste balio deken mutilla aiz, eta orain, ire bearrean egonik, nola orrela mozkortu litekek gizona? Nere anaia baintz etzekiat zer egingo nuken. Bañan lotsaren apurrik ez dek, danon aurrera orrela azaltzearekin.

Autobusera lotara joan zan, bestetarako orduan gauza etzan eta. Bañan, urrengo egunean, ura baño gudari oberik inguru artan etzan. Eta neri bezperan esandako guziak gogoan zeuzkan. Nik orain pentsatzen det, arek arrazoi aundia zeukala orduan (1).

Arratsalde artan ere bazeuden Gernika'ko kuartelean beste gizon jakintsu usteko eta len-

dik aurrera xamar zebiltzan batzuk. Bañan geienak bildurtzen asiak zeudela ikusi nuan.

Oietako batek or galdetzen dit kuarteleko atarian:

— Zer iruditzen zaizu etsaiaren oraingo asiera au?

Nere erantzuna:

— Zer irudituko zait, bada! Nik banekian aspaldian berak asiko zirala, gu ez gera asten eta.

Orduan, jaun ori apurtxo bat lotsatu egin zan. Eta berriro esan nion:

— Zer uste zenduten, bada? Emen kalean, kuartel-txuloan, etiketaz jantzita gerra irabaziko genduala? Ez da orrela! Lenagotik bear bezela saiatu izan bagiña, etsaia etzan gallenduko, gallendu dan ainbeste. Emen orain gauza bat bakarrik daukagu egin bearra: arpegia gogor eman. Gerok geren burua samindurik, sekulan baño ere gogorrago agertu beren aurrean. Ori egiten ez badegu, ezer ez gera gu. Iñoiz bada, orain da garaia asteko.

Nik, nere tontoan ere, banekian gauza onik etzeturrela.

Sartu gera autobusetan eta, illunbistan Gernika'tik aterata, Muxika eta Amorebieta'tik barrera Durango'ra allegatu gera.

Emen, naiz illunduta egon, kalte aundiak egiñak zeudela ikusten zan.

Ordurako asia zegoan nik ez dakit zer usai-klase, edo ildakoena edo errearena. Neri, aragi

erre usaia ote zan iruditu zitzaidan, bañan galanta benetan.

An pasa giñan, batzuek pañueloak sudurretan jarrita, zegoan usaiarekin. Ori, gelditu gabe. Gelditu izan bagiña, zer izango ote zan?

Gernika'n txurrutean ibilli ziranak, geienak lotan zijoazen. Eskerrak orri. Bestela, zurrut asko egin ondoren urdail txarra egoten baita, usai arekin arrunt atsekabetu eta gonbitoka ziran zuzen-zuzen.

Durango utzita, naiz gaua izan, autobusetako txofer guziak abiazioaren bildurra zeukaten. Bear-bearrean ikasten dala oñez da esaera, eta gure txofer aiek ere argirik gabe gauz ibiltzen orduan ikasi zuten abiazioaren bildurrez. Kurba bat txarra etortzen zanean, orduan argiari eragiñez pasatzen zuten. Bañan kamio zuzenean iñork ere ez kiñu, eta, al bazan, ez soñu.

Beintzat, Mañari'tik barrena Urkiola'ko aldapa mantxo-mantxo igoaz, Otxandio'ko sarre-rara allegatu gera.

Emen, autobusetatik jetxi eta errian sartu gera. Dan-dana txiki-txiki egiña zegoan. Durango'n usai asko bazan, an gutxiago ez. Kaleak, dan-danak pareta zar eta zakarrarekin beteta zeuden. Arri gañez eta zakar gañez igaro giñan, andik Olaeta errira joateko.

Erri koxkor ontatik Arangio mendira banatu giñan: bi konpañi goiko gañera; beste bat Aramaio aldera; eta gurea, Santa Krutz ermita baño berago tokatu zan, oso leku txarrean (2).

An etzegoan zear-zear bide zar bat besterik; eta ez arbolik eta ez arkaitzik ere.

Gau ura nolabait pasa genduan, pake-pakean.

Gure aurretik leku artan egondakoak, mendi guzi ura gurea zegoala esan ziguten. Bañan ez geunden lasai.

Egunsentian, or abitu gera dozen erdi bat mutil arrastaka-arrastaka, baxtarka-baxtarka, noizean bein tiro batzuk tireaz, ea etsaiak ezereñ señaierik ematen zigun.

Badakit bi lagun andoaindarrak nituala, eta beste bat legazpiarra. Bañan beste biena ez naiz gogoratzen.

Mendi orrek Billarreal aldera beste mendigain bat dauka, ura ere arbolik eta arkaitzik gabea.

Nik, Etxeberria'rekin orrela ibiltzen oituta, nere lagun aiei onela esaten nien:

— Al badezute, beti lau ankean ibilli! Beti lau ankean!

Bañan konfiantzak galtzen duala gizona da esaera, eta an ere orixe gertatu zan.

Aurrenetik dan-danak ongi zijoazen; bañan gero, etsaiak erantzunik ematen etzuala ikusirik, batzuk xabartu eta zutik asi ziran.

Alako batez, uste gabeen, esandako mendigain ortatik eun metro falta ez genduala, *tarratarrata* ametralladorekin, eta an kaz gora bi mutil: bata andoaindarra eta bestea ez naiz gogoratzen nungoa. Eta biak seko. An gelditu ziran gorputzak, urrengo gaua arte.

Muturreko eder ori artuta, besteak, arrastaka-arrastaka, irureun metro ingurura atzeratu giñan, eta an zegoan bide zanja-zulo artan sartu.

Gure ibilketa ura orrela izan zan. Esan bai guri *Larrañaga* batalloiko mutillak mendi guzia gurea zegoala. Bañan ez egon guzia, etsaiak egaletan geldituak baizik.

Egun ura lañotsua izan genduan, tarteka euri-zapar batzuk egiñaz. Guk euriarentzat oso jantzi onak izaten genituan. Onetan bai giñala gu etsaiak baño geiago.

Beintzat, naiz tarteka tiro batzuk tira, egun artan etzan borrokarik izan. Nik uste, abiazioak ibiltzerik etzeukalako. Bi edo iru il ziran gure mutillak; bañan an etzan ezertxo ere izan, urren-go egunarekin alderatzeko. Urren-go eguna bai izan zala gogorra benetan.

Bitartean, nere bi lagun aien gorputzak an utzita, ni ez nengoan lasai.

Mutil bat andoaindarra baitzan, eta nere lagun Etxeberria'ren auzo ingurukoa gañera, zer gertatu zan paper batean idatzi eta argibidea bialdu nion Sebastian Garagorri'rekin, illunabarrean goiko menditik neregana jeixteko esanaz.

Illunbistan, zintzo asko, an etorri zitzaidan, bi gorputz aiek gutxi gora-bera nun zeuden galdezka, zer nolatan atera bear genituan asma-tzearren.

Nik esaten nion:

— Biok gutxiegi gaituk, bi gorputz oiek andik nolanaietan ekartzeko. Bañan, kamilleroak

naiko balute, kamilletan errex ekarri litezkek ixil-ixilik.

Onela, kamillero eta beste askori galdezka asi giñan, bañan onela esaten zuten:

— Ortik oiek atera edo ez atera berdin dek. Gero ere, ekarritakoan, lurpera joan bear ditek, eta guk geren bizia zertan arriskatu bear diagu?

Orrela danak. Ori ikusirik, Etxeberria'ri esan nion:

— Nik bat, aundiena, ekarriko diat bizkarran. Ik bestea ekarriko al dek?

Beste ori Andoain'goa zan, eta Etxeberria'k erantzunez onela dit:

— Nik Andoain'goa ekarriko diat, geienaz ere nik aña pisatzen dik eta. Bañan bidean kontu aundia izan zak, joan bear degun lekutik iñora deskuidatu gabe.

Eta, triste-triste, biok bakarrik joan giñan, batzutan lau ankean, beste batzutan zutik, bañan ez bein ere bildurti. Gauean bagenekian ez giñala nolanaietan mendian galduko.

Orrela, beintzat, poliki-poliki joan gera bi gazte ildako oiek zeuden lekura. Bañan gorputz ildakoa oso zalla izaten da bizkarrera jasotzen.

Aurrena, andoaindar ori jarri diot Etxeberria'ri bizkarrean eta or abitu da.

Bañan bestea bizkarrera jasotzen ederki kostea izan zan. Obeto esateko, ez nuan jasotzeko bear ainbat indar izan. Ez saio batean, bitan, irutan eta lautan. Azkenean, belar-sorta bezela,

bere azpian etzanda sartuta jaso bear izan nuan. Ia-ia itoan gañera, nere estuasun arekin.

Oiek dira gerrak ekartzen dituan ibilketa zoragarriak.

Mendi-egal artan, naiz zear-zear izan, bage-neukan, gure bide-zanjara ateratzeko, aldapatxo bat. Berez txikia zan, bañan orduan neretzat oso aundia izan zan. Egin bear izan nuan, gorputza bizkar gañean nuala, exeri eta berarekin deskantsatu; eta, deskantsatu nintzanean, aldapa ura igo.

Ordurako, Etxeberria'k kamillaren gañean jarria zedukan berak ekarritako gorputza.

Ni, beintzat, lenengo jaso eziñik eta gero aldapa igo eziñik, txiki-txiki eginda allegatu nintzan.

Orain ez dakit ondo edo gaizki egin genduan. Bañan nik beti, naiz ildakoa eta naiz zaurituta-koa, gero ere nere ondoan ikustea nai izaten nuan. Aiek ere gure ondotik artu eta eraman ziztuzten kamilleroak. Eta Etxeberria eta ni, ori eginda, nai zuanak nai zuana esanda ere, biok poz-pozik gelditu giñan.

Bañan orrekin etziran gure gau artako lanak bukatu. Etsaia inguruan geneukala ikusirik, an lur-zuloak eta trintxerak egin bearrak zeuden, nai eta nai ez.

Guk gau artarako zapadoreak eskatu arren, granorik etzan inguratu ere. Bañan andik edo emendik pikatxoi eta pala eta zakuak bialdu zizkiguten. Ez dakit nundik etorri ziran, bañan

guretzat etzan gutxi alajañetan. Aiek izan ez bagenitu, orain ez dakit biziko ote nintzan.

Nere denboran, amaika lekutan amaika langille eder ikusiak ditut. Bañan gau artan bezelakorik, egun da sekulan ere ez da nere begien aurrera azaldu.

Baziran gure artean atxurrik iñoiz ikusi ga-beak. Bañan aiek ere, ondoren txarra zeukatela jakiñik, egiñalak egin zituzten gau artan, nola gañera!, urrengo egunerako gordelekuak egiten, gizagajoak eskuetan baba ederrak atereaz.

Trintxera auek egiteko erakusle iaio bat bagenduan: nere lagun Jose Berakoetxea, igeltsero eta kontratista sonatua. Berak erakutsita eta berak guk ainbat lan edo geiago egiñik, gau artan beintzat, bide zar zanja-zulo artan, izugarrizko zaku pillarekin, eunka eta eunka zaku, or egin degu egundoko parapettoa. Bazirudian *la línea Sigfrido* zala. Urrengo egunean naiz millaka kañonazo tira, ura an gelditu zan osorik (3).

Gure atzeko aldean zeudenak ere, bakoitzak beretzat egiten zuan zuloa. Eta urrengo egunean, komandantea zauritu ez baligute, ez det uste gu andikan iñork bialduko ginduanik.

Esandako *línea Sigfrido* orrek, orma edo paretana zaku-lurrez beteta, ia iru metro zabal zituan, eta altura bi ta erdi, tiratzeko xulo eta guzi. Naiz kañonazoak jo, arek balantzarik ere etzuan egiten. Igeltseroa alakoa izan; aita argin onenetakoa zan, eta bai bera ere.

Gau ura dan-dana ezer gelditu gabe lanean pasa ondoren, or asi zaigu moro-jendea *inji-anju* egiñaz, beren zaldi gañetan eta abar, len esandako aurreko mendigañera agerpena emanik.

Ura ikusirik, buruzbide au atera genduan: iñork ere, guretako batek esan artean, ez tirorik tiratzeko. Zenbat eta geiago aiei utzi, orduan eta geiago azalduko baitziran bistara.

Jakiña zegoan, tirorik tira gabetan egon ezker, berak, irriparez lañezturik eta beren *inji-anju* guziekin, arrotu egingo ziralala. Guk ordu-rako bagenekian, moro aiei zurrut asko ematen zietela atake-egunetan. Eta zurrutak arrokeria berekin du; eta burua, arrotzen danean, galdu egiten da. Eta aiei ere galdu egin zitzaien.

Esan bezela, an zebiltzan moro eta moro etziran guziak. Argi eta garbi ikusten zan, guri atakea emateko edanak zeudela.

Bañan artean egunsentia nola baitzan, guk bagenekian seguru, eguna ongi argitu arte etzala beren abiazioa bonbardeoak egiten asiko. Orregatik itxogin genduan, ezer tirorik tira gabetan, bolara batean.

Orrela, bai oñezko eta bai zaldizko mendigañera irtenda arroturik zebiltzala, alako batean, guretako batek esku-bonba bat tireaz eta kontraseña ura zala danok jakiñik, asi gera danok batera berai tiraka. An ziran *inji* eta *anju* eta orru-soñuak!

Zaldiak baziran gure aldera etorriak batzuk, gutxienez beintzat zortzi edo amar bat, zer egin etzekitela, gañekoak lurrera erorita.

Era ortan, aurretik jakiñaren gañean jarri genituan, guk ere gordelekuak ongi egiñak geneuzkala gau artan.

Gero, eguna ongi argitu zuanean, abiazioa asi zan. Lenengo, guregana. Ango mendi-dardar-otsa! Arek bai ematen zuala, azken erabakia zetorrela mundu guziarena. Abioiak eten gabe zebiltzan, bonbak bota eta bota. Gu, berriz, antxe lurrari musu emanaz. An bai azkar eta ondo esaten zala Nere Jesukristo Jauna.

Gure bide-zanja ura, mendi-egalean, ia-ia esateko, zuzen-zuzena zan, eta, ainbeste abioiek bonba tira eta tira jardun eta bide artan ia granorik sartzen etzutela oarturik, poztutzen asi giñan, alkarri onela esanaz:

— Naiago genikek olako ogei bat abioi bageneuzka. Nik beintzat sartuko nizekkek aurretik zortzi bonba zanja-zulo ontan. Oiek ere nolabaiteko abiadoreak izango dituk, naiz guri naiko bildur sartu.

Onela ordu-pare batean egon giñan, etsaiaren infanteria gu geunden mendia atakatzen noiz asiko ote zan zai-zai jarrita. Alkarri onela esaten genion:

— Gaur onera datorren guzia, ez dek gure ingurutik bizirik joango.

Goizeko zalaparta ura egin ondoren, moro, kaballeri eta peste guziak lenbizi gugana etorriko zirala uste genduan guk; bañan dan-dana aldrebes egin zuten.

Pagotxiki eta gure bitartean, *Granja* esaten

genion toki batean, *Batallón Rusia* zegoan. Ia berdin-leku edo ordeka bat zan. Andik asi ziran.

Nunbait ere militarrek beti militar izaki, eta orduan ere ongi egin zuten ordeka eta zabal-lekutik ataka eta bretxa idekitzea.

Bolara batean tiroteo izugarria izan zan. Antxe nengoan katalejoakin begira, eta, makiña bat etsai lurrera erortzen ikusirik, nere artean onela esaten nuan:

— *Batallón Rusia* ori esaten duan ainbat baliente bada eta onela irauten badu, leku or-tatik etsaiak gaur jai zeukatek.

Bañan, begira eta entzuten lasai-lasai geundela, alako batez or gelditu da bat-batetan tiro-teoa, eta zer izango, eta *Batallón Rusia* alde egi-ten asia zala.

Orduan ere bai arrunt amorruan eta desengañaturik jarri nintzala, nere buruari esanaz:

— Itzak legunak eta putzak miñak! Auek al dira *Batallón Rusia*'ren egitekoak?

Aiek etzuten izan, guk bezela, ez kañonazorik eta ez abiazioaren bonbardeorik. Aiek zeukaten arrisku bakarra, etsaiak gure mendia aurren artzea zan. Bañan leku edo *Granja* ortan, beren parapetoetan, gureak baño ederragoetan gañera, etzuten egon besterik, ingurura etortzen zan etsaiari tiroka egiñez.

Oso ongi asi ziran, eta ordu bete bat gutxienez ongi egin zuten. Ederki asko ikusten genduan etsaia nola aurreratzen zan eta nola atzeratzen zan. Etzuten iñola ere ain azkar etsi

bear, zeuden lekuan egonda. Bañan ez *sí* eta ez *no*, danak batera igesi abitu.

Batzuek Otxandio eta Olaeta aldera artu zuten korrika, eta beste batzuek guregana zetozen. Eta, guri sekulako amorrua emanik, orduan onela esan eta egin genduan:

— Gero ere gure etsaiak, oiek igesi datozen lekutik etorriko dituk guregana, eta aurren-aurrena obe diagu *Batallón Rusia* orrekin probatzea, ea zer anka-joku egiten duten, guk emendik tirata.

Ez gero uste jotzera tiratzen ez genienik. Bai etsaiak baño amorru aundiagoarekin, kobardeak izan ziralako. Orduan etzuten une ederrik igarro, ez.

Uso-bandak eiztariaren tiroakin egiten duana egin zuten: beren bidea utzi eta beste bat artu. Besteak bezela, Otxandio eta Olaeta aldeira joan ziran.

Orain ez dakit zaurituak zenbat izan zituzten. Gero, ni beintzat, damutan egon nintzan. Bañan, gure amorruan, jotzera tiratzen jardun giñan.

Lagun batek onela esan zuan:

— Gaur bezela beti egin ezkerro, jarriko litzake disziplina eder askoa!

Pagotxiki gañean Loiola batalloia zegoan zintzo eta erne. Bañan, *Rusia*'k *Granja*'tik alde egiñik, arrisku aundian gelditzen ziran eta beren tokia utzi egin bear izan zuten.

Orduan, jakiña, guretzat urrengo arrikada. Nere lagunai onela esan nien:

— Motellak, orain artekoa ez dek ezer ere izan. Egiazko gerra orain zetorkiguk. Bañan lasai egon: guri au kentzen, mendi argi ontan, oso zalla zegok. Erne bakoitza bere lekuan!

Orrela, *Batallón Rusia*'k iges egindako lekuetan barrena etsaia noiz etorriko zan preparaturik geunden, gure mendira igotzeko egokiena inguru aietatik zeukaten eta.

Bañan, alako batez, Pagotxiki-ko gain-gaiñean, Loiola'koak utzitako tokian alegia, or jarri digute etsaiak *ocho con ocho*, kañoi antiaereo eta guzi egiten zuan aleman bateri bat. Eta bildurrik eta kezkarik aundiena arek ematen zigung. Kañoi aiek, erderaz esaten dan bezela, *tiro directo* tiratzen baitzuten; fusillak bezela alegia.

Gure zanja-zulo artan etzegoan atsegin andik aurrera. Nik ez dakit zergatik, bañan *ocho con ocho* oiek, nunbait ere artean abiazioari bakarrik tiratzeko ekarriak zeuzkaten, ez trintxeretara. Dan-danak aidean lertzen ziran; *rompedoras* izena zuten. Etziguten ildakorik eta zauritakorik asko egiten.

Bañan ainbesteko tiro-errenkadarekin bildurra galanta sartu bai gure zanja-zuloetan. Geiengeiena egiten zutena ori zan. Aiek bai artzen zutela zanja-bide ura zuzen asko. Abiazioak ez; bañan aiek bai. Izugarrizko saioa egin zuten.

Alako batez, *alkabuete* deitzen genien bi abioi, baju-baju etorri eta gure bide gañera beren bonbak tira zituzten.

Orduantxe bi tolosar, nere lagun jator eta gudari sendoak ziranak, alkarren ondoan egonik, biak antxe il zituan bonba aietako batek.

Neri Basalgo mendian lagundutakoak ziran. Bata, izengoitiz Beltxa esaten geniona eta bottella pattarra nerekin edan zuana; eta besteari Elustondo jauna esaten nion nik, takigrafista nerea izan zalako.

Pena izugarria izan nuan, ain gudari jatorrak ilda eta kamilletan Olaeta'ra eramaten ikusita (4).

Alako batez, jo digu infanteriak atakea. Guk ere gogor egin genien mendi-egal artatik. Berak, gugana oñez baitzetozen, amaika erortzen ziran, naiz gu abiazioak eta *ocho con ocho* aiek zigortuak egon. Guk beti errezago genduan etsaiari mutil geiago galdu arazten. Au ala izan zan: gure aldean berak geiago galdu ziran, beren abioi guziekin ere.

Bañan, jo ta ke ari-ari giñala, alako batez, gure buru egiten zuan komandanteak or neri deitu dit, atzeko aldera beragana joateko. Atzeko aldean pagotegi aundi bat zegoan, eta ertzean an zan gure zai jarrita.

Alkarrekin izketan asi gera. Arek neri, an oso gaizki gertatzen giñala esaten zidan, eta atzeratu egin bearko genduala eta abar. Eta nik, artean alako bildurrik etzegoala esaten nion, andik ateratzeko.

Onela ari giñala, bala galdu batek anka zau-

ritu zion, eta bota katuskan gelditu zitzaion, bistan zuala, bala ori.

Neronek atera nion, bai ere iztarra gomarekin lotu ere, Garagorri'k lagunduaz. Eta pixka batean ongi.

Kamilleroak an zebiltzan gelditu gabe, eta une artan kamillerorik ez. Alako batez, miñak asi zitzaizkionean, bera or asi zaigu esanaz:

— Atera ni emendik! Atera ni emendik!

Onela ixildu gabe. Orduan zer gertatu, eta mutil-talde guzia ikaratu eta danak igeska asi.

Gu, berriz, antxe, pago aundi baten atzean, larri asko. Alako batez, etorri zaigu Garagorri, eta, kamillerorik iñola ere etzegoala entzun zuanean, komandanteak berriro:

— Atera ni emendik! Atera ni emendik!

Nere lagun Garagorri'k oso leku txarra ikusten zuan eta onela esan zidan:

— Iñaki, gu biok bakarrik bagiña, makurka-makurka ateratzea bazegoken. Bañan biok besoan artu eta atera bearra zeukagu eta oso zalla ikusten diat nik.

— Motell, baso tarteko argi-une ortara nolabait ere aterako diagu eta eldu zaiogun.

Garagorri berotu zait, eta au, berotzen zanean, oso bizkorra zan. Berotzen izaten zituan lanak.

Beintzat, eldu diogu biok alde banatatik, atera gera pago atzetik, eta, atera orduko, *ocho con ocho* kañoi alemanak baziruditen apropos zai jarriak zeudela. *Dun dun dun*, eta beste pa-

go bat ipurditik atera zuten. Gu antxe, adar tartean aztarrika.

Toki argi artara allegatu giñanean, pixka batean itxogin genduan. Andik laister, jo degu osterara aurrera, eta ez dakit zenbat tiro tira zizkiguten. Bañan irurok ondo irten giñan beintzat.

Komandante jauna pozik zan orduantxe, eta bai gu ere, alkarri esanaz:

— Gaur jaio gera berriz esan genezake.

* * *

(Iñaki Alkain'en idazkietan ez da Arangio'ko burruka onetzaz ezer geiago esaten. Aren kontatera etena gelditu zan emen.

Utsune ori bete bearra zegoala esana nion. Bai berak ere baietz agindu. Bañan lan ori egin baño len joan zitzaigun.

Ala ere, itzez zerbait ere adierazia zidan. Orixen jarriko det orain emen.

Komandanteak tokiaren berri etzekian. Bai, ordea, Etxeberria'k eta Alkain'ek, alderdi aietan ere ibillaldiren bat edo beste egiñak zirala-ko. Ain zuzen, orretxegatik deitu omen zuan komandanteak, etsaia atzetik sartuko ote zitza-ien bildur baitzan.

Iñakik, zer bildurturik etzegoala esaten zion; atzeko aldean mendi aundiak zeudela, pagadiz eta arkaiztegiz beteak, eta egoteko an lasai gauera arte. Erretiratzekotan ere, garairik onena orduan izango zala, etsaiak ikusi gabetan alegia.

Bañan, komandantea zauritu zutenean, mutillak ere jakin eta onela asi omen ziran alkarri esaten:

— Komandantea eritu ditek! Komandantea eritu ditek!

Berri txar ori bereala joan omen zan trinxeraren azken muturreraño.

Eta, esan bezela, abiazioa, *ocho con ocho* kañoi alemanak eta oñezkoen ekiñaldiekin ezin buruturik baitzeuden, uste gabeko berri ori entzunda, zenbait mutillek etsi eta igesari eman zioten. Eta, ortik asita, azkenerako dan-danak utzi egin bear mendi ura.

Alkain'ek zionez, komandantearen zauriak eman zien azken errematea. Kolpe arek arrunt ondatuta utzi zituan.

— Bestela —esaten zuan, eta or goien ere orrela idatzita dauka— ez ginduan andik iñork bialduko (5).

(1) Itzaurrean esanik daukagunez, inprentara baño len, *Itxarkundia*'ko gudari eta Alkain'en gerra-lagunak izandako bi adiskideri, Tolosa'ko Santos Mokoroa eta Horazio Etxeberria'ri, erakutsi genien liburu au, beren iritzia eman zezaten.

Berak esan zidatenez, etzuten guziak bergaratar orrena egin. Geien-geienak, konfesatzera joan omen ziran.

(2) Alkain'ek ez du olakorik aitatzen. Bañan Tolosa'ko Mokoroa eta Etxeberria adiskide oiek onela esan zidaten:

— *Batallón Celta*'koak tokia galdua zuten, eta berriro artu bear izan genduan, reketeai kenduta.

Reketeak, gu baño goraxeago gelditu ziran, kaxko batean.

Gu beraxeago, toki ageri batean, txabol baten ondoan, etsaiarengandik alde xamar. Alkar ederki ikusten genduan.»

Tokiaren berri ikastearren, izanak gera gu ere Arangio mendian.

Santa Krutz ermita oso goi dago: 1.050 bat metro, *Catastral* mapak erakusten duanez.

Ermita aurrean, ego aldera, dana larre garbia da; bañan atzean, dana pagadia eta arkaiztegia.

Ermita aurrean, andik irureun bat metrora eta altura berekoa, kaxko bat. Kaxko ontan, trintxerak garbi-garbi ageri dira oraindik ere. Barruti itxi bat bezela egiten dute. Reketeak egindako trintxerak izango dira. Gudariak, berriz, Alkain'ek esan zigunez, bide zanja-zulo batean sartu eta zaku-lurrez parapeto bat egin zuten.

Goi artatik, Euskalerriko eremu aundia ta ederra ikusten da: Aralar, Ernio, Aizkorri, Kurutzeberri, Anboto, Udala, Gorbea... Beko zuloan, Aramaio. Beste aldera, Otxandio eta Bitori...

(3) Tolosa'ko Horazio Etxeberria'k onela esan digu:

«Zaku-lurrez egin genduan pareta, oso ondo zegoan. Guk alde eginda ere, an gelditu zan ura. Tiratzeko, txulo txiki batzuk zituan. Ni, aietako batetik ametralladorekin ari nintzan.

Alako batez, Ernani'ko bati utzi nion ametralladora eta zuloa: Gillermo Ollakindia'ri. Une berean, txulo artatik bala sartu zuten. Buruan kaskoa jantzia zeukan eta orri eskerrak. Kaskoan jo ondoren, bularrean ikutu arin bat egin zion. Kasko ori jantzi berria zuan, Tolosa'ko Santos Mokoroa'k utzita. Ollakindia ori, Bilbao'ra eraman zuten sendatzera.»

Santos Mokoroa'k, berriz, onela jarraitu zuan:

«Egun berean, ni besoan zauritu ninduten. Bilbao'ra eraman eta operazio bat baño geiago egin zidaten. Lenengo operaziotik esnatu nintzanean, antxe ikusi nuan, aurre-aurrean, Ollakindia ori, eskerrak ematera etorria, kaskoa utzi niolako.»

(4) *Beltxa* eta Elustondo'ren ilberria onela eman zuan *Eguna* egunkariak, 1937-IV-24'an:

«...Nabaitu bear dizkiagu pranko utsune. Alberdi ura, Mikel, erori zitzaiguen lenengo. Ondoren, «Urdiria», Gorostidi, Gimondar Xabier, Urretabizkaia'tar Bitor... eta ainbat geiago. Gaur, egunotan, urriagotua dek gure lagun sendia.

Juxto eta Patxi erori dituk!

Odol-egarri dek gure lur maitea. Abertzale jatorrenen naiean dek ain zuzen ere.

Juxto erori dek. Bastarrika'tar Juxtorenak egin dik.

Patxi erori dek. Elustondo'tar Patxirenak egin dik.

Ona nola bildu zituan eriotzak bere maindira izoztuan.

Alkarrekin izan ituan Justo eta Patxi gau osoan. Gau osoan etsaiari aginak erakusten. Gau osoan lur bustiari josita. Gau osoan izkilluari besarkatuta. Etsaiaren eraso gogorrari arpegi emanka. Gauaren illunean Euzkadi zaintzen.

Araba'runtz begira dan malkar ura iztun balitz!

Goizaldean, jorraillaren 4'garrenez, Araba'ra begira dan malkarrean, jaioterriaz itz da pitz ari zitzaizun gudari-talde bat. Berontan Juxto eta Patxi.

— Gure errian egin bear dizkiagun aldaketak...

— Biarko Tolosa ez dek atzoko Tolosa izango.

— Ez gatzebiltzak alperrik nekeak bizkarra zamatuta.

Egun gorria zeukatek zenbait azal-utsek...

Ordu batzuek geroxeago, gorputz ziran Juxto eta Patxi.

Bata, bizkarrezurra apurtuta. Bestea, lurrari soña josita.

Gudaren lenengo egunetik gudari ziran bi gazte lerdenen bizitz-aria etena zan...»

(5) Arangio'ko burruka auetzaz aitamen ugariak egiten ditu *Euzkadi* egunkariak; 1937-IV-3'an onela dio:

«...Entró en acción la artillería enemiga, y más tarde la infantería atacaba a la ermita de Santa Cruz, guarnecida por nuestros gudarís. Los rebeldes, que seguían

envalentonados por la forma en que se desarrolló la lucha en anteriores jornadas, avanzaron algún terreno con cierta confianza, con esa confianza que tiene quien se cree superior en fuerza, en armamento y en táctica militar. Pero esta vez de poco les sirvió todo este aparato bélico. Las ametralladoras y la fusilería, los morteros y cañones, que lanzaban su metralla hacia la parte de Jarindo y Albertia batiendo con eficacia a los que trataban de acercarse a las tropas que defendían la ermita, hicieron una verdadera sarracina entre los fascistas. Allí en el terreno de la lucha, quedaron los cadáveres mercenarios y soldados que sirven de blanco a nuestras armas, manejadas por brazos expertos y vigorosos.

Nuestros combatientes obligaron al enemigo a replegarse a sus posiciones de iniciación de avance. Los rebeldes, entre una lluvia de fuego, desistieron de lograr el objetivo que les señaló el mando, retirándose desordenadamente...»

Auek, egunkarian apirillaren 3'an agertu baitziran, bezperan gertatuak izango ziran noski, illaren 2'an alegia. Artean Celta'koak egongo ziran. Gau artan Itxarkundia'koak etorri.

Alkain'ek dionez, bigaramonean, illaren 3'an, tarteka tiro batzuek izan ziran, bañan ezertxo ere ez, urren-go egunarekin alderatzeko. Eguraldi txarra izan zala, abiazioak ibiltzerik ez, eta, orregatik, burrukarik gutxi edo bat ere ez.

Ori dana, Euzkadi'k 1937.IV.4'garreneko alean esaten duanarekin, asieran oso batera ez dator, bañan kukaeran bai:

«...volvió a atacar el enemigo nuestra posición de Santa Cruz. El primer ataque, porque fueron tres los desencadenados a lo largo de la jornada, tuvo lugar a las dos de la madrugada, resultando de gran intensidad. Las fuerzas mercenarias y fascistas fueron rechazadas con un número de bajas que no es posible precisar, pero que dan idea de él las lamentaciones de los heridos por la metralla de las armas leales.

Tres horas más tarde volvieron a la carga los facciosos, y nuevamente resultaron rechazados en la misma forma. Ya amanecido, se vieron sobre el terreno algunas de las bajas que no tuvo tiempo de recoger el enemigo en su retirada desordenada.

Pero el mando rebelde, que no se resignaba a quedarse sin tomar al asalto dicha posición, insistió en sus ataques, llevando a cabo otro de menos intensidad a primera hora de la tarde, que fue igualmente rechazado...

Puede decirse que el tiempo impidió que la aviación enemiga favoreciera los movimientos de la infantería... En estos días es cuando el observador aprecia lo que la aviación ha significado en la marcha de las operaciones...»

Borrokarik gogorrena biaramonean izan zan, illaren 4'an, igandarekin. Orregatik, astelenean periodikorik ez eta 1937-IV-6'an ematen du Euzkadi'k egun artako zalaparten berri. Alkain'ek, abiazioak kalte aundia egin ziela dio. Bai Euzkadi'k ere:

«La aviación facciosa, viéndose superior en número, ha evolucionado siempre con la seguridad de quien se considera imbatible... Y, al ser el enemigo dueño del aire, al menos en la zona de guerra, el combatiente leal no ha hallado la asistencia necesaria para el aprovechamiento de su notable esfuerzo, digno de todo elogio. Los aparatos rebeldes, no quitándose de encima del gudari, no le dejaban obrar con la libertad precisa. El ruido de los motores era su preocupación constante. Y había que contener a una infantería que se acercaba con la moral que presta la actuación más o menos eficiente de las propias fuerzas aéreas. Había que contenerle, y se le contenía en una acción heroica. Las bombas estallaban cerca cubriendo de tierra al gudari. Era imponente el tableteo de las ametralladoras del aire, que habrían fuego en todas las direcciones, particularmente sobre los objetivos más visibles y concretos. El combatiente, dedicado por entero a impedir que las fuerzas enemigas logran avanzar, permanecía en su puesto valientemente, funcionando las ametralladoras y

la fusilería de manera ensordecedora. Pero los aviones facciosos, intensificando su acción, conseguían, al fin, para su infantería, lo que ésta no hubiera logrado luchando en igualdad de condiciones. Y el domingo se vio esto reflejado a lo largo de la jornada.

...Los rebeldes desde primera hora de la mañana atacaron con fuego general las posiciones de Tantaibakar, de la parte de Otxandiano. Su ataque fue de unas proporciones hasta ahora desconocidas. Estamos seguros de que no se ha registrado uno de tal envergadura en ningún frente peninsular a lo largo de la campaña. Porque, y ésta es la verdad, para contener a un enemigo que cuenta con ese armamento hay que oponerle otro armamento igual, ya que en estas guerras de tipo moderno el esfuerzo del hombre, por muy grande que sea, no lo es todo a la hora de decidir una batalla.

...Ejército que lucha en condiciones inferiores, no recoge sobre el campo el fruto anhelado. Le falta vigor, aunque le sobre voluntad. Y esto, compatriota censor, tenga a bien dejar sin rojo, porque es del dominio público, y todo lo que es del dominio público no se debe silenciar.

Izan ere, Euzkadi egunkari ortan, zati asko ikusten dira an eta emen zensurak borratuta.

Ona emen beste puska batzuk, egun berekoak:

«...Los gudarís vascos han cedido terreno, sí. Negarlo es absurdo, además de inconveniente. Más responsable es el que sabe que el que ignora...»

Después de reñido combate, en el que la intervención de las fuerzas aéreas fascistas fue la base del ataque enemigo, las milicias populares hubieron de replegarse, atravesando el llano que conduce a Otxandiano, a unas lomas, desde las que se contiene al enemigo.

La lucha duró todo el día del domingo, continuando durante la noche. Los gudarís euzkadianos se batieron valientemente...»

Alkain'ek toki batean esan digunez, etsaiaren zaldizkoak ere agertu ziran. Oien aitamena ere egiten du Euzkadi'k, 1937-IV-6'an:

«Los fascistas, que han atacado nuestras posicio-

nes desde que iniciaron la ofensiva con toda clase de elementos, tenían que poner también en línea de combate a la caballería, y la pusieron, aunque a lo largo de estas jornadas haya sufrido grandes pérdidas, por el blanco que ofrece a la fusilería y a las ametralladoras.»

* * *

José Manuel Martínez Bande'k bere *Vizcaya/Monografías de la guerra de España*, Número 6, Madrid 1971 liburuan, egun auetako berri labur-labur ematen badu ere, oso batera dator Alkain'ek esaten dituanekin:

«El día 3 es de descanso y la única novedad son los ataques enemigos a las posiciones de la III Brigada.

El día 4 se reanudan las operaciones... Las Brigadas I y III se apoderan del pueblo de Olaeta; a la izquierda, la I conquista además, Ochandiano y la ermita de San Bernabé; y a la derecha, la III avanza por las laderas del Aranguio, hasta posesionarse de las ermitas de Santa Marina y Santa Cruz. El quebranto que sufre el enemigo es considerable.»

Eguna egunkariak, 1937-IV-4'an, onela dio:

«Ekaitzaren ondoren bare aldía izaten da.

Ala atzo emengo guda-oñetan.

Goizean goiz, oraindik illuna zala, joaldi bat egiten asi ziran paxistak. Ez eben agertu beste egunetan aña indarrrik, ez tramankuluen ugaritasunik.

Agertu ezin nunbait, gure gudariak emon eutsen astiñaldiaren ondoren.

Santa Kruz mendia dabe orain begikoen. Mendi onetaxa begira egiten ditue euren joaldi guztiak.

Lenengo joaldia etzan luzea izan. Gure gudariak ondo gordeta, indarrez orniduta, ez eben neke askorik izan joaldi ori atzeratu eta ixildu eragiten.

Arerioak, aurrerako egunetan legez eta joaldiak egiten asten dan guztietan antzera, gizon ugari laga bear izan zitun mendian, gure gudarien suak jota.

Bostak inguruan barrero asi zan piztualdia agertzen.

Oraingoan, lenengoan baño sutsuago jotzen asi zala irudian. Lenengo lepokadea aiertu (bengau) gureaz nunbait. Tramankulu eta gizon geiago erabilli zitun gañera.

Kañoiak ots bizian, izkillazkarrak sua dariola, pu-

sillak eten gabe otsean, ekiñaldi bizi eta gogorrean asi ete zan itxurea agertu eban.

Neketik indarra atera-ta, artutako lepokadei ezin makurtuta, leoiak legetxe jagi zan zalapartada bizian gure gudariak kikildueta atzeratuko zitun ustez (*).

Bañan oneik, adorerik galdu barik, nasai-nasai, lan eta nekerik ez eben izan, lenengoan lez atzera jaurtiten.

Tiro bakotxak soin soñean joten eban arerioa eta ziara aulduta, ezereztuta, indargetuta, triskauta eta lurra jota atzeratu bearrean aurkitu zan au.

Arratsaldean be, irugarrenez jo nai izan eben alde onetan. Arerioa, ikusten danetik, ez dago beingoan zearro makurtuta geratzeko.

Baña irugarrenean be lurra jo bearrean aurkitu ziran paxista ankerrak.

Gure gudarien aurka ezingo dabela ezer egin ikusiko eben atzo paxistak...»

* * *

Eguna'k, 1937-IV-6'an, asteartearekin, onela zion:

«...Aurre-eguneko bare-aldia indarrak batu eta loditzeko izan zala igarri geinke. Gaur iñoizkorik bizien eta gartsuen jo dabe.

Egazkiñak ditue lagun altsu.

Gure gudarien gañetik kendu barik jardun dabe egun osuan, arerioari bidia zabaldu naiean. Artilleria ez da ixilik egon. Era guztietako tramankuluak batuta ditue paxistak alde onetan. Eta guztiak batera gure esien gain jaurtiten alegindu dira, gure gudarien lurra suz bete eta areik kikildu eta atzeratu naiean.

San Adrian mendira jaurtiten dabe bizien. Geiago. Mendi onetara zuzentzen ditue euren joaldi guztiak.

...Otxandiano'ko alde onetan aurrerakada gitxi egin al izan dau arerioak, bere indar guztiak, iruditu be ezin leikez alako indarrak erabili ditun arren.»

* * *

Eguna orrek berak, 1937-IV-7'an, abiazioak gudariei egiten zien kalteaz itzegiten du:

(*) *Eguna*'k, moldiztegiaren utsegitez-edo, *atzeratu zitun*...

«...Atzo bertan, aurrerako egunetan asitako joaldia jarraituaz, arerioak amorruz beterik jo eban.

Ez bein bakarrik.

Goizean birritan eta arratsaldean barrero, eten gabeko ekiñalean ekin eutsan.

Kañoiak, morteruak, guda-belbillak, tramankulu guztiak agertu ebazan, bere joaldiak aurrera eruateko.

Eta goitik, gure gudarien gain, egazkiñak geratu bariarik mendiak suz betetzen.

Ori alan izan arren, gure gizonak, aberriari begira, oin bat galdu baño lenago lertuta geratu dira.

Eta paxistei eurei, aurreratzen daben oinkada baxotxa, neke, min eta odol ugari kostatzen jakoe.

Eurak dakie guk baño obeto.

Origatik, gudariak aurrera bialdu baño len, suz beteten alegintzen dira gure mendiak, egazkiñen bidez.

Eta bakar-bakarrik orrelaxe, egazkiñen lan izugarritz bakarrik lortuten dabe eta lortuko dabe lortu leiken guztia.

Egazkiñik ez dogun bitartean, gure mutillak joaldi guztiai zelan edo alan eutsi al izango deutse...

Gurmea dagonetan eta egazkiñak agertzen ez diralako, gure gudariak izaten dira joaldi guztietan eskua artzen dabenak.

Atzo bertan ikusi genduan.

Goizian goiztik, oraindik gure mendiak gurmaz beterik egozala, gure mutillak bestien gañetik agertzen ziran bizitasunez, adorez eta indarrez.

Gero, eguerdian, gurmea kenduta egazkiñak agertzen ziranetan eta egazkiñen su-pean ordu luziak jardun biar ebenetan, egazkin orreïn indarrak makurtuta ikusten genduzan, eurekaitik atzerarik egiten ez eben arren.

Eta aldi banaketan, gure egazkiñak mendira agertzen ziranetan, beste bizitasun bat igarten gendun gure mutillen jotzeko eran.

Origaitik, geuk oartu al izan degunaren ondoren, gure mendietako itxurea osoro aldatuko dan ustea dogu, alderdi guztiak oso-osorik, gure gudarien lana ikusita, euren txikikeriak baztarta, egazkin orreik oso-osorik eta gogo-gogoz eskatzen dituelako.»

PELLO ZESTUA'KOA

Beste gertaera bat, Olaeta'tik Santa Krutz ermitara dijoan bidean gertatua, beko aldean, goiko egala utzi eta komandante Lizaso bizirik andik atera ondoren.

An genbiltzan atzera eta aurrera baso aietan, nundik ostera etsaiari aurka egingo ote genion, eta alako batez Pello Zestua'koa...

Arek egun artan, naiz-eta gu goitik jetxi eta atzeratuak giñala jakin, munizioa bukatuxea izango genduala pentsatu zuan onenean; eta artu bere mandoaren gañean zortzi kaja munizio eta an ziak tiro tartean bere mando orrekin goiko ermita aldera.

Gu, ura zetorren bide ondoan jarrita geunden, esan bezela, etsaiari berriz ere baso eta arkaitz-tarte aietan arpegi emateko asmotan.

Alako batez, or azaldu zaigu Pello ori betik gora, mekauenka baztar guziak erre eta kixkali bearrean, bere mando jator arekin.

Jatorra bearko izan mandoak Pello arekin. Bestela, artuko zituan bizkarreko ederrak, maldezio eta guzi.

Nik, beintzat, amaika algara eder egiten nuan arekin. Arek bazuan askok eta askok bear gendukena: zerbait egiteko naia eta intentzioa beti.

Zurruteroa ere bazan. Bañan, ikusten genduanez, ari zurrutak indarra ematen; eta guri, berriz, kendu.

An zetorren, beintzat, esan bezela, betik gorra, zalaparta bizian.

Allegatu da gure ingurura, eta nik, arkaitz-tarte batetik aterata, badaezpada ere, aurrena deadar egin diot:

— Nora oa, Pello, mando orrekin? Or goitik jetxi gaituk eta emen gatxiok, zer egin ez dakigula. Orain Otxandio laister artuko ditek etsaiak, eta ik mando orrekin jo zak emendik basoz-baso Urkiola aldera noski, gaur araño atzeratuko gaituk eta.

Aren erantzuna:

— Eta naiko munizio bai al daukazute?

— Bai, motell, bai. Ortatik geiago zeukagu, ausardi eta balientetasuna baño.

Eta, nik esan bezela, abiatzera zijoala, une artan or ikusten degu gure parean, eguzkiaren dizdizara, ez dakit zenbat bonba botatzen abiazioa.

Orduan nik:

— Pello, Pello, etorri adi onera azkar!

Jarri gera bide ondoko arkaitz-tarte batean, eta, gu etzan orduko, aiek danbarrekoak, mote-

llak! Bizkarreko ederrak artu genituan astindutako arkaitz-puskakin. Pellok, aiek birao eta maldezioak!

Atera gera ostera arkaitz-tarte artatik mandoaren alderdira eta mandoaren arrastorik ere ez inguru aietan. Ezta munizio-kaja granorik ere.

Onela dit Pello jator arek:

— Aizak, Alkain: nere mandoa iltzea baño, naiago nian ni il izan baninduten.

Eta aren mekauenak! Ni ez nintzan mandoaren billa asko saiatu. Bañan Pello an ari zan, gizagajoa, inguruetan begiraka.

Nik onela esan nion:

— I, Pello: orain zer nai dek?

Eta erantzuna berak:

— Nere mandoa erdiz-erdi jo eta txiki-txiki egin dutela ikusten diat. Bañan aren puska bat billatu arte, ez nauk emendik joango.

Eta gizagajoak, nola egiten zuan negar bere mandoarengatik!

Len nerekin nituan lagunik geienak, abiazioaren pasada ura artuta, etzuten andik alde egiteko iñork agindu bearririk izan. Laister izkutatatu ziran inguru aietatik, arraio polatu!

Nik, berriz, ez gogo aundirik neukalako; bañan, Pelloren malkoak ikusirik, itxogin-aldi ederra egin nion, mandoaren zati bat billatu bitartean.

Alako batez, or azaldu da beste arkaitz-tarte batetik, eskuan mandoaren anka-zati bat daukala; eta, bere begi txiki aietan oraindik ere malkoak dituala, onela dit:

— Orain negok pozik! Bestela, nere burua urkatuko nian. Bañan au nere mandoarena dek, eta orain Urkiola aldera joango nauk, eta neronek nai detan leku batean lurperatuko diat.

Ala, beintzat, beste batzuekin batera bialdu nuan, len esan bezela, basorik baso Urkiola aldera.

Ni, lenengo, Olaeta aldera jetxi nintzan, eta ez dakit zer egin zuan bere mando-ankarekin.

Egun artaraño eta ikusi artean, nik ez nuan sinistuko biraozale batek maitasunik ezertan izaten zuanik.

Bañan Pello Zestua'ko oni argi eta garbi ikusi nion maitasuna zerbaitetarako bazuala, guk askotan ezertarako ez deguna.

Gero, andik bolara batera, Mañari'ko erri inguruan geundela, or kantatu nion kanta bat, nere errian ikasia, asto gaxoarena, berari mandoa zala aldatuaz.

Erdi erderaz eta erdi euskeraz zan. Baziran dozen erdiren bat bertso, ez dakit esateko zehiek jarriak.

Nik, esan bezela, kantak astoa esaten zuanean, mandoa esanda kantatu nion:

*Al ikullu ya no vuelve,
mi buen mandua no vuelve, no.
Ya no brinca de poza
cuando cabeza tocar alguno.
Arraiua, suerte txarra
con tripako miña poner hizo.
Biotzeko mando gaxua
malkos tiraba cuando murió.*

Jesus! Kantatu banion kantatu! Aren maldezioak! Aztu zitzaizkidan gañontzeko bertsoak ederki asko.

Onela esan zidan:

— Geiago ezer nere bistan neri mandorik kantatzen edo aitatzan badidak, onako pistola onekin bi tiro erorri emango dizkiat. Gogoan izan zak, e? Gero ez neregana inor kontuarekin etorri!

Onelakoxea zan gure Zestua'ko Pello jator ura. Biraozalea eta zurruteroa, bañan bere eginbearretan zintzoa.

Aren izenean bertso bat dioa emen, ongi merezia du eta, naiz ilda egon.

Bizirik balego naiago nuan. Bañan ez dio ardurarik. Aita Santuak ere, ilda gero egiten ditu santuak. Nik ere, nere aldetik, Zestua'ko Pello orrela egiten det: ilda gero santu nereztako, eta berdin izan dedilla irakurle guziontzako.

Ementxe ondoren bertsoa:

Gogoan daukat, Pello,
zure eginkizun,
gaur zauden leku ortan
ez dakit dakizun;
zurrutero izan arren
etziñaden lizun,
Alkaiñek ere zuri
lagundutzen zizun...
Emango nizuke nik
berriz edan zazun.

URKIOLA

Ala, beintzat, Ibarrola'k ostera bereala frentea jartzea nai zuan. Bañan nolabait ere batasun batera allegatu omen ziran, Etxeberria'k onela esanaz:

Alegia, etsaiak gaua igarotzen Olaeta'n geldituak zirala eta bildurrik etzegoala; bañan goizeko lauretarako borroka-leku eta frentea jarriko genduala.

Esan bezela egin genduan; aurrena lo lasai, eta urrengo goizean geren agintza bete.

Garagorri eta biok, bezperan armak mendian utziak genituan, komandantea andik ateratzearren. Aien billa joan giñan eta iñor etzan konturatu ere.

Egun artan, eguraldia oso lañotsu eta itxusia zetorren; eta guk, olako eguraldia ikustean, poz aundia izaten genduan, alkarri onela esanaz:

— Motellak, gaur abiaziorik ez dek. Gaur lasai ibilliko gaituk.

Otxandio'tik Urkiola aldera lenbiziko mendigaña izan zan, gu etsaiaren zai jarri giñan to-
kia.

Eguerdi-alde arte etzan ezer izan. Ontaz au-
rrera, laister asi ziran etsaiaren kañonazoak. Ba-
ñan, len esan detan bezela, abiaziorik gabe, eta
ura guretzat zerua zan.

Etxeberria, esandako mendigañetan gelditu
zan bere gudari lagunekin. Ni, berriz, mendi-
gain orren beko zuloan, pagotegi aundi batean.

Geren burutik sortutako martingala, etsa-
iari saiets artatik gogor egitekoa zan. Etsaiak
nundik etorriko ziran pentsatzen genduan, eta
saietsetik kixkali egin nai genituan. Orregatik
jarri giñan pagotegi artan, pago-atze banatan
gordeta.

Nik mendigañekoak jakiñaren gañean jarri
berrak neuzkan. Bestela, burruka asten zanean,
geren lagunak geroi tiroa tiratzeko arriskua ge-
neukan.

Nere lagunai, joan-etorria egiten oso denbo-
ra gutxi pasako nuala esan nien, eta tirorik egin
gabetan egoteko lasai, nik buelta ura egin ar-
tean.

Esan bezela, igo naiz. Beste bi konpañi, gu-
re batalloikoak, an zeuden zai jarriak, nere la-
gun Etxeberria gidari zutela. Mendigañeko oiek
danak, nik esandakoarekin pozez gelditu ziran.

Gero, onela esan zidan Etxeberria'k:

— Goazemak orain mendi onen aurreko
egaleko gain ortara, etsaiak nola datozen ikus-

tera. Artu itzak esku-bonba batzuk eta goazen azkar.

Onela, Alejandro Lizaso, Errenteri'ko txistulari sonatua eta gure komandante bezperan zauritutakoaren anaia, an zan, eta onek ere gurekin joan bear zuala.

Abiatu gera makurka, Etxeberria buru genduala. Bagoaz eta, oraintxe ia allegatuta, arkaitz-tartetik or asi zaizkigu *unju-anju-anju* eta tiroka moroak. Bereala jo zuten Lizaso. Eta, gu bonba tira eta tira asi giñanean, orduan laister alde egin zuten andik moroak eta moro etziranak.

Lizaso'rengana atzeratu giñan eta ordurako illa zegoan gizagajoa. Bañan atera genduan leku artatik.

Andoain'go Elizondo sonatuaren semea zan kamilleroa, pizkorra benetan. An il zan au ere. Kamillari elduta gelditu zan, kañonazo batek jota, Lizaso kamillan zuala.

Denbora gutxian nik auek ikusita, korrika nere lagunetara, eta utzi nituan lekuan etzeuden. Or ikusten ditut baso tartean badijoazela.

Joan naiz laisterka berengana deadar egiñaz, eta ostera danok lengo lekura. Ni galdu ote nintzan kezkarakin zijoazen, eta oso pozez jarri ziran danak.

Alako batez, kamio aldetik ezin zutela ikusi zutenean, etsaiak or jo dute gure aldetik.

Gu, berriz, lasai-lasai pago-atzeetan; eta goiko gañera ia joan arte utzi egin genien, batere tirorik egin gabe. Bañan, oraintxe ia allegatu

ziranean, orduan danok batera sutu genituan guren armak.

An ziran *anju unju* eta *unju anjak!* Eta an datozte danak amilka goitik bera. Bizirik etziran asko jetxi; eta jetxi ziranak, geienak zaurituak.

Orrekin bukatu zan, egun artan egin bearra genduan eginkizuna.

Abiatu gera Urkiola gañera basorik baso. Neroni nintzan aurretik, eta alako batez, or ikusten ditut bi gudari, gure jantzikoak, gure aldera datozela. Nik orduan nere lagunai esan nien:

— Motellak, danok lurrera!

Ala, beste bat eta ni pago baten atzean jarri giñan. Gure ondora allegatu ziranean, *alto* emanikan, armak kendu eta galderak egiñaz, onela izan zan beren erantzuna:

Rosa Luxemburgo batalloikoak zirala, beren batalloia billatu eziñik zebiltzala, Bilbao'ko ez dakit zein kaletan bizi zirala, *súbdito* alemanak zirala eta abar.

Beren batalloia zegoan aldetik zetozela esan nien nik, juzgu txarra egiten niela, eta gurekin Urkiola'ra etortzeko.

Ala, beintzat, *jefe de sector* jaunari argitaratu dizkiot, Ibarrola'ri alegia; eta, beren aitorketak arturik, onela dit jaun orrek: ea zer nenbillen aren mutillak baitzen eta detenitzen.

Orduan bai gelditu nintzala ez zerurako eta ez lurrerako. Karranpak gorputz guzian jo ninduan. Bañan Etxeberria agertu da. Onek eta

beste lagun askok jefe orrekin sekulako eztabaida izan omen zuten.

Ni, Garagorri'k an ondoko beste etxe batera eraman ninduan, eta an egon nintzan katre zar batean etzanda, otz-ikara tamalezkoa neukala eta Garagorri nere lagun ona ondoan nuala.

Ez dakit nundik, bañan kantinflora bete pattar ekarri zidan. Nik ez nekian nun nengoan ere. Bañan pattarra nere ustez ona izaki. Lau edo bost tragotan ustu nuala uste det, eta or jarri naiz lurriña dariodala.

Esnatu nintzanean, or ikusten ditut komandante berria, Sansinenea, eta Etxeberria, nere katre oiaren ondoan. Ni ia ez nintzan oartzen ere nun nengoan eta zer igaro zitzaidan. Bañan gero, apurka-apurka, dan-danak zer eta nola ziran gogoratu nintzan.

Onelako gora-berak ikusten dira gerretan. Azkenerako, alderdi batekoak ere ia alkarrekin etsai biurtuta ibilli bear. Onelakoxe irabazketak izaten dira. Bat baratxuria baño ere piñago ibilli arren, bestea ez dakizu nolako asmorekin dabillen eta nungo anketatik erren egiten duan.

Nere ustez, gerran egiazko lagunak banaka izaten dira. Bein gerran asi ezkerro, azkenerako buru guzia ere arindu egiten da. Eta, au arintzen danean, batek ez du zer egiten duan jakiten ere.

Auek danak auxe esan nai dute: uste ez dezun ura izaten dala zure etsairik aundiena.

Gerrak dan-dana txarra du. Nik, beintzat, onik ez nion ezer ikusi. Dana txarra.

Gero, andik laister, jefe orrek berak aitor-tu zidan, bi *súbdito* aleman oien gañean arrazoi nuala esanaz. Bañan gizon arekin ez nintzan andik aurrera ezertan ere piatzen. Ez dakit zergatik; bañan alakoxe zalantza bat utzi zidan barenen.

Geroztik ez nintzan len bezin biotz zabalekoa izan. Ezta nere maixu Etxeberria ere. Gu biok, andik aurrera, beste alde batera egiten genduan gerrantza. Begirapen aundia izaten genduan jaun orrentzat. Zenbat olako gora-bera izaten dan gerran! Gauza onerako geiegi.

Ortxe, goizeko lauak aldean, beste batalloi bat allegatu zaigu, txanda eta aldaketa egitera. *Azaña* deitzen zitzaion batalloia gañera. Oso mutil gudari bikañak ziran.

Etxeberria eta biok asko eta asko ezagutzen genituan. Gu esploradore ibiltzen baigiñan, Bizkai'ko batalloi askok ezagutzen ginduzten, eta auek ere bai.

Onela, beintzat, auekin egonaldi bat egiñik, berak etorritako autobusetan Bermeo'ra eraman gaituzte.

Garagorri'k eta biok, ogei ta lau orduan seko lo egin genduan, aurreko egunetan oso nekaturik geunden eta.

Esnatu zanean, onela dit Garagorri orrek:

— Zeñen bearrezkoa dan lo egitea! Onek bai ez duala barkaziorik! (1).

(1) J. M. Martínez Bande'k, *Vizcaya/Monografías de la guerra de España, Número 6, Madrid 1977* liburuan, onela dio Urkiola aldeko burruka auetzaz:

«El día 5, sin descanso, se emprende la última etapa de la operación. Lluve intensamente. La I Brigada ocupa el pico de Urita, cortando la carretera de Ochandiano a Durango; la III se posesiona del pico de Ollargan; y la IV lo hace con el Mochotegui, avanzando en dirección del puerto de Barázar y llegando hasta muy cerca del cruce de las carreteras Bilbao-Vitoria y Ochandiano-Barázar. El tiempo es muy crudo, con lluvia y granizo, y el adversario lanza varios contraataques, llegando a emplear carros rusos.»

* * *

Apirillaren 5'an Urkiola aldean gertatu ziran burruka auetzaz, onela dio Euzkadi egunkariak, 1937-IV-7'an:

«Frente de Urkiola. En el sector de Elorrio (*) nuestras tropas han atacado de flanco una fuerte columna enemiga que se dirigía a reforzar las tropas que atacaban Urkiola, haciéndola retroceder desordenadamente, causándole muchas bajas y capturando tres prisioneros...»

Eta de nuestro enviado especial atalean, —Jesus de Gárriz zan atal orren firmatzalle—, onela dio:

«Muy pronto comenzó a atacar el enemigo nuestras posiciones de Urkiola.

En este punto, tras un nutrido fuego de fusil y de ametralladora, avanzaron los fascistas en dirección a una loma de la parte izquierda de la carretera, ocupada por nuestros gudarís. El enemigo, compuesto en su mayor parte de moros, lanzando hacia adelante a unos cinco batallones, cruzó una parte (emen itz bat zensurak borratuta) en la que se encontraba completamente descubierto, ofreciendo un magnífico blanco a nuestros fusiles.»

Urrena, ogei ta bat lerro zensurak borratuta. Ondoren:

«Así sucedió en el ataque a la loma mencionada.

(*) Urkiola'tik Elorrio aldera esan naiko du. Bestela, frente de Urkiola eta sector de Elorrio ez dira iñola ere alkarrekin ondo uztartzen.

Las fuerzas moras, casi apelonadas, comenzaron a ascender por su declive, y en ese momento entraron en acción nuestros fusiles y ametralladoras. La réplica fue contundente. El comandante del batallón que tomó parte en esta defensa heroica de la posición nos dice que el enemigo dejó tendidos en el terreno más de doscientas bajas visibles. Los moros caían continuamente bajo nuestro fuego.»

Burruka au eta Alkain'ek kontatzen duana, bat bera izango dira, guk uste.

Abiazioaz eta eguraldiaz onela dio:

«Al hablar de la aviación forzosamente hemos de señalar que por la mañana no actuó con la intensidad de otros días, ni mucho menos. Su acción puede decirse que estuvo limitada a vuelos de reconocimiento. Dos aparatos de bombardeo y uno de caza aparecieron sobre nuestras posiciones sin dejar huella de su paso...»

Pero llegó la tarde y mejoró el tiempo. Y al aclarar la aviación enemiga hizo de nuevo acto de presencia.»

Urrena, beste berrogei ta bost lerro zensurak borrotuta. Eta bukaeran onela dio:

«...lo que determinó a los mandos a ordenar un repliegue a las cotas inmediatas, que se llevó a cabo dentro del mayor orden.»

J. M. Martínez Bande'k, Apirillaren 6'an zer gertatu zan adierazteko, onela dio:

«El día 6, la I Brigada, tras vencer intensa resistencia, conquista el puerto de Sumelza y asalta el Sebigán —fuertemente atrincherado—, persiguiendo al contrario y llegando hasta el puerto de Urquiola; la III Brigada ocupa el monte Aranguio y el collado de Ambotaste (), tras duro combate; y la Brigada IV efectúa los movimientos preparatorios para el asalto del puerto de Barázar...»*

* * *

Eguna egunkariak, berriz, onela dio 1937-IV-9'eko zenbakian:

«Urkiola eta Barazar'en.

(*) Anboto-oste, alegia.

Egunotan egin diran joaldi astun eta neketsuen ondoren, atzo bake eta nasaitasuna igarri ta egon zan gure guda-oiñetan.

Egazkiñen bildurra egon zan arren eguraldi eder eta argiak bildur ori sartu ebalako, paxisten egazkiñak berandurarte etziran agertu eta guda-lanik ez eben egin, ikusketak egiten jardun baño.

Egazkiñak agertu ezik, arerioak ezin daike ezer egin gure gudarien aurka, eta atzo oinkada batik be ezin aurreratu izan eban.

Egia da joaldi bizirik etzala egon, arerioa nekatuta agertzen dala erakutsi egiñaz.

Urkiola'n eta Barazar'en baretasun eta bake-aldi bardiña nabaitu zan

Pusil-tiroak entzun ziran eta artilleria be lan egin eban.

Sendo eta lodi egin barik, makal eta bigun orraitik.

Gure gudariak, arerioaren joaldien bildur barik, gogortze-lanetan jardun eben egunik geienez, arerioaren joaldi barriei itxaroten.

Paxisten atze aldean gudari ugari ikusi ziran bate-tik bestera eta, itxura danez, len egozanak aldatzera etorrira.

Gudari talde orrein gain gureak zindoki eta bizi ekin eutsen sakabanatu eragiñaz, orrela euren asmuak beteten laga barik.

Besterik ez eban emon egunak alde oneitan.»

* * *

Burruka-aldi auctan il zan Alejandro Lizaso au, oso txistulari ona emen zan, eta gerra aurrean, Europa eta Amerika'n barrena ibillia, txistua jotzen.

Beraren anai batek esan zidanez, gerra-denboran ere atzerrira joatea eskeñi zioten, txistua joaz propaganda egin zezan. Aren erantzuna:

— Len nintzan txistulari; orain gudari naiz.

*Itxarkundia'*ko konpañi baten kapitana zan. eta *Billarreal'*en oso gogor saiatua.

*Euzkadi'*k, 1937-IV-15'an eman zuan aren eriotzaren berri, goralpen aundiak egiñez.

Bañan lenago ere aren aitamenak egiñak zituan, 1936-X-29'an. Elgeta aldean, gudariak emisora bat jarria omen zuten, altaboz eta guzi. Eta illuntzero, itzal-diak, berri emateak eta abar zabaltzen ziran andik etsaiarentzat.

Bukaeran, onela zion *Euzkadi*'k:

«Casi todas las noches hay también concierto a cargo de Alexander de Lizaso, el popular txistulari de Errenderi, que es escuchado con verdadera atención por ambas fuerzas. Los acordes del milenario txistu dan un aire de paz a la línea de fuego...»

* * *

Eguna egunkariak, 1937-IV-18'an, onako bertso auek argitaratu zituan, Alejandro Lizaso'ren omenez, *Iparra-girre abilla dala* doñuan kantatzeko:

TXISTUA TAMAL DAGO

Ez da entzuten une abetan
Lizaso'n txistu-soñuba.
Ixilik dago! Zer ote dauka,
zer du orren mututuba?
Lenago orren alai
entzuten gendun nun-nai
ain maite degun txistuba.
Negarrez nago! Erail digute
txistulariyen maixuba.

Txistu jotzalle bikaña intzan
iñun onarikan bazan,
euzko jai on bat baldin bagendun
Alexander beti an zan!
Euskal-erriyan ezik
ta berdin atzerritik (*)
bere txistuba nun etzan?
Urretxindorran abestiyan lez
goxo xamur jotzen ukan.

(*) Guk erantsia da *ta* ori, utsune ori moldizte-giaren utsegite bat izango dalakoan eta neurria osatzearren.

Oraindik ez det sinistu nai-ze
Alexander illa danik,
orain egun gutxi diradela
entzun nun bere auetik:
«Datozela onuntza,
alperrikan dabilta!
Ez diat oien beldurrik;
gu zapaltzeko maltzur oietxek
jan bear ditek oraindik.»

Gudari trebe zintzoa eta
iñoren beldur gabea,
gudarijentzat ezin zinteke
maitasun mutil ohea!
Maitetasun osoaz (*)
guztiyoi lagundubaz
pozturik zeukan jendea.
Tiru txar batek eraman digu
txistu jotzalle gaztea!

Guda oñean egonagaitik
umorea etzun galdu,
zenbat alditan abestu euben:
«Iya guriak egin du,
ez oraindik umildu,
alkarregana bildu,
anaiak alkar lagundu,
paxista oiek egin ditzagun
beti-betiko birrindu.»

Erail digute gudari on bat
bere adiñ onenean,
ez degu geiago ikusiko
bere lagunen artean!
Au da egon eziña
eta biotz samiña
daukatena gorputzean!
Baña zeruban poztuko gaituk
gero alkar ikustean!

Artu zak nere lagun zar orrek
azken agur au biotzez,
bizitzen banaiz ez nauk sekulan
aztuko ire izatez.

Jaunak artu dezala
seme on bat bezala
bere altzoan poz-pozez,
ama on batek bere semea
biotzez maitatzen dun lez!
Agur, Lizaso, ikusi arte
donokiyan zorionez!

IÑ-OL.

(Euzko-Gudarostea, Gernika.)

(*) *Eguna*'k beste onela ditu lerro auk: *maitetasun mutil ohea eta maitasun osoaz*. Or ere, moldiztegiaren-edo oker batez, neurria aldrebestuta, beraz. Zuzendu egin degu, al izan degun erarik onenean.

SABIGAIN

Alako batez, korneta jo digute, danok kuartelera bereala biltzeko.

Guk ango etxe batean lo egiten genduan, eta, kornetak zer esan nai zuan, ongi asko jabetu giñan.

Garagorri eta biok gudari-erropak jantzi, ar-mak artu eta bertako andereño nere izena zuanak, aurrena neri bi edo iru besarkada aundi eman zizkidan.

Leku aietan, olako agurtza egiten oso oitura aundia da, eta gerra-garaian geiago gañera.

Bañan, Garagorri'ri ematen asi zitzaionean, onek etzuan ausardirik izan besarkadarik emateko, eta atzeraka asi zan.

Etziran parre egiteko garai bereziak; bañan algara ederrik egin nuan nik Garagorri'ren izenean, berari onela esanaz:

— Motell, amasei urteko nexka pollit bati ez ematekotan, etzekiat bada zeñi eman bearko zaion musu mundu ontan.

Eta Garagorri'k onela dit erantzuna:

— Iñaki, neri utzi zaidak pakean emakume txoro oiekin. Nik naiago nitek, orain mendira joatean, abioi bakar bat ere ikusiko ez bagendu.

Arrazoi zuan ortan. An mendian guk ez genduan beste etsai madarikaturik, abioi oiek baño. An, neskatxai eman bearrez, lurrari eta loiari ematen genion musu. Ez giñan izaten, ez, emakume-gaitan.

Bermeo'tik ostera lengo ingurura, Urkiola aldera alegia, eramán ginduzten.

Gu joaterako, Urkiola'ko gañak arturik zeuden. *Azaña* batalloiak ere atzeratu bear izan zuan, guk utzi genduan mendigañetik. Eta lenago Otxandio aldetik giñanak, gero Durango eta Mañari aldetik jarri giñan, Untzillaitz mendian (1).

Jarri eta bigarren egunerako, Garagorri agiñeko miñez Bilbao'ra joan zitzaigun, bere bi agin ateratzera.

Andik urrengo egun batean, arratsaldean, Sabigain mendigaña artu bear zala.

Guretzat oso eguraldi egokia zan egun artan, lañoa zalako; eta guk, len esan bezela, ura bear. Lañoarekin iru aldiz indar geiago genduan. Bañan eguraldi argiarekin, iru aldiz gutxiago. Bazegoan alde ederra.

Alaxe izan zan gure orduko gudaketa. Etzan izan berriketa, aideplanoen azpian danok erreta.

Sabigain mendia artzeko, *Sabino Arana Goiri* batalloia zegoan izendatua. Baita trebe asko

artu ere egin zuten mendigain ori. Bañan naiko illak eta zaurituak izan zituzten gizagajoak.

Etxeberria, ni eta abar, Untzillaitz mendigaitik gure artilleriaren gidari izan giñan, nola eta nora tira bear zuten erakutsiaz.

Artilleroak oso ongi egin zuten beren lana. Aiek bai egun artan merezi zutela apari eder bana. Beraiegatik artu zan Sabigain gaña. Bestela, ez dakit nola ibilliko ziran oñezkoak, mendi ura artzen.

Ala bukatu zan egun ura. Gaua etorri zanean, *Batallón disciplinario* jarri zan Sabigain mendian.

Urrengo egunean, etsaiak jo dute kontraatea, batalloi orrek borroka-aldi izugarria egin zuan. Bañan gizagajoak naikoa egin zuten eguerdi alde artean egoten ere (2).

(1) Untzillaitz mendiko goiko arkaitzetan ez da, noski, trintxerarik agiri. Bai ordea, asko gañera, ego aldera eta beerago, Untzillaitz mendia eta Urkiola'ko kamioaren tartean dagoan mendian; *cota* 621'an, alegia, *Catastral* mapak dionez.

Mendi ori gaurko egunean pifudiz beterik dago. Bañan garai artan, bearbada, larre solla eta garbia izango zan.

Mendi ortan geldituko zan *Itxarkundia* batalloia, Durango galdu zan arte.

Etzan oso toki atsegiña izango, aurre-aurrean eta gorago, Urkiola'n alegia, etsaiak baitzeuden.

(2) Liburu guziak diotenez, Sabigain mendia iru bider artu bear izan zuten nazionalak, bitan galduta. Alkain'ek, bi aldiz bakarrik artu zutela esaten zuan. Ez da arritzeko, noski, ainbeste urteren buruan txetatsun guziak xuxen ez ematea.

Bañan beste gauza jakingarri asko ere gogoan zituan Sabigain'go burruka orretzaz. Itzez kontatu ere egin zizkidan. Bañan nik, gero berak idatziko zitualakoan, edo *diktadoz* berak esan eta nik kopiatuko nizkiola-koan, papereratu gabe utzi nituan. Eta pena da, kon- taera eder eta mardul bat egingo lutekenak baitziran.

* * *

J. M. Martínez Bande'k, ainbeste alditan aitatutako bere liburu ortan, onela esaten du Sabigain'go mendia- ri buruz:

«El 11 de abril las posiciones nacionales del monte Sebigán sufren una fuerte embestida del enemigo, que es rechazado.

El ataque se reproduce al día siguiente, iniciándose con una violenta preparación de artillería que dura dos horas, tras la cual fuerzas como de tres batallones se lanzan sobre aquellas posiciones, que han de ser evacuadas. El 13, se reconquistan, causándose al adversario buen número de bajas, pero en la jornada siguiente un segundo contraataque, precedido de una preparación ar- tillera de tres horas de duración, hace que de nuevo cambie de dueño el codiciado objetivo, extendiéndose luego la presión hacia el puerto de Urquiola, al que también se ataca, aunque sin éxito. La reconquista de- finitiva del disputado Sebigán tiene lugar el día 14, tras cruenta lucha.

La pelea por el Sebigán representaba una reacción no esperada y anunciaba otras futuras de las que Peña Lemaña sería la más significada.»

Martínez Bande'k dionez, illaren 14'garrena izan zan nazionalak mendí ori artu zuten eguna. Bañan liburu guziak diotenez eta egunkarietan ere ageri danez, 15'ean gertatu zan ori. Martínez Bande'k berak ere, oarretan, 15'garrena esaten du.

* * *

Euzkadi egunkaria oso zeatz mintzatzen da Sabigain mendiko burruka onetzaz. Bañan geiegi ez luzatzearren,

orrek diona alde bat utzita, *Eguna*'k esaten duana aldakuko degu onera.

1937-IV-13'eko zenbakian, onela dio:

«Sarigan eta Altun tontorrek gure gudarien mende **geratu dira**.

Bostetan asi eta illundu orduko, gure mutillak, indarrez eta adorez beterik, arerioa toki orreitatik atara al izan eben.

Aurrera.

Gogortzen asi gara.

Arerioaren indarrei eutsi geuntsan len.

Orain geu gara arerioari jo ta ke ataraten asi garianak.

Arerioak, egazkiñez gañezka ostu al izan euskuzan lur zatiak gureganatzen asi gara...

Atzo bertan, egun baketsu bat igaro ondoren, illunzera gure mutillak aurrerakadan asi ziranian, paxistak euren aurrian makurtuta, gure indarrei eutsi ezinda, gure joaldiak geratu eziñean, atzeraka juan biarran aurkitu ziran, egun gitxitan euren mende izan dituen tontorrek gure gudariantzako laga ondoren...

Bostetan asi eta illundu ordurako joaldiari azkena emonda egoala esan lei.

Bururatuta bai beintzat...

Gure mutillak, leioak legez, Sarigan eta Altun tontorrek igo eta euretan euzko ikurriña zabaldu eben aizetara.»

* * *

1937-IV-14'an, onela dio *Eguna* orrek:

«...Arerioa arro agertu da goizean.

Sarigan eta Altun mendiak artzeak min emon nunit.

Eta eurekaz jaubetu guraz agertu jaku.

Joaldiak-joaldi egin ditu orretarako.

Gure mutillak, ez dagoz bere arrokerien mende egoteko-ta, zindoki eutsi eta atzeratu al izan dabe, bere asmoak burutik kendu eragiñaz.

Gero, egun guztian, guriak izan dira jo dabenak.

Kañoiak eten gabeko jardunean ibili dira, arerioaren tokiak zigortu eta suz beteten.

Pusillak be lan egin dabe...»

* * *

Urrengo egunean, 1937-IV-15'an, onela dio *Eguna*'k:
«Urkiola-Barazar aldean.

Goiz baketsua izan zan.

Arratsalde erdirarte bake ori igarten zan.

Aspaldian etzan gure mendietan atzo besteko ixiltasunik.

Giro txarra egoala esan dogu gorago.

Gure mutillak nàiko lanik izan eben giro orreri arpegi emoten.

Arratsaldean, baña, iñok uste ez ebalá, sua jaurtiten asi ziran gure kañoiak.

Izkillu guztiak ekiñalean asi ziran bat-batez.

Joaldiren bat egiteko asmotan nunbait?

Ezin ukatu.

Sarigan mendi ingurutan izan dira joaldiok.

Oraintsu guk artu genduzan, orain egun bi, oker ezipagagoz.

Baña arerioak, sinistu ezin lako indar-aldi baten, bere indar guztiak batu eta gure gain jarkiaz, tontorrera sartu ziran gure mutillak pixka bat atzera jaurtitea lortu eban, neke eta estutasun ugari igaro ondoren.

Gure mutillak min artu eben arerioaren arrokeriaren ekintza mingarri ori beteta ikustian, eta biar lako erantzuna emotia erabagi eben.

Orrez gañera, Sarigan mendiak daben garrantzia ez da nolanaikoa.

Gero egin daikezan joaldi eta gudaketetan oñarri sendo eta gogorra izango da mendi ori.

Paxistak badakie eta origaitik alegin eta indar ipiñi zituezan bertan eusteko, nai-ta asmo eta burutasun orreik (*) odol asko eroan.

Atzo mendi orretan gogortuteko egin zituen alegiñak etziran motelak izan.

(*) *Orreik* ori guk erantsia, moldiztegiaren utsegitez itz orren faltan dagoalakoan.

Gure mutillen joaldiei eutsi ezinik, gizonez ugari orniduta egon arren, joaldi gogor eta biziak egin zituan.

Bat jausi orduko, lau eroaten zitun mendi orretara, zelan edo alan berari eusteko.

Alperriko lanak orraitik.

Gure mutillak ez egozan asitako bideari lagateko.

Jo alde batetik eta bestetik, indar emendik eta bultzatza andik, arerioa aulduta, ziara makalduta, lurra jota ikusi eben.

Gudaketeak aldi batzuetan gudaketa andi eta zaratatsuen itxurea artu eban.

Esku-bonbak erabili biar izan ziran arerioa bere tokietatik jaurti eragiteko.

Eta arerio anker orren tokietara urreratuta, gure guda-riak, adoretz, bizitasunez eta indarrez beterik, arrotzaren esietara gorputz da arima sartu ziran, geiago bertatik ez urteteko.

Orrela, joaldi luze eta gogorren ondoren, Sarigan mendia oso-osorik gure eskuetan geratu zan.

Mendi ori lagatean arerioak izan ebazan illak ez dira gitxi.

Gaba egin zanean eten barik ebiltzan gure mutillak paxisten illak batzen.

Zauritu ugari be artu ziran eta biar diran lez gaixotegietara eroan.

Paxistak, azkenengo anka jokuan, armarik eurekaz eruateko astirik be ez eben izan.

Ainbat pusil eta izkillazkar (ametralladora) batu zitu-
tuen guriak.

Gure joaldia eutsiko eban ustez, arerioak mendi ori izkilluz beteta eukan, izkillu ezagaitik eurenak laga biarrean eta atzeratu biarrean aurkitu ez egiezan.

Ala ta be izkilluok kaltegarri baño ez jakoezan izan, gure mende geratu ziralako.

Arerioa luzaro gogoratuko da, arratsalde euritsu, lañotsu, otz eta zakar baten, gure mutillak, leioak legez bere gain jarkita leporatu eutsen zigor eta astiñaldi astunaz.

Atzoko joaldia gogoangarria da izan be.»

* * *

Eta 1967-IV-16'an, onela zion *Eguna*'k:

«...Arerioak, arañegun emon jakon zigorraz minduta, ainbeste odol ixuri ondoren ostu jakon mendia galtziaz minduta, bere indar guztiak batu zitun Sebigan mendia barriro bereganatzeko.

Lortu ebanik ukatuko ete dogu?

Gure gudariak zindoki ta gogor (*terco*) jarri ziran mendi orreri eutsi naiean.

Ainbeste neke ta estutasun ondoren irabazitako mendi bat galtzia ez da izan be edozelan egin leikiana.

Origaitik arerioen joaldiei eutsi ta aurrerakadak ebagiten bulartsu jokatu eben gure mutillak.

Arerioak badaki ori.

Gizon ugari bidean laga bear izan zitun, gure izkizkizkarren eta pusillen suaz jota.

Berak, baña, asi eban bidean jarraitzen gura izan eban, gizonak-gizon jausi ta ill arren.

Tramankulu guztiak batu zitun.

Era guztietako izkilluak an alkartu zitun gure mutillen euspina ebagi ta eten al izateko.

Lortu ebanik ez dagigun ukatu.

Ainbesterik egingo ete eban gure aldetik egazkiñik izan bagendu?...»


ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*)
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).

25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (*Aitua*).
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. Soroa: Baratzen. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara. (*Aitua*).
37. A. Cardabercz: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (*Aitua*).
42. Uztapide: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. P. M. Urruzuno: Iru ziri. (*Aitua*).
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma.
54. A. Zavala: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. C. Beobide: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. Iturriaga: Ipuiak. (*Aitua*).

73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*.)
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*.)
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*.)
84. *M. Matxain*: Uste gabeen. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*.)
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*.)
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*.)
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak. (*Aitua*.)
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*.)
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*.)
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*.)
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*.)
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*.)
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*.)
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*.)
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*.)
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*.)
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*.)
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*.)
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*.)
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.

126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).



AUSPOA
LIBURUTEGIA